



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

**2008KO ABENDUAREN 5EKO  
OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK**

**ACUERDOS DEL PLENO CELEBRADO  
EL 5 DE DICIEMBRE DE 2008**

Gai-zerrendako lehenengo puntua: **Lan eta Gizarte Gaietarako Batzordearen irizpena, gizarte-zerbitzuei buruzko lege-proiektuaren gainean. Eztatanda eta behin betiko ebazpena.**  
[08\09\01\00\0029]

Primer punto del orden del día: **Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Trabajo y Acción Social en relación con el proyecto de ley de servicios sociales.**  
[08\09\01\00\0029]

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea onetsi da.

Se aprueba la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.





## 12/2008 LEGEA, ABENDUAREN 5EKOA, GIZARTE ZERBITZUEI BURUZKOA

### ZIOEN AZALPENA

Autonomia Erkidegoak gizarte-zerbitzuen arloan duen eskumena honako esparru honetan kokatu behar da, oro har: Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuaren 9.2 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoei ezartzen dien betebeharra, pertsonen eta pertsona horiek kide izan ohi diren taldeen askatasuna eta berdintasuna egiazkoak eta eraginkorrak izateko baldintzak sustatzeko neurriak ezartzekoa, eta askatasun eta berdintasun hori eragozten duten oztupoak kentzeko neurriak ezartzekoa. Ikuspegi zehatzago batekin, eskumen hori Autonomia Estatutuaren 9.2, 10.12, 10.14 eta 10.39 artikuluek eratzen duten esparruan kokatu behar da, artikuluek, 1978ko Konstituzioaren 148.1.20 artikulua babestean, eskumen eskusiboa esleitzen baitiote Euskal Autonomia Erkidegoari honako arlo hauetan guztietan: gizarte-laguntza, adingabeak zaindu eta babesteko erakundearen antolaketa, araubide eta funtzionamendua, komunitatearen garapena, berdintasuna eta haur, gazte eta adinekoen aldeko politikak.

Eskumenok Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen artean banatzeko era, bestalde, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak ezarria da, alegia, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundearen arteko Harremanei buruzkoak. Lege horrek foru-instituzioei esleitzen die Autonomia Erkidego osorako instituzioen araudia nork bere lurraldean betearazteko eginkizuna, betiere Autonomia Erkidego osorako erakundeek lurralde horretan dagokien eginkizuna zuzenean betetzea eragotzi gabe. Bestalde, betearazpen-eskumen horren barruan sartzen dira beren zerbitzuen antolaketa erregelamenduz arautzeko ahala, administrazio-ahala (baita ikuskatzekoa ere) eta administrazio-bidean egintzak berrikusteko ahala.

Gizarte-zerbitzuen lehenbiziko legea, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1982ko maiatzaren 20an onartu zen, eta arlo horri lehen ez zuen koherentzia eman zion antolamenduaren aldetik; horrez gain, dohain bereziki garrantzitsua izan zuen, zerbitzu horien kudeaketa politiko eta administratiboari ikuspegi arras moderno eman baitzion. Etorkizunari aurrea hartuz jarduera-printzipio funtsezko batzuk sartu zituen, oraindik ere arlo horretako araudiaren oinarritzko lerro direnak.

Lege horrek ezarritako arau-esparrua aldatu egin zuen hein batean azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundearen arteko Harremanei buruzkoak, bai eta aipari-

## LEY 12/2008, DE 5 DE DICIEMBRE, DE SERVICIOS SOCIALES

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La competencia autonómica en materia de servicios sociales se enmarca, con carácter general, en la obligación que el artículo 9.2 del Estatuto de Autonomía atribuye a los poderes públicos vascos de adoptar medidas dirigidas a promover las condiciones y a remover los obstáculos para que la libertad y la igualdad de las personas y de los grupos en que se integran sean efectivas y reales, y, con carácter específico, en los artículos 9.2, 10.12, 10.14 y 10.39 del Estatuto de Autonomía, que, al amparo del artículo 148.1.20 de la Constitución de 1978, atribuyen a la Comunidad Autónoma del País Vasco competencia exclusiva en materia de asistencia social, de organización, régimen y funcionamiento de las instituciones de protección y tutela de menores, y de desarrollo comunitario, igualdad, política infantil y juvenil y de personas mayores.

La distribución competencial entre las administraciones públicas vascas, por su parte, viene dada por la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, que atribuye a estos últimos la ejecución dentro de su territorio de la normativa de las instituciones comunes, sin perjuicio de la acción directa de las instituciones comunes del País Vasco, incluyendo en esas competencias ejecutivas las potestades reglamentaria para la organización de sus propios servicios, administrativa –incluida la inspección– y revisora en la vía administrativa.

La primera Ley sobre Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobada el 20 de mayo de 1982, dotó a este ámbito de actuación de una coherencia organizativa de la que carecía, y tuvo la inestimable virtud de imprimir a la gestión política y administrativa de estos servicios una concepción decididamente moderna. Con visión de futuro, supo introducir además principios fundamentales de actuación que todavía hoy constituyen las líneas básicas del cuerpo normativo en esta materia.

El marco legal que estableció se vio parcialmente afectado por la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, y también por la apro-





laren 2ko 7/1985 Legeak ere, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoak. Arau-aldaketa garrantzitsuak izan ziren horiek, eta erantzukizun publikoko sistemari eragin zioten, hala eskumenen aldetik nola finantzen aldetik, eta, garai horretan gertatu ziren aldaketa sozial garrantzitsuekin batera, gizarte-zerbitzuen lehenbiziko lege hura aldatzeko beharra ere ekarri zuten.

Langabeziaren hazkundera, lehenago inoiz eza-gutu gabeko krisi industrial baten eta hark eragindako birmoldatze-prozesuen ondorio, aldi haren ezaugarri nagusietako bat izan zen, hainbateraino non Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legearen zioen azalpenak beharrezkotzat jo baitzuen gizarte-zerbitzuen sistemari Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren eta enpleguaren garapenari laguntzeko eginkizuna ematea, batez ere lan-merkatuan sartzeko zailtasunak handienak zituzten gizataldeen alde. Beste gizarte-aldaketa batzuek ere eragin zuten erreforma, bereziki biztanleriaren hazkundera begetatiborik ezak eta, urrats positiboa izaki, geroz eta emakume gehiago lan-merkatura sartzek.

Bestalde, 1996ko legeak ekarpen garrantzitsuak egin zituen, eta lagundu egin zuen, xedezat hala aitortuta, "herritar guztiek gizarte-zerbitzuak jasotzeko duten eskubidea sustatzen eta bermatzen, erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuak emateko sistema osatu bat antolatuz eta egituratuz, eta, era horretan, helburu hirukoitz bat gauzatzeko, hala nola marjinazio sozialaren eta ezberdintasunaren kausak aurreikusi eta ezabatzea, pertsonak eta taldeak gizarteratzen laguntzea eta haien garapen osoa eta librea sustatzea". Gizarte Zerbitzuen Sistema antolatu eta egituratzeko zereginen aurreratzeko aukera eman zuen, bai eta sistema horrek berezko dituen prestazio eta zerbitzuak garatzen eta horien sarea progresiboki hedatzen ere; hala, gizarte-ongizatea xede duten beste sistema eta politika publiko batzuetatik bereizitako esparru osagarri bat eratu zen.

Sistemaren antolakuntzaren ikuspuntutik, esku-menak argitzeaz gain, ez da dudarik honako hauek izan zirela ekarpenik garrantzitsuenak: oinarritzko gizarte-zerbitzuak sistemaren oinarritzko unitate gisa eta zerbitzuetara irispidea izateko gune gisa eratzea, zerbitzu horiei komunitatearentzako arreta antolatzeke funtsezko eginkizunak esleitzea eta, horren guztiaren ondorioz, udal guztiei ezartzea bakarka edo elkarturik era horretako zerbitzu bat emateko betebeharra.

Alde horretatik, honako hauek dira 1996ko legearen testuan nabarmendu daitezkeen beste ekarpen

bación de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local. Estas importantes modificaciones normativas, que afectaban al sistema de responsabilidad pública tanto en la vertiente competencial como en la financiera, determinaron, junto con la aparición de notables cambios sociales, la necesidad de reformar aquella primera Ley sobre Servicios Sociales.

El crecimiento del desempleo, fruto de una crisis industrial sin precedentes y de los procesos de reconversión derivados de la misma, constituyó uno de los aspectos más característicos de aquella etapa, hasta el punto de que en su exposición de motivos la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, consideró necesario atribuir al sistema de servicios sociales la función de contribuir a favorecer el desarrollo de la economía y del empleo en la Comunidad Autónoma del País Vasco, especialmente de los colectivos con mayores dificultades de inclusión en el mercado de trabajo. Otros cambios sociales, en particular la tasa de crecimiento vegetativo nulo de la población y la creciente y positiva incorporación de las mujeres al mercado de trabajo, fueron también importantes motores de la reforma.

La ley de 1996 hizo importantes aportaciones, contribuyendo, tal y como anunciaba en su objeto, a "promover y garantizar, mediante la ordenación y estructuración de un sistema integrado de servicios sociales de responsabilidad pública, el derecho de toda la ciudadanía a dichos servicios con el triple fin de prevenir y eliminar las causas de marginación social y de desigualdad, promover la integración social de las personas y colectivos, y favorecer su pleno y libre desarrollo". Permitted avanzar tanto en la ordenación y estructuración del Sistema de Servicios Sociales de responsabilidad pública, como en la progresiva extensión de la red y el desarrollo de las prestaciones y servicios que le son propios, configurando un marco diferenciado y complementario de otros sistemas y políticas públicas orientadas también al bienestar social.

Desde el punto de vista de la organización del sistema, además de introducir una mayor clarificación en materia competencial, su aportación más significativa fue, sin duda, la formalización de los servicios sociales de base como unidad básica del sistema y como punto de acceso al mismo, la atribución a estos servicios de funciones esenciales para articular la atención comunitaria, y la consecuente obligación para todos los ayuntamientos de prestar, por sí o asociados, un servicio de esta naturaleza.

En esta línea, otras aportaciones destacables del texto de la ley de 1996 fueron:





batzuk:

- Unibertsaltasun-printzipioa eta arreta pertsonalitzatuaren printzipioa berariaz jasotzea.
- Ekimen pribatuarekiko harremanetarako sistema baten oinarriak sartzea, honako hauen bidez: administrazio-baimenaren arauketa, ikuskatzea eta erakunde pribatuekiko lankidetzaren formula. Erakunde pribatuekiko lankidetzaren formula horietan, eraginkortasuna, kalitatea eta kostuak berdinak edo antzekoak direnean, irabaziak egiteko asmorik gabeko erakundeei ematen zaie lehentasuna.
- Zerbitzuen erabiltzaileek zerbitzuen finantzaketa horretan izan behar duten parte-hartzea zehatzago arautzea, honako hau xedatuz, besteak beste: erabiltzaileetako inor ez zaiola zerbitzurik ukatuko baliabide ekonomikorik ez edukitzeagatik, eta emandako zerbitzuen kalitatea ezin izango dela zehaztu, inola ere ez, erabiltzaileek kostuen finantzaketan duten parte hartzearen arabera.
- Arau-hausteen eta zehapenen sistema bat lehenbiziko aldiz arautzea gizarte-zerbitzuen arloan.
- la incorporación expresa de los principios de universalidad y de atención personalizada;
- la introducción de las bases de un sistema de relación con la iniciativa privada, mediante la regulación de la autorización administrativa, la inspección y las fórmulas de colaboración con las entidades privadas, en cuyo marco se otorgaba prioridad a las entidades sin ánimo de lucro cuando existieran análogas condiciones de eficacia, calidad y costes;
- una regulación más detallada de la participación de las personas usuarias en la financiación de los servicios, estipulando que ninguna persona usuaria quedaría excluida de la prestación del servicio por carecer de recursos económicos y que la calidad del servicio prestado no podría ser determinada, en ningún caso, en función de la participación de las personas usuarias en el coste del mismo;
- la primera regulación de un sistema de infracciones y sanciones en el ámbito de los servicios sociales.

Beste alde batetik, azken bi hamarraldietan 1996ko legea garatuz eratu den arau-esparruak gizarte-zerbitzuen arloan aurrerapen handiak lortzeko aukera eman du, eta horren fede ematen dute eskubi-deak eta gizarte-zerbitzuen kalitatea bermatzeko onartu izan diren oinarriko arauak, hala nola 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, zeinaren bidez onartu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea, eta 40/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzeko dena. Egindako aurrerapenen erakusgarri dira, orobat, era bateko eta besteko arreta-eremuetan garatutako arau ugariak.

Nolanahi ere, eta aurrerapen horiek gorabehera, arau-esparrua berriro erreformatzea komeni dela erakusten duten elementu eta faktoreak ageri dira.

Hain zuzen ere, gizarte-egoera nabarmen aldatu da azken hamarraldian.

- Gainditu egin da lehen aipatutako krisi industrialari –orduko langabezia-tasa handiak Euskal Autonomia Erkidegoko babesgabetasunaren arazo nagusitzat jo ziren– eta, egun, ekono-

Por otra parte, el marco normativo que se ha ido configurando a lo largo de las dos últimas décadas, en desarrollo de la ley de 1996, ha permitido alcanzar notables avances en el ámbito de los servicios sociales, y dan fe de ello la aprobación de normas básicas destinadas a garantizar el ejercicio de los derechos y la calidad de los servicios sociales, como son el Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la Carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas, y el Decreto 40/1998, de 10 de marzo, por el que se regula la autorización, registro, homologación e inspección de los servicios sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. También son muestra de los avances realizados las numerosas normas desarrolladas en los diversos sectores de atención.

Con todo, y a pesar de estos avances, se observan elementos y factores que aconsejan una nueva reforma del marco normativo.

En efecto, el contexto social ha cambiado significativamente a lo largo de la última década:

- Superada la crisis industrial ya referida –que determinó que las elevadas tasas de desempleo fueran consideradas el principal factor de desprotección en la Comunidad Autónoma del País





mia-egoera ona dugu, BPGa etengabe Euro-pako batez bestekoaren gaintik haziz doalarik, eta batez besteko langabezia-tasa, teknikoki, ia enplegu betekoa delarik. Hazkunde eta tasa horiek, sortu berri den krisi ekonomikoak eragingo badie ere, erreferentziako helburutzat hartu beharko lirateke hurrengo hamarraldirako.

- Beste alde batetik, beren autonomia mugaturik duten pertsonen kopurua haziz joan da, eta kopurua ez ezik izaera ere aldatu da. Mendekotasuna prebenitzeko eta atenditzeko beharrianak eta eskaerak hazi egin dira, bai eta familiei laguntzeko beharrianak ere; horrekin batera, gizarte-laguntza informala ahuldu da, geroz eta emakume gehiago sartu direlako lan-merkatura eta, aldi berean, gizonezko askok zainketa informalaren eginkizunak beren gain hartu ez dituztelako. Gainera, hiri-geografian izandako aldaketen ondorioz areagotu egin da fenomeno hori, bizitzeko, lan egiteko eta prestakuntza jasotzeko guneak bereizteko joera geroz eta handiagoa hauteman baitaiteke. Bilakaera horrek eragin du Estatuan Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea promulgatzera; lege hori mugarri da gizarte-zerbitzuen eremuan, bermatutako eskubide bati izaera formala ematen dion neurrian.
- Beste alde batetik, azken hamarraldian, gizarte-zerbitzuek, babes soziala emateko eta gizarteratzeko beharriari dagokienez, aurre egin behar izan diote ahultasunarekin eta bazterketa-, marginazio- eta pobrezia-egoeren kronifikazioarekin lotutako beharriaren eta laguntza-eskaeren gehitzeari. Errealitate hori bereziki talde ahulenean bizi dute: etxebizitza eskuratzeko zailtasunek eta lan-prekarietateak batez ere gazteei, emakumei eta etorkinei eragiten diete; babes sozial nahikorik ez izateak eta isolamendu- eta bakar-dade-egoeretan bizitzeak adinduei eragiten die nagusiki; gizartearekin, ekonomiarekin edo familiarekin zerikusirik duten era askotako faktoreen ondorioz ugaldu diren gatazka-egoerek nerabeei eragiten diete eta babesgabezia-egoerek oro har adingabeei.
- Azkenik, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunera hurbildu ahala gertatzen diren alda-

Vasco-, se ha constatado en los últimos años una coyuntura económica favorable, con incrementos sostenidos del PIB por encima de la media europea y con tasas medias de desempleo cercanas a una situación de pleno empleo técnico, que, si bien se verán afectados por la incipiente crisis económica, deberían tratar de constituirse en objetivos referenciales para la próxima década.

- Por otra parte, el incremento del número de personas con limitaciones en su autonomía no sólo ha proseguido, sino que se ha transformado cualitativamente: se observa un aumento de las necesidades y demandas de prevención y atención de la dependencia y un aumento de las necesidades de apoyo a las familias, asociado a un debilitamiento del apoyo social informal, derivado, a la vez, de la creciente incorporación de las mujeres al mercado laboral y de la falta de asunción de roles de cuidado informal por parte de muchos hombres, incidiendo también en el fenómeno los cambios en la geografía urbana, en cuyo marco se observa una creciente tendencia a la diferenciación de los lugares de residencia, trabajo, ocio y formación. Esta evolución es la que ha motivado la promulgación, a nivel estatal, de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia, que constituye un hito en el ámbito de los servicios sociales, en la medida en que formaliza un derecho garantizado.
- Por otro lado, en la última década los servicios sociales están afrontando también, en relación con las necesidades de protección e integración social, un escenario de crecimiento de las necesidades y demandas de atención asociadas a situaciones de vulnerabilidad y de cronificación de las situaciones de exclusión, marginación y pobreza. Esta realidad afecta en particular a los colectivos más vulnerables, como consecuencia, principalmente, de las dificultades de acceso a la vivienda y de la precariedad laboral que afecta fundamentalmente a jóvenes, mujeres e inmigrantes, de la insuficiente protección social y las situaciones de aislamiento y soledad que afectan especialmente a las personas mayores, o del incremento de las situaciones de conflicto en la adolescencia y de las situaciones de desprotección que afectan a personas menores de edad, como consecuencia de múltiples factores socioeconómicos y familiares.
- Finalmente, los servicios sociales deben adecuar su actuación a los cambios sociales aso-





keta sozialei egokitu behar zaizkie gizarte-zerbitzuak. Horretarako, emakumeak gizarteratzen laguntzen duten jarduera eta zerbitzuak sustatuko dira, bereziki, bazterketari, babesgabetsunari, tratu txarrei eta indarkeriari aurre egiteko baliagarri direnak; horiekin batera, familiei laguntzeko gizarte-sarea arinagoa eta sendoagoa egiteko neurriak eta zerbitzuak ere sustatuko dira, eta, oso modu berezian, oraindik ere mendetasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeko eginkizunetan zama handiena hartzen duten emakumeak sare horretan sartzen laguntzekoak.

Gizarte-errealitatearen bilakaera hori aintzat hartuta, beharrezkoa da gaur egun, 1996ko legea indarrean sartu zenez geroztik hamarraldi bat baino gehiago igaro denean, orduko sistema finkatu eta sendotzea. Aipatu legeak sistemaren funtsezko oinarriak aurreikusteko gauza izan zen, baina ez zituen ezarri legean bertan jasota zegoen xedea –gizarte-zerbitzuetarako eskubidea sustatu eta bermatzea– guztiz lortzeko behar ziren kudeaketa- eta koordinazio-tresnak. Xede horrek, dudarik gabe, indarrean dagoen araudi-esparrua erreformatzea eta gizarte-zerbitzuen lege berri bat onartzea eskatzen du.

Arau-esparru berriaren osagai nagusia honako hau da: gizarte-zerbitzuetarako eskubidea eskubide subjektibotzat aldarrikatzea, herritartasunari dagokion eskubidea den aldetik. Eskubide subjektibo horren erabilera bermatuko bada, nahitaez eraiki behar da gizarte-zerbitzuen euskal sistema bat, erantzukizun publikokoa, modernoa, aurreratua eta bermatzailea, xedeztat ongizatea duten beste sistema batzuk bezain garrantzia, eskumena duten hiru administrazio-mailak egituratzeko gauza izango diren kudeaketa- eta koordinazio-tresna batzuek hornitua, eta bere baitan prestazio eta zerbitzuen sare artikulatu bat ezarri, antolatu, garratu eta sendotzeko moduko egitura bat izango duena. Sare horrek aldaketa sozial, demografiko eta ekonomikoek dakartzaten egungo eta etorkizuneko erronkei koherentziaz, eraginkortasunez eta eragimenez erantzuteko xedea izan behar du.

Era horretan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Ongizate Estatuaren egiazko zutabe izango litzateke, herritar guztientzako erantzukizun publikoko sistema gisa eratuta.

Gero eta egoera desberdin gehiago daude eta gero eta konplexuagoak dira egoera horiek; nabaria da, beraz, haiei aurre egingo bazaie, jardun batzuk indartu behar direla, honako hauek: hirugarren sektorearekin elkarlanean aritzea, laguntzako sare informalei eustea, eragindako pertsonen parte-hartze antola-

ciados a un progresivo avance hacia la igualdad entre mujeres y hombres, impulsando actuaciones y servicios que acompañen a las mujeres en su inclusión social, en particular que aborden la situación de exclusión, desprotección, maltrato y violencia que afrontan, pero también medidas y servicios tendentes a aliviar y reforzar la red sociofamiliar de apoyo, y muy en especial a las mujeres que se integran en ella y que todavía en la actualidad asumen la mayor carga de la atención a las personas dependientes.

Esta evolución de la realidad social determina que en el momento actual, transcurrida más de una década desde la promulgación de la ley de 1996, se haga necesario afianzar y consolidar un sistema que, si bien aquella norma pudo anticipar fundamentos básicos, no articuló los instrumentos de gestión y coordinación necesarios para dar completo cumplimiento a la pretensión manifestada en ella de promover y garantizar el derecho a los servicios sociales. Ese objetivo, sin duda, exige una reforma del marco normativo vigente y la aprobación de una nueva Ley de Servicios Sociales.

El elemento central de este nuevo marco es la declaración del derecho subjetivo a los servicios sociales, constituido en un derecho de ciudadanía. Garantizar el ejercicio efectivo de este derecho subjetivo implica, necesariamente, la construcción de un sistema vasco de servicios sociales de responsabilidad pública, moderno, avanzado y garantista, comparable en su desarrollo a otros sistemas públicos orientados al bienestar, dotado de un conjunto de instrumentos de gestión y coordinación capaces de garantizar la vertebración entre los tres niveles administrativos competentes, y en cuyo marco pueda estructurarse toda una arquitectura capaz de sostener la implantación, la ordenación, el desarrollo y la consolidación de una red articulada de prestaciones y servicios, orientada a responder de forma coherente, eficaz y eficiente a los desafíos presentes y futuros asociados a los cambios sociales, demográficos y económicos.

De este modo, el Sistema Vasco de Servicios Sociales se constituiría en un auténtico pilar del Estado del Bienestar, configurándose como un sistema de responsabilidad pública y de cobertura universal, dirigido a toda la población.

Dada la naturaleza cada vez más compleja y plural de las situaciones a afrontar, se constata la necesidad de reforzar la colaboración con el tercer sector, el soporte de las redes informales de apoyo, la promoción de la participación organizada de las propias personas afectadas, la configuración de espacios





tua sustatzea, sistemen arteko lankidetzaz eta koordinazio-esparru batzuk (hala nola, gizarte eta osasunaren, gizarte eta lanaren, gizarte eta etxebizitzaren, gizarte eta hezkuntzaren, gizarte eta justiziaren, gizarte eta kulturaren artekoak) eratzea eta politika sozial bat garatzea, herritar guztiak herritartasun osoa irits dezaten, justizia soziala susta dadin eta bazterketaren egiturazko kausei ekin dakien.

Garrantzitsua da gogoan izatea, sistema hori eraikitzeko eta antolatzeko orduan, herritarren eskubideen artean sartzen direla, gaur egun, ez bakarrik pertsona guztiei prestazio eta zerbitzu jakin batzuetarako eskubidea ezagutzea, baita diferentziarako eskubidea aitortzea ere. Eredu horren muiin-muinean izango lirateke berdintasun- eta ekitate-printzipioak, izan ere, printzipio horiek sistemaz bazterkeriarik gabe baliatzea bermatzen dute, eta baita askotariko ikuspegiak balaratzea (generoa, dibertsitate sexuala, kulturartekotasuna, belaunaldiartekotasuna, sistema herritar guztien eskura izatea, eta gizon nahiz emakumeentzat diseinatua izatea) eta ekintza positiboko eta aukerazko eta tratu berdintasunerako neurriak aplikatzea ere.

Bestalde, erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sistemaren beraren bilakaera eta garapenari dagokionez, ahalegin handia egin da azken hamarraldi honetan zerbitzu horiek sustatu eta egituratzeko, baina, hala ere, badira oraindik lurraldeen arteko ezberdintasunak, sistema horretaz baliatzeari eta sistema horretan ekonomikoki parte hartzeari dagokionez, eta, nahiz eta kasu batzuetan ezberdintasun horiek antolamenduberezitasunei egotz dakizkiekeen eta ez dioten eragiten erabilzaileek eskubide horretaz egiten duten erabilerrari, beste batzuetan, bai, eragin diezaioke, eta egoera desberdinak sorrarazi ere bai. Gainera, bada diferentzia orokor bat Autonomia Erkidegoaren eta Europako eremuko herrialderik aurreratuenen artean.

Ezberdintasun horiek gutxika-gutxika urritzeko, ezinbestekoa da gizarte-beharrizanen bilakaerari buruz aurreikuspen egokiak egitea eta Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan sistemaren garapen planifikatua gauzatzeko behar diren tresnak prestatzea.

Legeak honako osagai funtsezko hauek aurreikusi ditu horretarako. Lehenbizi, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eskainiko dituen Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa zehazten du, eta, era horretan, eskubide subjektiboaren irismena zehazten du; gainera, eskubide horren izaera unibertsala dela-eta, katalogo horren garapena eta ezarpena Autonomia Erkidego osokoa izango dela bermatzen du. Horrez gain, katalogoa Prestazioen eta Zerbitzuen Kartera baten barruan arautuko dela aurreikusten du. Katalogoaren ezaugarri nagusiak zehaztuko dira horrela, eta beste alderdi hauek ere bai: prestazio eta zerbitzu horiez ba-

de cooperación y coordinación entre sistemas (socio-sanitario, sociolaboral, sociohabitacional, socioeducativo, sociojudicial, sociocultural u otros) y el desarrollo de una política social que posibilite el acceso de toda la población a la plena ciudadanía, la promoción de la justicia social y el abordaje de las causas estructurales de la exclusión.

Es importante tener presente, en la construcción y articulación del sistema, que los derechos de la ciudadanía pasan, hoy, no sólo por el reconocimiento del derecho de todas las personas a una serie de prestaciones y servicios, sino también por el del derecho a la diferencia, considerándose elementos nucleares del modelo los principios de igualdad y equidad, que garantizan el acceso al sistema sin discriminación alguna, pero también sin perjuicio de la integración de perspectivas múltiples –perspectiva de género, de diversidad sexual, intercultural, intergeneracional, accesibilidad universal y diseño para todos y todas– y de la aplicación de medidas de acción positiva y de igualdad de oportunidades y de trato.

Por otra parte, y por lo que respecta a la evolución y el desarrollo del propio sistema de servicios sociales de responsabilidad pública, a pesar de que en la última década se ha realizado un importante esfuerzo de impulso y estructuración de estos servicios, persisten algunas diferencias interterritoriales en las condiciones de acceso y de participación económica que, si bien en algunos casos son atribuibles a especificidades organizativas y no inciden en el ejercicio de su derecho por las personas usuarias, en otros sí pueden afectar a este último y generar desigualdades. Persiste asimismo un diferencial global, como Comunidad Autónoma, en relación con los países más avanzados del contexto europeo.

Para disminuir progresivamente estas diferencias, es imprescindible realizar las oportunas previsiones respecto a la evolución de las necesidades sociales y habilitar las herramientas que hagan posible el desarrollo planificado del sistema en el conjunto del territorio autonómico.

La ley prevé, con esta finalidad, los diferentes elementos fundamentales. En primer lugar, define el Catálogo de Prestaciones y Servicios que se integran en el Sistema Vasco de Servicios Sociales, especificando así el alcance del derecho subjetivo y garantizando, por su carácter universal, que el desarrollo e implantación de dicho catálogo deberá producirse en toda la Comunidad Autónoma. Prevé también la posterior regulación del catálogo en una Cartera de Prestaciones y Servicios que definirá sus principales características y los requisitos básicos de acceso, el diseño y puesta en funcionamiento de un sistema integral de información





liatzeko bete beharko diren baldintzak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema kudeatzeko informazio-sistema integral bat diseinatu eta abiaraztea eta Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko bat landu eta onartzea, haren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapa ere izango delarik. Era berean, instituzioen arteko koordinaziorako behar diren tresnak indartzen ditu, izan ere, bermatu nahi da, batetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema koherente eta orekatu bat garatuko dela eta, bestetik, sistema hori eta sistema horren barruan sartzen diren prestazio eta zerbitzuak hobeto artikulatuko direla kidekoak edo osagarriak diren beste sistema eta politika publiko batzuekin, gizarte-ongizatea sustatzea eta lortzea helburu duten horiekin, hain zuzen.

Lege berriak finkatu egiten du aurreko esparru juridikoan jasotako printzipioetan ezarrita zegoen arreta-eredua, eta komunitatea oinarri duen ikuspegia hautatzen du; ikuspegi horren arabera, pertsonak bizi diren ingurunean geratzea da lehenetsua.

Horrela, gizarte-langileei berez dagozkien eginkizunei gehitu behar zaizkie gizarte-hezitzaileak aspalditik garatzen ari diren gizarte- eta hezkuntza-erloto zerbitzu eta prestazioetatik eratorritakoak; gizarte-hezitzaile horiek gizarte-langileekin batera osatuko lukete Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren oinarritzko kidego profesionala.

Proposatutako ikuspegi komunitariotik bideratuta, gizarte- eta hezkuntza-erloto esku-hartzea, funtsean, esku-hartze sozialaren oinarritzko elementu bezala ulertu behar da, prozesu-izaera baitu; horrek, definizioz, laguntza-eginkizunak eta bidaltze-eginkizunak gaintitu eta lan-esparru hezitzaile harremanezkoa ezartzen du helburu hauek lortzeko begira: subjektuak autonomia handiagoa eta bizi-baldintza hobek izatea, bere garapenean dituen testuinguru desberdinetara egokitzea eta zailtasunak gaintzea.

Gizarte-zerbitzuen euskal sistema bat finkatu eta haren xedek gauzatzeko badira, Euskal Autonomia Erkidego osoan prestazio eta zerbitzu berberetara baliatzeak aukera bermatzeaz gain, zerbitzuen eta zentro publikoen eta pribatu itunduen sare bat indartu eta sendotu behar da, eta, horretarako, erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuak eskaintzeko berariazko hitzarmen-araubide bat ezarri behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak eta erakunde pribatuak, batez ere irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimenekoak badira, elkarlanean aritzeko beste formula batzuen kalterik gabe.

Legaren I tituluak, esparru berria eratzen duten funtsezko osagaiak zehazten dituzten xedapen oroko-

para la gestión del Sistema Vasco de Servicios Sociales, y la elaboración y aprobación de un Plan Estratégico de Servicios Sociales que incluirá el Mapa de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Refuerza, asimismo, los dispositivos de coordinación interinstitucional necesarios tanto para garantizar un desarrollo coherente y equilibrado del Sistema Vasco de Servicios Sociales como para garantizar la mejor articulación de este sistema y de las prestaciones y servicios que se integran en él con otros sistemas y políticas públicas, afines o complementarias, también orientadas a la promoción y consecución del bienestar social.

La nueva ley consolida el modelo de atención que ya se había perfilado en los principios recogidos en el marco jurídico anterior, optando por un enfoque comunitario, capaz de otorgar prioridad al mantenimiento de las personas en su entorno de vida habitual.

De este modo, a las funciones propias del trabajo social de los trabajadores y trabajadoras sociales deben incorporarse las derivadas de los servicios y prestaciones de carácter socioeducativo ejercidas por los educadores y educadoras sociales que ya se vienen desarrollando desde hace tiempo, que, junto con los y las anteriores, conformarían el cuerpo profesional básico del Sistema de Servicios Sociales.

La intervención socioeducativa debe entenderse, en esencia, como elemento clave de la intervención social desde el enfoque comunitario propuesto, dado su carácter procesual, que, por definición, supera la tarea asistencial y de derivación, estableciendo marcos de trabajo educativos relacionales, con la intención de conseguir la mayor autonomía en el sujeto, la mejora de las condiciones de vida del mismo, la adaptación a los diferentes contextos de su desarrollo y la superación de sus dificultades.

La consolidación de un sistema vasco de servicios sociales y el logro de sus finalidades requiere, además de garantizar el acceso a las mismas prestaciones y servicios en el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco, reforzar y consolidar una red de servicios y centros de titularidad pública y privada concertada, estableciendo a tal efecto un régimen específico de concierto para la prestación de servicios sociales de responsabilidad pública, sin perjuicio de la coexistencia de esta fórmula con otras alternativas de colaboración entre las administraciones públicas vascas y las entidades privadas, en particular con la iniciativa social sin ánimo de lucro.

En su título I, la ley contiene las disposiciones generales que definen los elementos esenciales y cons-





rrak jasotzen dira. Legearen xedea zehazten da bertan, alegia: gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa aldarrikatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen izaera unibertsala bermatzea, euskal administrazio publikoek prestazio eta zerbitzu horiek sistema horretako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren barruan eskainiko dituztela bermatzea eta sistema hori antolatu eta egituratzea, gizarte-zerbitzuetarako eskubidearen erabilera egiazkoa izan dadin.

Gizarte-zerbitzuetarako eskubidea honako pertsona hauei ezagutzen zaie: bizileku legezko eta benetakoa Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan duten pertsonen; horretarako, bertan egon behar dute erroldaturik. Orobat ezagutzen zaie Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatutako pertsonen, baldin eta egiazko bizilekua bertan izan badute sistemaz baliatzeko eskaria egin aurre-aurreko 12 hilabeteetan jarraitasunez. Nolanahi ere, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemari sartzen diren prestazio eta zerbitzuez baliatu ahal izateko, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 5.1 artikuluan ezarritakoari jarraitu beharko zaio. Horrez gain, beste hau ere ezartzen da: Autonomia Erkidegoan diren pertsona guztiek izan dezatela, alde aurretik erroldatzeko epeen baldintza bete beharrik gabe, informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzuez baliatzeko aukera, bai eta lagun egiteko zerbitzuaz baliatzeko ere, eta, orobat, gizarte-premia larrietarako prestazio eta zerbitzuez eta haurrak eta nerabeak babesteko zerbitzuez baliatzeko. Aurreko horren kalterik gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek alde aurretik erroldatzeko epe luzeagoak eta beste baldintza gehigarri batzuk ere ezarri ahal izango dituzte Prestazioen eta Zerbitzuen Karterako prestazio eta zerbitzu zenbaitez baliatzeko; prestazio eta zerbitzu horiek arautzeko berariazko xedapenetan ere ezarri ahal izango dituzte baldintza gehigarriak. Azkenik, testuan beste hau ere aurreikusten da: Eusko Jaurlaritzak kanpoan dauden euskal gizataldeetako kideak babesteko neurriak ezarri ahal izango ditu.

Legeak erantzukizun publikoko arreta-sare antolatu gisa eratzten du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema; titularitasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduz osatutako sistema gisa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen eta autonomiaren alde egitea du xede; sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betetzeko gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsonen eta hurremanen buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez. Arlo horretan diren formulaziorik aurreratuenekin bat etorrira, beharritan beren izaeraren eta ezaugarrien arabera erantzuteko sistema bat ezartzea hautatu da, gizatalde ezberdinei erreparatuz egituratu beharrean; horrek ez du esan nahi, inolaz ere, gizatalde

titutivos del nuevo marco. Así, define el objeto de la ley, que consiste en declarar el derecho subjetivo a los servicios sociales, garantizando el carácter universal de las prestaciones y los servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y su provisión por parte de las administraciones públicas vascas en el marco del Catálogo de Prestaciones y Servicios de dicho sistema, y en ordenarlo y estructurarlo con el fin de hacer efectivo el ejercicio del derecho a los servicios sociales.

El derecho a los servicios sociales se reconoce a las personas empadronadas y con residencia legal y efectiva en cualquier municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco. También se extiende a las personas empadronadas y con residencia efectiva en cualquier municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco de forma continuada durante los 12 meses inmediatamente anteriores a su solicitud de acceso, y ello sin perjuicio de que para su acceso a las prestaciones y servicios enmarcadas en el Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia se esté a lo previsto en el artículo 5.1 de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia. Se establece, además, que todas las personas que se encuentren en la Comunidad Autónoma podrán acceder, sin exigencia de plazos previos de empadronamiento, al servicio de información, valoración, diagnóstico y orientación, así como al acompañamiento social, a aquellos servicios y prestaciones que sean definidos como de urgencia social, y a los servicios que recaen en el ámbito de la protección de niños, niñas y adolescentes. Sin perjuicio de lo anterior, se prevé para las administraciones públicas vascas la posibilidad de establecer periodos más amplios de empadronamiento previo y otros requisitos adicionales para el acceso a determinadas prestaciones y servicios en la Cartera de Prestaciones y Servicios y en sus disposiciones reguladoras específicas. El texto prevé, por último, que el Gobierno Vasco podrá establecer medidas de protección a favor de los miembros de las colectividades vascas en el exterior.

La ley concibe el Sistema Vasco de Servicios Sociales como una red articulada de atención de responsabilidad pública, e integrada por prestaciones, servicios y equipamientos de titularidad pública y de titularidad privada concertada, cuya finalidad es favorecer la integración social y la autonomía de todas las personas, familias y grupos, desarrollando una función promotora, preventiva, protectora y asistencial, a través de prestaciones y servicios de naturaleza fundamentalmente personal y relacional. De conformidad con las formulaciones más avanzadas en la materia, se ha optado por establecer un sistema de respuesta a las necesidades en función de la naturaleza y características de estas últimas, en lugar de estructurarlo aten-





horiek babesik gabe uzten direnik, edo ez direnik kontuan hartzen, sistemaren esparruaren barruan, eragin ahal dizkieten berezitasunak.

Jarduera-printzipioen artean, Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legean ezarritako printzipioei eusten zaie, eta garatu ere egiten dira; bestalde, printzipio horiek eratzten duten arreta mota komunitateari zuzendutako arreta da, eta honako hauek finkatuz lortzen dute hori: zerbitzuen erantzukizun publikoa, unibertsaltasuna, herritarrekiko hurbiltasuna eta deszentralizazioa; prestazioez eta zerbitzuez baliatzeko orduan berdintasuna eta ekitatea; prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa; pertsona bakoitzari egokitu-tako arreta integral eta jarraitua; esku-hartzeen diziplina-artekotasuna eta arretaren kalitatea; gizarte-zerbitzuen arloan, eta bereziki Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan, parte hartzen duten era batego eta besteko agenteen arteko lankidetzak; jarduera publiko eta pribatu formal eta ez-formal guztien koordinazioa eta herritarren parte-hartzea eta gizarte-ekimena sustatzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan.

Halaber, I tituluan komunitateari zuzendutako arreta hori finkatzen da gizarte-zerbitzuen jardunerako oinarritzko eredu gisa, eta erabiltzaileei arreta beren ohiko ingurunean emango zaiela bermatzeko beharri-zana du funtsa eredu horrek. Azkenik, gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskubi-deak eta betebeharrak arautzen ditu.

Bigarren tituluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak –teknikoak, ekonomikoak eta teknologikoak– eta zerbitzuak definitu eta sailkatzeko baliatzen da lehenbiziko kapitulua; era berean, esku-hartzeko oinarritzko prozedura antolatzen du. Prozedura horren arabera, erreferentziako profesionali dagokien kasua koordinatzea, eta, hala dagokionean, arreta pertsonalizatuko plan bat egin beharko da. Ondoren, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Kartera eta Katalogoa definitzen ditu, eta horien ezaugarriak, edukia eta eguneratzea arautzen ditu, bai eta prestazioez eta zerbitzuez baliatzeko baldintza orokorrak ere.

Hurrengo kapituluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren egitura orokorra ezartzen da, lehen eta bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuez osatua; zerbitzu horiek, beste irizpide edo aldaera batzuen artean, emandako laguntzaren neurri handiagoaren edo txikiagoaren arabera bereizten dira, maila bietan laguntza espezializatua izan daitekeelarik. Hiru jardute-maila nagusiak ere arautzen dira kapitulu horretan: lehenbizi, udalen gizarte-zerbitzuek tokiko administra-

diendo a los diferentes colectivos, lo que en ningún caso significa que los mencionados colectivos queden sin cobertura, ni que no se tengan presentes, en el marco del sistema, las especificidades que pueden afectarles.

En sus principios de actuación se preservan y desarrollan los principios establecidos en la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, y se explicita el enfoque de atención, de carácter comunitario, que configuran, persiguiendo el afianzamiento de la responsabilidad pública, la universalidad, la proximidad de los servicios a la ciudadanía y su descentralización; la igualdad y la equidad en el acceso y en la utilización de las prestaciones y servicios; la prevención, la integración y la normalización; la atención personalizada, integral y continua; el carácter interdisciplinar de las intervenciones y la calidad de la atención; la cooperación de los diversos agentes que intervienen en el ámbito de los servicios sociales y, particularmente, en el Sistema Vasco de Servicios Sociales; la coordinación del conjunto de las actuaciones públicas y privadas, formales e informales, y la promoción de la participación ciudadana y de la iniciativa social en el marco del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

El título I afianza, así mismo, el enfoque comunitario como modelo básico de referencia en la actuación de los servicios sociales, fundamentado en la necesidad de garantizar la atención de las personas usuarias en su entorno habitual, y, finalmente, regula los derechos y deberes de las personas usuarias y de las profesionales y los profesionales de los servicios sociales.

En su título II, la ley dedica un primer capítulo a la definición y a la clasificación de prestaciones –técnicas, económicas y tecnológicas– y servicios propios del Sistema Vasco de Servicios Sociales; articula el procedimiento básico de intervención, centrado en la coordinación de caso por parte de la persona profesional de referencia y en la elaboración, cuando corresponda, de un plan de atención personalizada, y pasa a definir el Catálogo y la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales y a regular sus características, su contenido y su actualización, así como los requisitos generales de acceso a las prestaciones y servicios.

El siguiente capítulo establece la estructura general del Sistema Vasco de Servicios Sociales, distinguiendo entre los servicios sociales de atención primaria y los de atención secundaria, que se diferencian, entre otros criterios o variables, por la mayor o menor intensidad del apoyo prestado y que en ambos casos puede ser especializado, y entra a regular los tres principales niveles de actuación: la intervención de los servicios sociales en el ámbito local, a través de los servi-





zioaren eremuan egin behar duten esku-hartzea; hemen, oinarritzko gizarte-zerbitzuak definitzen dira, horiek egituraren oinarritzko osagaitzat eta sistemara sartzeko lehenbiziko atetzat jotz. Halaber, finkatu egiten da Gizarte Zerbitzuen 1996ko Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztientzat ezartzen zuen betebeharra, beren aldetik edo elkarturik oinarritzko gizarte-zerbitzu bat edukitzekoak; ondoren, foru-aldundiei dagokien esku-hartzea, zeinek bere lurraldearen mailan, eta, azkenik, Eusko Jaurilaritari Autonomia Erkidegoaren mailan dagokion esku-hartzea.

Bigarren titulu honetako III. kapituluari, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren plangintza arautzen da, eta plangintza hori arautu behar duten printzipioak jasotzen dira: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak aintzat hartu behar dituen helburuak, estrategiak, politikak eta jarraibideak zehaztea; lege honetan aldarrikatzen den gizarte-zerbitzuetarako eskubidea egiaz baliatuko dela bermatzeko behar diren baliabideak ezartzea; hurbiltasuna, oreka eta lurralde-mailako homogeneotasuna; baliabideen antolamendu eta aprobetxamendu integral, arazional eta eraginkorra, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren esparruan esku hartzen duten elementu guztien koordinazioa eta horiekin gauzatu beharreko sareko lana. Plangintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa hartzen du tresna nagusitzat. Plan hori, bestalde, Gizarte Zerbitzuen Mapa sartuko da, mapa horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistema ezartzeko eginkizuna baitu. Mapa horrek, katalogoan zehazten diren zerbitzuak ezartze aldera, biztanleriari dagozkion irizpiderik egokienak zehaztuko ditu, honako ezaugarri hauek kontuan hartuta: zerbitzu horien izaera, zerbitzu horiek eska ditzaketen pertsonen kopurua, eta ahalik eta erabiltzaileak beren ohiko gizarte-ingurunean integratze aldera hurbilekoenak izango direla bermatzea.

Plangintzak orientabideak emango ditu, halaber, sektore publikoak eta pribatuak zerbitzuen prestazioan izan beharreko parte-hartzeari buruz, eta betiere bermatu egin beharko du zuzeneko kudeaketa publikoaren bidez egingo direla bai sisteman sartzeko prestazioak eta eskaerak lehenengoz jasotzekoak, bai eta kasu-koordinazioari zuzenean lotutako prestazioak ere esku-hartzearen oinarritzko prozedura modura –bereziki balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa–. Osagarri modura, berariaz ezagutu daitezkeen bermatze aldera bai zerbitzuen eta erabiltzaileen eta profesionalen beharren errealitatea, bai kudeaketaren eta arretaren kalitatea bermatzeari lotutako zailtasunak ere, eta, halaber, jokatibide egokien ereduak eskaintzearen eta, izaera esperimentalarekin, soluziobide berritzaile eta alternatiboak probatzeagatik sistemari jarritako helburuetarantz joaten laguntzeko, hala nola bizkorrago joaten laguntzeko ere, plangintzak ezarri egingo du, esparru honetan eta izaera orokorraz ezarriko ere, bai

cios sociales municipales, con especial atención a la definición del servicio social de base como elemento básico de la estructura y como primer punto de acceso al sistema, afianzando la obligación, ya recogida en la Ley de Servicios Sociales de 1996, para todos los ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco de disponer, por sí mismos o asociados, de un servicio social de base; la intervención en el ámbito territorial, desde las diputaciones forales, y la intervención en el ámbito autonómico, desde el Gobierno Vasco.

En su capítulo III, este segundo título regula la planificación del Sistema Vasco de Servicios Sociales, especificando los principios que han de regirla: determinación de las metas, estrategias, políticas y directrices a seguir en el Sistema Vasco de Servicios Sociales, despliegue de los recursos necesarios para garantizar el ejercicio efectivo del derecho a los servicios sociales declarado en esta ley; proximidad, equilibrio y homogeneidad territorial; organización y aprovechamiento integral, racional y eficiente de los recursos, y coordinación y trabajo en red de todos los elementos que intervienen en el marco del Sistema Vasco de Servicios Sociales. La planificación adopta como principal instrumento el Plan Estratégico de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma, que, a su vez, deberá integrar el Mapa de Servicios Sociales, cuya función será establecer el despliegue del Sistema Vasco de Servicios Sociales, definiendo al efecto los criterios poblacionales más idóneos para la implantación de los diferentes servicios incluidos en el catálogo, atendiendo a la naturaleza de los mismos, al número de personas potencialmente demandantes y a la necesidad de garantizar, en todo lo posible, su mayor proximidad con vistas a facilitar la integración de las personas usuarias en el entorno social habitual.

La planificación orientará, asimismo, sobre la participación de los sectores público y privado en la prestación de los servicios, garantizando en todo caso la gestión pública directa de las prestaciones de acceso y primera acogida de las demandas y de las directamente asociadas a la coordinación de caso como procedimiento básico de intervención –en particular la valoración, el diagnóstico y la orientación–. Complementariamente, al objeto de preservar un conocimiento específico de la realidad de los servicios y de las necesidades de las personas usuarias y profesionales, así como de las dificultades asociadas a garantizar la calidad de la gestión y de la atención, y al objeto también de ofrecer modelos de buenas prácticas y de ensayar, con carácter experimental, soluciones innovadoras y alternativas que favorecerán y acelerarán el avance del sistema hacia los objetivos que se ha marcado, la planificación prevendrá, en este marco y con carácter general, la prevalencia de la gestión pública y





kudeaketa publikoa eta bai gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketa beti gailen izango direla Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan aurreikusitako zerbitzuak eta prestazioak ematean.

Banaketa geografiko horren osagai nagusi gisa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren sartzeko aukeretan berdintasuna eta gizarte-zerbitzuetarako eskubidea egiaz baliatu ahal dela ziurtatze aldera, legeak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren oinarritzko jardun-eremua definitzen du, eta 5.000 biztanleko eremua izango dela zehazten du, edo, nekazaritza-guneetan eta gune bereziki behartsu edo andeatuetan, 3.000 biztanleko eremua. Legearen arabera, horiek izango dira oinarritzko gizarte-zerbitzuek izango duten oinarritzko ezarpen-eremua.

III. tituluan, legeak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren eskumen, antolamendu, kontsulta eta parte-hartzearen araubidea ezartzen du, eta herri-administrazioek gizarte-zerbitzuen arloan dituzten eskumenak eta administrazioen arteko lankidetzak eta koordinazio-organoa eta -prozedurak zehazten ditu, hala Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemarako nola gizarte-ongizatea xede duten beste sistema eta politika publiko kideko edo osagarri batzuekiko harremanetarako.

Bereziki garrantzitsua da Gizarte Zerbitzuen Era-kunde arteko Organoaren sorrera, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen arteko lankidetzak eta koordinaziorako bide formal bat ezartzen duen neurrian, izan ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren batasuna bermatu nahi da eta, ondorioz, Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan prestazio eta zerbitzu guztien garapen koherente eta harmoniko bat. Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen arloko eskumena duen sailari atxikirik egongo da, eta alde batetik Eusko Jaur-laritzak eta bestetik foru-aldundiek eta udalek, (udalek Eudelen bitartez) ordezkariak paritarioa izango dute bertan; sistemaren iraupena eta kalitatea zaintzea izango da alde guztien ardurak. Organoaren eginkizunetako batzuk arautzen dira bertan, horietako batzuk oso garrantzitsuak, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Karterari buruz eman beharreko aldeko txosten nahitaezkoa egitea eta, hala egokituz gero, gizarte-ongizatera zuzendutako beste sistema edo politika publiko batzuekin egin litezkeen katalogo eta/edo kartera bateratuei buruzkoa ere egitea; Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari buruzko txosten nahitaezkoa egitea, eta jarduteko estrategia nagusiei buruz eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek aplikatu behar dituzten elkarrekiko tresnei buruz eztabaiatzea eta erabakiak hartzea.

de la gestión a través de la iniciativa social en la provisión de los servicios y prestaciones previstos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Como elemento central de esa distribución geográfica, y a los efectos de garantizar la homogeneidad en las oportunidades de acceso al Sistema Vasco de Servicios Sociales y el ejercicio efectivo del derecho a los servicios sociales, la ley define la zona básica de actuación del Sistema Vasco de Servicios Sociales, indicando que abarcará un ámbito poblacional de 5.000 habitantes o, en las zonas rurales y en las zonas particularmente desfavorecidas o degradadas, un ámbito poblacional de 3.000 habitantes, y señalando que dicha zona básica constituirá el ámbito de implantación de los servicios sociales de base.

En su título III, la ley establece el régimen competencial, organizativo, consultivo y de participación en el Sistema Vasco de Servicios Sociales, definiendo las competencias de las administraciones públicas en materia de servicios sociales y los procedimientos y órganos de cooperación y coordinación interadministrativa tanto dentro del Sistema Vasco de Servicios Sociales como en su relación con otros sistemas y políticas públicas, afines o complementarias, también orientadas al bienestar social.

De especial relevancia resulta la creación del Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales, en la medida en que supone la introducción en el sistema de un cauce formal de cooperación y coordinación entre las administraciones públicas vascas, a los efectos de garantizar la unidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales y, en consecuencia, un desarrollo coherente y armónico del conjunto de prestaciones y servicios en todo el territorio autonómico. Adscrito al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de servicios sociales, contará con una representación paritaria entre el Gobierno Vasco, por un lado, y las diputaciones forales y los ayuntamientos, a través de Eudel, por otro, y velará por la existencia y la calidad del sistema, regulándose entre sus funciones algunas tan relevantes como el informe preceptivo favorable de la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de los catálogos y/o carteras conjuntas que, en su caso, pudieran establecerse con otros sistemas o políticas públicas orientados a la consecución del bienestar social, el informe preceptivo del Plan Estratégico de Servicios Sociales, y la deliberación y el acuerdo de las principales estrategias de actuación y de los instrumentos comunes de aplicación por las administraciones públicas vascas.





Legeak, gizarte-ongizaterako beste sistema eta politika publiko batzuekiko lankidetzeta eta koordinazioari buruz, honako hau aurreikusten du: herri-administrazioek lankidetzarako eta koordinaziorako dituzten betebeharren esparruan, lankidetzarako bide formalak eta jarduteko tresna eta protokolo bateratuak ezartzea, jardueren koherentzia bermatzeko eta baliabideak, informazioa eta ezagutzak era arrazoizkoago eta eraginkorragoan aprobetxatzeko modua emango dutenak. Egoki irizten zaionean, zerbitzuen eta prestazioen kartera eta katalogo bateratuak ezartzeko aukera ere aurreikusten da.

Lankidetzeta eta koordinazioaren arloan, esparru soziosanitarioak aipamen berezia merezi du. Esparru honetan sartzen dira babestuak izateko orduan gizarte-eta osasun-zerbitzuen ekintza bateratua, koordinatua eta eutsia behar duten pertsonak. Euskal Autonomia Erkidegoan, eskumenak instituzioen eta instituzio horien mailen artean nola banatzen diren ikusita, horien guztien arteko koordinazio-eredu bat hautatu da, sektore hori bakoitzaren politikak harmonizatuz garatu nahi baita, era horretan, azken urteetan egin diren aurrerapenen espiritua eta funtsezko osagaiak biltzeko; hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek eta Eudelek (Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen Elkarteak) Euskal Autonomia Erkidegoko arreta soziosanitarioa garatzeko 2003ko urtarrilaren 30ean izenpetu zuten lankidetzeta-hitzarmenaren barruan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Soziosanitarioa Garatzeko Plan Estrategikoaren barruan izan dira aurrerapen horiek. Arreta soziosanitarioak Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren arreta berezia jasoko du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik, beste sistema eta politiko publiko batzuekin koordinatzeko foroetan, aurkeztu ahal izango diren estrategia eta proposamen nagusiak eztabaidatu eta erabakitzeke bere eginkizuna baliatuz.

Eremu soziosanitarioan eskaintzen den arretaren kasuan, zerbitzu soil-soilik soziosanitarioen, unitate berariaz soziosanitarioen eta arreta soziosanitario orokorraren finantzaketa batera egin ahal izango da eraginpeko administrazio publiko guztien artean, horretarako adosten dituzten hitzarmenen bitartez. Ordea, administrazio horiek bidezko diren konpentsazio ekonomikoko formuletara atxiki ahal izango dira, osasun-sistematik gizarte-zerbitzuen zerbitzura, edo alderantziz, baldin eta haietako baten eskumenekoak diren zerbitzuak, askotariko kausak direla-eta, bati atxikitako zerbitzuetan eskaintzen badira.

Kontsultaren eta parte-hartzearen arloetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua eratzen da. Egungo Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua izenekoaren antzeko ezaugarri eta eginkizunak izango ditu, eta beste antzeko kontseilu batzuk ere aurreikusten dira foru-

Respecto a la cooperación y coordinación con otros sistemas y políticas públicas orientadas al bienestar social, la ley prevé, en el marco del deber de cooperación y coordinación de las administraciones públicas, el establecimiento de cauces formales de cooperación y de instrumentos y protocolos conjuntos de actuación susceptibles de garantizar la coherencia de las actuaciones y el más racional y eficaz aprovechamiento de los recursos, de la información y de los conocimientos. Se prevé incluso la posibilidad, cuando se estime oportuno, de articular catálogos y carteras conjuntas de servicios y prestaciones.

En materia de cooperación y coordinación, mención especial merece el espacio sociosanitario. En este espacio se hallan personas cuya protección requiere un abordaje conjunto, coordinado y sostenido de los servicios sociales y de los sanitarios. En la Comunidad Autónoma del País Vasco, dada la distribución de competencias entre instituciones y sus niveles, se ha optado por un modelo de coordinación entre todas ellas, con la finalidad de desarrollar este sector armonizando las respectivas políticas, recogiendo así el espíritu y los elementos básicos de los avances realizados en estos últimos años en el marco del convenio de colaboración suscrito el 30 de enero de 2003 entre el Gobierno Vasco, las diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y la Asociación de Municipios Vascos Eudel, para el desarrollo de la atención sociosanitaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y del Plan Estratégico para el Desarrollo de la Atención Sociosanitaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco. La atención sociosanitaria será objeto de especial atención desde el Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales, mediante el ejercicio de su función de deliberación y acuerdo de las principales estrategias y propuestas que, desde el Sistema Vasco de Servicios Sociales, podrán presentarse en los foros de coordinación con otros sistemas y políticas públicas.

En el caso de la atención prestada en el ámbito sociosanitario, la financiación de los dispositivos exclusivamente sociosanitarios, de las unidades específicamente sociosanitarias y de la atención sociosanitaria general podrá realizarse conjuntamente entre las administraciones públicas concernidas mediante los convenios que acuerden a tal fin, acogiéndose, en cambio, a las fórmulas de compensación económica que procedan desde el sistema sanitario hacia el de servicios sociales, o a la inversa, en caso de que los servicios que sean competencia de uno de ellos se presten por motivos diversos en dispositivos adscritos al otro.

En el ámbito consultivo y de participación, se crea, asimismo, el Consejo Vasco de Servicios Sociales, con características y funciones similares a las ejercidas hasta el presente por el Consejo Vasco de Bienestar Social, y se contempla la existencia de consejos





instituzioen eta Toki Administrazioaren arloetan. Halaber, horien osagarri, kontseilu sektorialak sortzea ere aurreikusten da Autonomia Erkidegoaren mailan. Legeak osatu egiten du parte-hartzeko eredu hori beste mekanismo batzuen bitartez, hala gizarte-zerbitzuetako zerbitzu eta zentroen arloan nola arlo orokorrean, biztanleria osoaren parte-hartzerako prozesuak sustatuz.

Hirugarren tituluaren azken kapituluari, gizarte-zerbitzuen erregistro mota ezberdinak definitzen dira, eta haien izaera eta eginkizunak ezartzen. Horrez gain, erregistroko idazpenaren ondorioak zehazten dira.

IV. tituluari, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantzaketa arautzen da, eta finantzaketa-iturriak eta administrazioen arteko finantza-arloko lankidetzak zehazten dira; esparru horretan, gizarte-zerbitzuen berezko prestazioen finantzaketa (arloan eskumena duten herri-administrazioen esku egongo da) eta beste sistema batzuen berezko prestazioen finantzaketa bereizten dira (beste arlo batzuetan eskumena duten herri-administrazioek finantzatu dituzte). Nolanahi ere, horrek ez du eragotziko prestazio horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari integratutako zerbitzuetan eskaintzea; horretarako, eskumena duten administrazioek argitu egin beharko dituzte arian-arian beren eskumenekoak diren prestazioen finantzaketan dituzten erantzukizunak.

Halaber, erabiltzaileek doakoak ez diren zerbitzuen finantzaketan izan beharko duten parte-hartze ekonomikoa zehazteko funtsezko alderdiak ezartzen dira, eta prezio publikoetan oinarritutako sistema bat hautatzen da horretarako: prezio publikoak eta erabiltzaile bakoitzak egin beharko duen ekarpenaren zenbatekoa errespetatzeko oinarritzko irizpideak arautuko dira horrela. Zenbateko hori haztatzean kontuan hartuko da erabiltzailearen baliabide ekonomikoaren maila, erregelamendu bidez xedatuko den erantza, eta horren balorazioa egiteko progresibotasuneko irizpideak erabiliko dira. Edozein modutara, baloraziotik kanpo utziko dira etxebizitza edo bizitokia, etxebizitza edo bizitoki hori ohiko bizileku duenean, ohiz kanpoko baliario duen etxebizitza izan ezik. Era berean, dagokion prezio publikoa edo tasa ordaintzeko baliabide ekonomiko aski ez dagoenean, salbuespenak eta hobariak aplikatzea aurreikusten da. Adinduentzako egoitza-zerbitzuen kasuan, sarrera aski ez balego baina ondarerik egongo balitz, finantzaketa-formula ordezkoko adostu ahal izango dira, eskumena duten herri-administrazioaren eta erabiltzailearen artean; nolanahi ere, formula horiek ondarearen osotasuna, erabilera ona eta balorazio zuzena bermatu behar dute. Era berean, zorra aitortzeko prozedurak ezarri ahal izango

de la misma naturaleza en los ámbitos foral y local, previéndose, complementariamente, la creación, a nivel autonómico, de consejos sectoriales. La ley completa este modelo participativo mediante el establecimiento de otros mecanismos de participación, tanto en el ámbito de los servicios y centros de servicios sociales como en el ámbito general, mediante la promoción de procesos participativos abiertos al conjunto de la población.

El último capítulo del título III se dedica a la definición de los diferentes tipos de registros de servicios sociales, estableciendo su naturaleza y funciones y determinando los efectos de la inscripción registral.

El título IV regula la financiación del Sistema Vasco de Servicios Sociales, definiendo las fuentes de financiación y las fórmulas de colaboración financiera entre las administraciones, en cuyo marco se diferencia entre la financiación de las prestaciones propias de los servicios sociales, que recaerá en los órganos de las administraciones públicas competentes en esta materia, y la financiación de prestaciones propias de otros sistemas, que deberán ser financiadas por los órganos de las administraciones públicas competentes en esas otras materias, sin perjuicio de que dichas prestaciones se ofrezcan en servicios integrados en el Sistema Vasco de Servicios Sociales; a tales efectos, las administraciones competentes deberán avanzar en la clarificación progresiva de sus responsabilidades de financiación de las prestaciones de las que son competentes.

Se establecen, asimismo, los elementos básicos para la determinación de la participación económica de las personas usuarias en la financiación de los servicios que no tengan carácter gratuito, optando por un sistema basado en el establecimiento de precios públicos y regulando los criterios básicos que deberán respetarse de cara a la determinación de los precios públicos y de la cuantía a aportar por la persona usuaria. En la ponderación de dicha cuantía se tendrá en cuenta el nivel de recursos económicos de la persona usuaria, en los términos que se determinen reglamentariamente, obedeciendo su valoración a criterios de progresividad, quedando en todo caso excluida de la valoración la vivienda o alojamiento que constituya su residencia habitual, salvo en el caso de una vivienda de valor excepcional. Para los casos en los que los recursos económicos no sean suficientes para abonar el precio público o la tasa correspondiente, se prevé la aplicación de exenciones y bonificaciones. En el caso de los servicios residenciales para personas mayores, si los ingresos fueran insuficientes pero existiera patrimonio, se prevé la posibilidad de acordar, entre la administración pública competente y la persona usuaria, fórmulas alternativas de financiación que, en todo caso, garanticen la integridad, el buen uso y la correc-





dira.

Bosgarren tituluan, ekimen pribatuak gizarte-zerbitzuen arloan izan behar duen esku-hartzea arautzen du legeak, honako hauek definituz: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartzen diren gizarte-zerbitzuak ematen izan beharreko parte-hartzea, alde batetik, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartzen ez diren zerbitzuak ematen edo jarduerak gauzatzen izan beharreko lankidetzeta-formulak, bestetik. Lehenbiziko alderdiari dagokionez, honako hau nabarmendu behar da: gizarte-zerbitzuak emateko hitzarmen-arabide bat arautzea, nahitaez eman beharreko prestazioak eta zerbitzuak –Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan sartzen direnak barne– titulartasun pribatuko zerbitzu eta zentroetan jasotzeko eskubidea gauzatzeko helburua duena. Era berean, irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimenak izan beharreko laguntza publikoa arautzen da.

VI. tituluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hobekuntza eta garapena lantzen da, eta sistema hori osatzen duten prestazioen, zerbitzuen, egitasmoen eta jardueren kalitatearen hobekuntza sustatzen du, hiru tresna funtsezkoen bidez: Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia sortzea, kalitatearen ebaluaziorako eta etengabeko hobekuntzarako sistemen aplikazioa sustatu eta koordinatzeko; sistema horiek beharrezan gogobetetzean eta zerbitzuen funtzionamenduan gertatzen diren disfuntzioak edo defizitak zehazten lagunduko dute eta, behar izanez gero, formulak eta bideak jarri ahal izango dira gai honetan lortutako emaitzek aitortpen publikoa jaso dezaten. Gizarte-zerbitzuei buruzko ikerketa sustatzea, eta, orobat, ikerketa- eta garapen-ekimenak eta ezagutzaren kudeaketarako ekimenak. Eta gizarte-zerbitzuetako profesionalen prestakuntza etengabe hobetzea, bai eta gizarte-zerbitzuetako profesionalak sensibilizatzea ere eta, bereziki, zerbitzuetan eta zentroetan jarduten duten profesionalak, beren lanbide-jarduerak bere baitan duen maila etiko eta bioetikoarekiko.

Bigarren kapitulua, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema taxutzeaz, abiarazteaz eta zaintzeaz ari da, eta honako hau da xedea: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzu guztien neurri nagusien ezagutza bermaturik edukitzea, eta sistema horretako zerbitzuen eta prestazioen maila errazago zaindu ahal izatea; horretarako, Prestazioen eta Zerbitzuen Kartearan aurreikusitakoari begiratuko zaio, eta zerbitzu eta prestazio horiek gizarte-zerbitzuen plangintza eta pro-

ta valoración de su patrimonio, pudiendo, asimismo, articularse procedimientos de reconocimiento de deuda.

En su título V, la ley regula la intervención de la iniciativa privada en el ámbito de los servicios sociales, tanto definiendo el marco para su participación en la prestación de servicios sociales integrados en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, como definiendo las fórmulas de colaboración en la prestación de servicios o en la realización de actividades no incluidas en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales. Destaca, en relación con lo primero, la regulación de un régimen de concierto para la prestación de servicios sociales, que pretende hacer efectivo en los servicios y centros de titularidad privada el derecho a las prestaciones y servicios, de provisión obligatoria, incluidos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales. Asimismo, se regula el apoyo público a la iniciativa social sin ánimo de lucro.

En su título VI, dedicado a la mejora y el desarrollo del Sistema Vasco de Servicios Sociales, el texto promueve la mejora de la calidad en las prestaciones, servicios, programas y actividades que lo integran mediante tres instrumentos fundamentales: creación del Observatorio Vasco de Servicios Sociales para promover y coordinar la aplicación de sistemas de evaluación y de mejora continua de la calidad, que contribuyan a determinar las disfunciones o los déficit que se producen en la satisfacción de las necesidades y en el funcionamiento de los servicios, pudiendo, en su caso, establecer fórmulas y cauces orientados al reconocimiento público de los resultados alcanzados en esta materia; fomento y promoción de la investigación en servicios sociales, así como de las iniciativas de investigación y desarrollo y de gestión del conocimiento; y mejora continua de la formación de las profesionales y los profesionales de servicios sociales, con sensibilización de las personas profesionales de los servicios sociales, y en particular las profesionales y los profesionales que desarrollan su actividad en los servicios y centros, respecto a la dimensión ética y bioética presente en su práctica profesional.

En un segundo capítulo se recoge el diseño, la puesta en marcha y el mantenimiento del Sistema Vasco de Información sobre Servicios Sociales, al objeto de garantizar un conocimiento actualizado de las principales magnitudes del Sistema Vasco de Servicios Sociales y del conjunto de los servicios sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de facilitar el seguimiento de los niveles de servicio y prestación integrados en el Sistema Vasco de Servicios Sociales, atendiendo a lo previsto en la Cartera de Prestaciones





gramazioaren arabera Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendu orokorrean ezarritako baldintzei egokituko zaizkie.

Legearen zazpigarren eta azken tituluan gizarte-zerbitzuen ikuskapena eta aplikatzekoa den arauhauste eta zehapen-araubidea arautzen da. Azken horri dagokionez, zehapen-jarduera ororen nahitaezko legezkotasun-printzipioa errespetatze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskapen-eginkizuna egiaz eraginkorra izateko modua emango duten arauhausteen eta zehapen koadroa ezartzen da, eta, aldi berean, segurtasun juridikoari eusten zaio.

Azkenik, legeak xedapen iragankor eta gehigarri batzuk ezartzen ditu. Horien artean, ondoko hauek nabarmentzen dira garrantzi berezia dutelako. Alde batetik, zortzi urteko epe bat arautzen da, legea indarrean sartzen denetik aurrera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako katalogoan jasotzen diren prestazioak eta zerbitzuak herritar guzti-guztientzat hedatzeko eta urtebeteko epea aurreikusten da Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa onartzeko, sistemaren unibertsaltasuna ezartzeko bidea zehaztearren. Bestetik, eskumenen banaketa berritik datorren eskumen- eta finantzaberregokitze horiek indarrean sartzeak ez du berekin ekarriko, inondik ere, une horretan dauden zerbitzu eta prestazioen urritze bat, ez intentsitatean ezta hedaduran ere. Beste xedapen iragankor batek, hirugarrenak, legea indarrean sartzen denerako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erabiltzaile diren pertsonen bermatzen die eskuratuak zituzten eskubideak gordeko dituztela gero ere, eta arauketa berriak ezin du haientzat kalterik ekarri.

## I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Xedea

Lege honen xedea hau da: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte-zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzea, eta, horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bat arautu eta antolatzea.

### 2. artikulua. Gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa eta benetakoa babes judiziala

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioez eta zerbitzuez baliatu ahal izatea eskubide subjektiboa izango da, betiere sistema horretaz

y Servicios, así como de la adecuación de los mismos a los requisitos establecidos por la ordenación general del Sistema Vasco de Servicios Sociales en relación con la planificación y programación de los servicios sociales.

El séptimo y último título de la ley regula la inspección en los servicios sociales y el régimen de infracciones y sanciones aplicable. Por lo que respecta a este último, con el objeto de respetar el necesario principio de legalidad de toda actuación sancionadora, se establece el cuadro de infracciones y sanciones que pueda hacer realmente eficaz la labor inspectora de las administraciones públicas vascas, manteniendo al mismo tiempo la seguridad jurídica.

Finalmente, la ley establece algunas previsiones transitorias y adicionales. De entre ellas destacan las siguientes, de particular relevancia. Por un lado, se regula un plazo de ocho años, a contar desde la entrada en vigor de la ley, para la completa universalización de las prestaciones y servicios contenidos en el catálogo del Sistema Vasco de Servicios Sociales, y se prevé un plazo de un año para la aprobación del Plan Estratégico de Servicios Sociales que marcará la trayectoria de despliegue del Sistema hacia la mencionada universalización. Por otro, se impone el reajuste financiero derivado fundamentalmente de la nueva distribución competencial, indicando que dicha redistribución competencial y dicho reajuste financiero en ningún caso podrán suponer una disminución en los niveles de intensidad y cobertura de las prestaciones y servicios existentes en la fecha de su entrada en vigor. Una tercera disposición transitoria garantiza a las personas que ya sean usuarias del Sistema Vasco de Servicios Sociales a la entrada en vigor de la ley la conservación de los derechos que hayan adquirido, sin que la nueva regulación pueda suponer para ellas perjuicio alguno.

## TÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

### Artículo 1. Objeto

El objeto de la presente ley es promover y garantizar en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco el derecho a las prestaciones y servicios de servicios sociales mediante la regulación y ordenación de un Sistema Vasco de Servicios Sociales de carácter universal.

### Artículo 2. Derecho subjetivo a los servicios sociales y tutela judicial efectiva

1. El acceso a las prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales se configura como un derecho subjetivo, dentro del marco





baliatzeko ezarritako baldintza orokorren eta prestazio edo zerbitzu bakoitzaz baliatzeko araututako baldintza berezien barruan.

2. Eskubide subjektibo honen titularrek administrazio- eta jurisdikzio-bidean erreklamatu ahal izango dute Lege honek ezagutzen dizkien prestazio eta zerbitzuak betetzea; berek zuzenean edo eskubideak eta interes legitimo kolektiboak defendatzeko legezko gaitasuna duten pertsona juridikoen bitartez erreklamatu ahal izango dute hori. Benetako babes judizialaren barnean sartuko dira eskubide horren urraketa gerarazteko behar diren neurri guztiak, bai eta kaltea jasan duen pertsonari eskubide hori bete-betean baliatzeko modua bihurtzea ere.

### 3. artikulua. Gizarte-zerbitzuetarako eskubidearen titularrak

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioetarako eskubidearen titular dira Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako edozeinetan errolatuta dauden pertsonak, baldin eta legezko eta benetako bizilekua bertan badute.
2. Era berean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzu eta prestazioetarako eskubidearen titular dira sistemaz baliatu ahal izateko eskubidea egin aurre-aurreko 12 hilabete jarraituetan Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan errolatuta egon direla eta benetako bizilekua bertan izan dutela egiaztatzen duten pertsonak.  
  
Aurreko hori gorabehera, pertsona horiek Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako prestazio eta zerbitzuez baliatu ahal izango badira, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 5.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraitu beharko zaio.
3. Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoaren kalterik gabe, eroldaturik egon gabe eta benetako bizitokia bertan izan gabe Euskal Autonomia Erkidegoan dauden pertsonak informazio-, balorazio-, diagnostiko eta orientazio-zerbitzuez baliatu ahal izango dira, bai eta gizarte-kontuetan laguntzekoez ere, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzu eta Prestazioen Karteran gizarte-premia larrikotzat definitutako zerbitzu eta prestazioez ere.
4. Arrisku-egoeran edo babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeak Haurrak eta Nera-

de los requisitos generales de acceso al mencionado sistema y de los requisitos de acceso específicos que se regulen para cada prestación o servicio.

2. Las personas titulares podrán reclamar en vía administrativa y jurisdiccional, bien directamente, bien a través de las personas jurídicas legalmente habilitadas para la defensa de los derechos e intereses legítimos colectivos, el cumplimiento del derecho a las prestaciones y servicios que reconoce la presente ley. La tutela judicial comprenderá la adopción de todas las medidas que sean necesarias para poner fin a la vulneración del citado derecho, así como para restablecer a la persona perjudicada en el ejercicio pleno del mismo.

### Artículo 3. Titulares del derecho a los servicios sociales

1. Son titulares del derecho a los servicios y prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales las personas empadronadas y con residencia legal y efectiva en cualquiera de los municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
2. Asimismo, son titulares del derecho a los servicios y prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales las personas que acrediten haber estado empadronadas y haber tenido la residencia efectiva en cualquier municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco durante 12 meses continuados inmediatamente anteriores a su solicitud de acceso a dicho sistema.  
  
No obstante lo anterior, para el acceso de estas personas a las prestaciones y servicios enmarcados en el Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia se estará a lo previsto en el artículo 5.1 de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.
3. Sin perjuicio de lo previsto en los apartados anteriores, las personas que se encuentren en la Comunidad Autónoma del País Vasco podrán acceder, en todo caso, al servicio de información, valoración, diagnóstico y orientación, así como al acompañamiento social, y a aquellos servicios y prestaciones que sean definidos como de urgencia social en la Cartera de Prestaciones y Servicios de Sistema Vasco de Servicios Sociales.
4. El acceso de las personas menores de edad en situación de riesgo o desamparo a los servicios





beak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean aurreikusitakoaren arabera baliatuko dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuez eta prestazioez.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoak eta hura arautzen duten berariazko xedapenek aldeaz aurretik erroldatzeko betebeharrak ezar dezakete, dago-kion agindu tekniko nahitaezkoaz gainera, ondoren aipatuko diren zerbitzuez baliatzeko: etxez etxeko laguntza-zerbitzua, ostatu-zerbitzuak, eguneko arretako zerbitzu edo zentroak, gaueko harrera-zerbitzuak, egoitza-zerbitzuak, atsedenerako zerbitzuak, autonomia sostengatzeko zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak, alegia, hurrenez hurren Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoa arautzen duen 22. artikuluko 1.2, 1.9, 2.2, 2.3, 2.4, 2.5, 2.7.2 eta 3 paragrafoetan aurreikusitakoak. Hala, ezingo dira betebeharrak gehiago ezarri, aldeaz aurretik erroldatzeaz gain, Katalogo horretan aipatzen diren beste zerbitzu batzuei dagokienez.

5. Eusko Jaurlaritzak, erregelamenduz ezarriko diren baldintzen arabera, kanpoan diren euskal gizataldeetako kideak babesteko neurriak ezarri ahal izango ditu, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Harremanetarako maiatzaren 27ko 8/1994 Legean ezarritakoaren arabera.

#### 4. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek eta haiei atxikitako edo haien mendeko erakundeek ematen dituzten gizarte-zerbitzuetako jarduera guztiei aplikatuko zaie, bai eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan (lege honetako 5. artikuluan zehazten da) herri-administrazioekin elkarlanean aritzen diren erakunde pribatuek ematen dituztenei ere.
2. Halaber, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren parte hartzen ez duten gizarte-zerbitzuetako erakunde pribatuei honako hauek arautzen dituzten xedapenak aplikatuko zaizkie:
  - a) erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituzten xedapenak;
  - b) zerbitzu, zentro eta erakundeei baimena ematea, erregistratzea eta ikuskatzea, aplikatzekoak zaizkien baldintza materia-

y prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales obedecerá a lo previsto en la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia.

Lo establecido en los apartados anteriores se entenderá sin perjuicio de los periodos de empadronamiento previo que, además de la necesaria prescripción técnica, se establezcan, en su caso, en la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales y en sus disposiciones reguladoras específicas, para el acceso al servicio de ayuda a domicilio, a los servicios de alojamiento, a los servicios o centros de día, a los centros de acogida nocturna, a los centros residenciales, a los servicios de respiro, a los servicios de soporte de la autonomía y a las prestaciones económicas, contemplados, respectivamente, en los apartados 1.2, 1.9, 2.2, 2.3, 2.4, 2.5, 2.7.2, y 3 del artículo 22, regulador del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, no pudiendo establecerse requisitos adicionales de empadronamiento previo en relación con otros servicios del mencionado catálogo.

5. El Gobierno Vasco, en los términos que se disponga reglamentariamente, podrá establecer medidas de protección a favor de los miembros de las colectividades vascas en el exterior, de conformidad con lo establecido en la Ley 8/1994, de 27 de mayo, de Relaciones con las Colectividades y Centros Vascos en el Exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

#### Artículo 4. Ámbito de aplicación

1. La presente ley se aplicará al conjunto de actividades propias de los servicios sociales que se presten por las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco y por entidades vinculadas o dependientes de ellas, así como por entidades privadas que colaboren con ellas en el marco del Sistema Vasco de Servicios Sociales definido en el artículo 5.
2. Asimismo, se aplicarán a las entidades privadas de servicios sociales que no participan en el Sistema Vasco de Servicios Sociales las disposiciones que regulen:
  - a) los derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales;
  - b) la autorización, el registro y la inspección de entidades, servicios y centros como garantía del cumplimiento de los requisi-





lak eta funtzionalak eta langileei dagoz-  
kien baldintzak betetzen dituztelako  
berme gisa;

- c) arau-hausteen eta zehapenen araubidea;
- d) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sartzeko ez diren gizarte-ekimeneko zerbitzuak eta jarduerak sustatzeari eta laguntza publikoa emateari dagozkion xedapenak.

### 5. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatua da, erantzukizun publiko-koa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egitea du xede, eta sustatzeko, aurreikus-terako, babesteko eta laguntzeko eginkizunak bete-ze gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertso-nei eta harremanei buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.
2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta horniduraz egongo da osatua.
3. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren jardunak gizarte-ongizatea lortu nahian ari diren beste sistema eta politika publiko kideko edo osagarri batzuekin koordinatu behar dira.
4. Lege honetako 2. artikuluan jasotako eskubide subjektiboa eta 6. artikuluan ezarritako helburuak bermatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema beharrezko baliabideak izango ditu emanda-ko zerbitzuen eta arretaren ikuskerarako, ebaluaziorako eta kalitatearen etengabeko hobekuntzarako, lege honetan ezarritako eran.

### 6. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua

1. Herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua. Horretarako, beste sistema eta politika publiko batzuekin koordinatuta arituko da, haiekin lan-ki-detzan. Honako hauek ditu funtsezko eginkizun-ak:
  - a) Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun-egoerek pertso-nei eta familiei eragiten dizkieten beharri-za-nei aurrea

tos materiales, funcionales y de personal  
que les sean de aplicación;

- c) el régimen de infracciones y sanciones;
- d) las disposiciones relativas a la promo-ción y el apoyo público a los servicios y actividades de la iniciativa social no inte-grados en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.

### Artículo 5. El Sistema Vasco de Servicios Sociales

1. El Sistema Vasco de Servicios Sociales constitu-ye una red pública articulada de atención, de responsabilidad pública, cuya finalidad es favo-recer la integración social, la autonomía y el bienestar social de todas las personas, familias y grupos, desarrollando una función promotora, preventiva, protectora y asistencial, a través de prestaciones y servicios de naturaleza funda-mentalmente personal y relacional.
2. El Sistema Vasco de Servicios Sociales estará integrado por prestaciones, servicios y equipa-mientos de titularidad pública y de titularidad privada concertada.
3. Las actuaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales serán objeto de coordinación y coo-peración con las que corresponden a otros sis-temas y políticas públicas afines o complemen-tarias dirigidas a la consecución del bienestar social.
4. Al objeto de garantizar el derecho subjetivo contemplado en el artículo 2 y los objetivos esti-pulados en el artículo 6, el Sistema Vasco de Servicios Sociales se dotará de instrumentos adecuados para la inspección, la evaluación y la mejora continua de la calidad de la atención y de los servicios prestados, en los términos pre-vistas en esta ley.

### Artículo 6. Finalidad del Sistema Vasco de Servi-cios Sociales

1. La finalidad del Sistema Vasco de Servicios So-ciales es promover, en cooperación y coordina-ción con otros sistemas y políticas públicas, el bienestar social del conjunto de la población, siendo sus objetivos esenciales los siguientes:
  - a) Promover la autonomía personal y preve-nir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de la dependen-





- hartu eta erantzutea.
- b) Babesgabezia-egoerek eragiten dituzten beharriaz aurre hartu eta erantzutea.
  - c) Bazterketa-egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.
  - d) Larrialdi-egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharriaz aurre hartu eta erantzutea.
2. Helburu horiek lortze aldera, mekanismo batzuk ezarriko dira, honako xede honekin:
- a) Gizarte-zerbitzuen arloan arreta behar duten gizarte-beharriaz aurkitzea eta horiei erantzuteko zerbitzu eta prestazio egokienak planifikatzea.
  - b) Komunitateak gizarte-zerbitzuen esparruan arreta jasotzeko beharriaz aurre hartu eta erantzutea, bereziki erabiltzaileek eta gizarte-zerbitzuen eremuan jarduten diren erakundeek banaka eta elkartuta parte hartu dezaten sustatzea.
3. Gizarte-ongizatea, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa ez dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuak, baizik eta gizarte-babeseko beste sistema eta politika publiko batzuekin batera gauzatu behar direkoak; hala bada, horiek gauzatzeko orduan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema bereak diren helburu eta eginkizunen esparruan arituko da elkarlanean. Hala ere, elkartasuna eta elkarbizitza sustatzea eta gizartearen parte-hartzea sustatzea beste sistema eta politika publiko batzuekin partekatutako helburutzat joko dira.

## 7. artikulua. Printzipioak

Hauek dira Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistema arautuko duten printzipioak:

- a) Erantzukizun publikoa. Botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan araututako prestazioen eta zerbitzuen eskaintza eta horietaz baliatzeko modua bermatuko dute. Nolanahi ere, sistemara sartzeko prestazioen, eskarien lehenengo harrekarako prestazioen eta kasu-koordinazioarekin

- cia.
- b) Prevenir y atender las necesidades originadas por las situaciones de desprotección.
  - c) Prevenir y atender las situaciones de exclusión y promover la integración social de las personas, de las familias y de los grupos.
  - d) Prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por las situaciones de emergencia.

2. Con vistas a alcanzar dichos objetivos, se articularán mecanismos orientados a:

- a) Detectar las necesidades sociales susceptibles de ser atendidas en el ámbito de los servicios sociales y planificar los servicios y prestaciones más idóneas para responder a dichas necesidades.
- b) Promover la participación de la comunidad en la resolución de las necesidades sociales susceptibles de ser atendidas en el marco de los servicios sociales, y en particular la participación individual y organizada de las propias personas usuarias y de las entidades activas en el ámbito de los servicios sociales.

3. El bienestar social, la inclusión social y la cohesión social no constituyen finalidades exclusivas del Sistema Vasco de Servicios Sociales, sino compartidas con otros sistemas y políticas públicas de protección social; en su consecución, por lo tanto, el Sistema Vasco de Servicios Sociales colaborará en el marco de las finalidades y funciones que le son propias. Asimismo, la promoción de la solidaridad y de la convivencia y el fomento de la participación social se consideran finalidades compartidas con otros sistemas y políticas públicas.

## Artículo 7. Principios

El Sistema Vasco de Servicios Sociales se regirá por los siguientes principios:

- a) Responsabilidad pública. Los poderes públicos garantizarán la disponibilidad y el acceso a las prestaciones y servicios regulados en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales. En todo caso, garantizarán la gestión pública directa de las prestaciones de acceso y primera acogida de las de





zuzenean lotutako prestazioen zuzeneko kudeaketa publikoa bermatuko dute, 59.2 artikulua dionaren arabera. Osagarri modura, zerbitzuen eta erabiltzaile eta profesionalen beharrezan eta kudeaketaren eta arretaren kalitatea bermatzeko zailtasunen errealitatea berriaz ezagutzen jarraitzeko, eta jokabide egokien ereduak eskaintzeko, eta sistema bere helburuetarantz bultzatuko duten baliabide berritzaile eta alternatiboak esperimentu bezala probatzeko, esparru honetan eta modu orokorrean aurreikusiko dira kudeaketa publikoaren eta gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketaren nagusitasuna, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzu eta prestazioak ematerakoan.

- b) Unibertsaltasuna. Botere publikoek Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan jasotzen diren prestazioez eta zerbitzuez baliatzeko eskubidea bermatuko diete eskubide horren titular diren pertsona guztiei, lege honetako 3. artikuluan zehazten diren baldintzen arabera; nolahi ere, prestazio eta zerbitzu horietaz baliatzeko eskubidea berariazko baldintzak betetzeko betebeharraren pean jarri ahalko da.
- c) Berdintasuna eta ekitatea. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek prestazio eta zerbitzu jakin batzuk bermatu behar dituzte gutxienez, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapak zehazten dituenak, baliabideak Autonomia Erkidegoaren lurraldean berdin banatuko direla ziurtatzearen. Halaber, prestazio eta zerbitzu horietaz ekitatearen irizpidearen arabera baliatzea bermatuko dute, baldintza sozial edo pertsonalengatik bereizkeriarik eragin gabe, ekintza positiborako edo aukera- eta tratu-berdintasunerako neurriak aplikatzearen kalterik gabe, eta beren jardunean gizon eta emakumeen berdintasunaren eta dibertsitate sexualaren ikuspegiak integratuz, bai eta belaunaldi ezberdinak eta kultura ezberdinak aintzat hartzeko ikuspegia ere. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, hizkuntz araudia betetze aldera, pertsonak euskara edo gaztelania erabiltzeko duten askatasuna bermatuko dute.
- d) Hurbiltasuna. Hurbiltasunaren printzipioari erantzunez, gizarte-zerbitzuak, haien izaerak aukera ematen duenean, ahalik eta deszentralizatorik handienarekin eskainiko dira.
- e) Prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa. Baz-

mandas y de las directamente asociadas a la coordinación de caso, en los términos previstos en el artículo 59.2. Complementariamente, al objeto de preservar un conocimiento específico de la realidad de los servicios y de las necesidades de las personas usuarias y profesionales, así como de las dificultades asociadas a garantizar la calidad de la gestión y de la atención, y al objeto también de ofrecer modelos de buenas prácticas y de ensayar, con carácter experimental, soluciones innovadoras y alternativas que favorecerán y acelerarán el avance del sistema hacia los objetivos que se ha marcado, deberá preverse, en este marco y con carácter general, la prevalencia de la gestión pública y de la gestión a través de la iniciativa social en la provisión de los servicios y prestaciones previstos en el Catálogo de Servicios y Prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

- b) Universalidad. Los poderes públicos garantizarán el derecho a las prestaciones y servicios previstos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios a todas las personas titulares del mismo en los términos señalados en el artículo 3, sin perjuicio de que dicho acceso pueda condicionarse al cumplimiento de requisitos específicos.
- c) Igualdad y equidad. Las administraciones públicas vascas deberán garantizar, como mínimo, la cobertura de prestaciones y servicios que, al objeto de asegurar una distribución homogénea de los recursos en el conjunto del territorio autonómico, defina el Mapa de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Asimismo, garantizarán el acceso a dichas prestaciones y servicios con arreglo a criterios de equidad, sin discriminación alguna asociada a condiciones personales o sociales, y sin perjuicio de la aplicación de medidas de acción positiva y de igualdad de oportunidades y de trato, e integrando en sus actuaciones la perspectiva de la igualdad de sexos y de diversidad sexual, así como las perspectivas intergeneracional e intercultural. Asimismo, las administraciones públicas vascas garantizarán, en cumplimiento de la normativa lingüística, la libertad de las personas para utilizar el euskera o el castellano.
- d) Proximidad. Atendiendo al principio de proximidad, la prestación de los servicios sociales, cuando su naturaleza lo permita, responderá a criterios de máxima descentralización.
- e) Prevención, integración y normalización. Los





terketa sortzen duten edo bizimodu autonomoa mugatzen duten egiturazko kausen azterketa eta prebentzioa egingo dute gizarte-zerbitzuek. Era berean, herritarrak beren ingurune pertsonal, familiar eta sozialean integratzea izango dute helburu, eta normalizazioa sustatuko dute, beste arreta-sistema eta politika publiko batzuek balia daitezten lagunduz.

- f) Arreta pertsonalizatua eta integrala eta arretaren jarraitasuna. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak arreta pertsonalizatua eskaini behar du, pertsona eta/edo familia bakoitzaren beharrezko berezietan egokitua eta haien egoeraren ebaluazio integral batean oinarritua, eta arreta jarraitua eta integrala izango dela bermatu behar du, nahiz eta administrazio edo sistema bat baino gehiago jardun.
- g) Esku-hartze interdisciplinarioak. Eskaintako arretaren izaera integrala eta baliabide publikoen aplikazio arrazoizko eta eraginkorra bermatze aldera, ahalegina egingo da esku-hartzeak interdisciplinarioak izan daitezten, eta, horretarako, talde-lana sustatuko da, bai eta gizarte-arloko esku-hartzean aritzen diren erabakietako eta beste lanbideetako ekarpenak eta egokiak diren guztiak aintzat hartzea ere.
- h) Koordinazioa eta lankidetzak. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak koordinazio- eta lankidetzak-betebeharraren arabera jardungo dira elkarren artean, bai eta irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimen pribatuarekin ere. Elkarlanean arituko dira, orobat, gainerako ekimen pribatuarekin, lege honetako V. tituluaren ezarritako eraren. Koordinazioa eta elkarlan horrek gainditu egin behar du gizarte-zerbitzuen arloa, eta beste babes-sistema eta -politika publiko batzuetara ere hedatu behar du.
- i) Gizarte-ekimena sustatzea. Irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimenak gizarte-zerbitzuen arloan parte har dezaten sustatuko dute botere publikoek, bereziki Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren parte har dezaten.
- j) Herritarren parte-hartzea. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren plangintzan eta garapenean, pertsonak eta taldeak elkartasuneko lankidetzan ari daitezten sustatuko dute botere publikoek, bai eta erabiltzaileen parte-hartzea ere.
- k) Kalitatea. Prestazio eta zerbitzu nagusiek kalitate-estandar gutxienezko batzuk izan ditzaten bermatu behar dute Euskal Autonomia Erkide-

servicios sociales se aplicarán al análisis y a la prevención de las causas estructurales que originan la exclusión o limitan el desarrollo de una vida autónoma. Asimismo, se orientarán a la integración de la ciudadanía en su entorno personal, familiar y social y promoverán la normalización, facilitando el acceso a otros sistemas y políticas públicas de atención.

- f) Atención personalizada e integral y continuidad de la atención. El Sistema Vasco de Servicios Sociales deberá ofrecer una atención personalizada, ajustada a las necesidades particulares de la persona y/o de la familia y basada en la evaluación integral de su situación, y deberá garantizar la continuidad e integralidad de la atención, aun cuando implique a distintas administraciones o sistemas.
- g) Carácter interdisciplinar de las intervenciones. Con el fin de garantizar el carácter integral de la atención prestada y la aplicación racional y eficiente de los recursos públicos, se favorecerá la interdisciplinariedad de las intervenciones, promoviendo el trabajo en equipo y la integración de las aportaciones de las diversas profesiones del ámbito de la intervención social y cualesquiera otras que resulten idóneas.
- h) Coordinación y cooperación. Las administraciones públicas vascas actuarán de conformidad con el deber de coordinación y cooperación entre sí, así como con la iniciativa social sin ánimo de lucro. Asimismo, colaborarán, subsidiariamente, con el resto de la iniciativa privada en los términos establecidos en el título V de la presente ley. Esta coordinación y cooperación deberá trascender del ámbito de los servicios sociales y extenderse a otros sistemas y políticas públicas de protección.
- i) Promoción de la iniciativa social. Los poderes públicos promoverán la participación de la iniciativa social sin ánimo de lucro en el ámbito de los servicios sociales, y en particular en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.
- j) Participación ciudadana. Los poderes públicos promoverán la colaboración solidaria de las personas y de los grupos, así como la participación de las personas usuarias, en la planificación y el desarrollo del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
- k) Calidad. Las administraciones públicas vascas deberán garantizar la existencia de unos estándares mínimos de calidad para los principales





goko herri-administrazioek; horretarako, autonomia-mailan, gutxieneko eskakizun gisa bete beharreko baldintza material, funtzional eta langileei buruzkoak arautuko dituzte eta aipatu estandarren hobekuntza sustatu; orobat sustatu beharko dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osoan xedetzat kalitatea izango duen kudeaketa.

#### 8. artikulua. Arretarako eta esku-hartzerako ereduak

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema komunitatea oinarri duen ikuspegiaren arabera jardungo da, alegia, zerbitzu eta prestazioen hurbiltasunaren ikuspegiaren arabera, eta, horretarako:

- a) baliabideak eta esku-hartzea tokian tokiko erki-degoaren ezaugarrien arabera izan daitezkeen saiatuko da, eta, horretarako, beharrianak izendatu eta ebaluatzeko orduan, pertsonen eta erakundeen parte-hartzea izango du lagungarri.
- b) pertsonen arreta beren ohiko ingurunean emateko modua eskainiko du, ahal dela beren bizitokian, eta ohiko bizilekuan jarraitzeko modurik ez dutenean, beren ohiko ingurunearen ordezkari egokiak aurkitu beharko dira, neurriagatik eta hurbil egoteagatik egokiak diren egoitza ordezkariak, alegia.
- c) kasu bakoitzerako egokia den esku-hartzea diseinatuko du, beharrianak ebaluatuz arreta personalizatuko plan baten esparruaren barruan; plan hori, arreta-ibilbideen jarraitasuna eta koherentzia bermatzearen, erabiltzaileen parte-hartzearekin egingo da eta ebaluazioko eta berrikuspen aldizkako mekanismoak jasoko ditu plana pertsonen beharriari egokitzeko zaien jakiteko.
- d) pertsona edo familia bakoitzari erreferentziako profesional bat izendatuko zaio Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan, arreta-ibilbideen koherentzia eta esku-hartzearen arteko koordinazioa 19. artikuluan ezarritako moduan bermatze aldera.
- e) esku-hartzea interdisciplinarra izatea bermatuko du, arreta integrala eta jarraitasun-irizpideen arabera eskaintze aldera.
- f) prestazio, zerbitzu, programa eta jardura guztietan prebentzio-ikuspegi bat sartuko du, eta, ahal dela, gizarte-arriskuak edo -beharrianak

tipos de prestaciones y servicios, mediante la regulación, a nivel autonómico, de los requisitos materiales, funcionales y de personal que con carácter de mínimos deberán respetarse, y fomentarán la mejora de dichos estándares, y promover el desarrollo de una gestión orientada a la calidad en el conjunto del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

#### Artículo 8. Modelo de atención y de intervención

El Sistema Vasco de Servicios Sociales tendrá como referencia en su funcionamiento el enfoque comunitario, de proximidad de la atención, y a tales efectos:

- a) favorecerá la adaptación de los recursos y las intervenciones a las características de cada comunidad local, contando para ello con la participación de las personas y entidades en la identificación de las necesidades y en su evaluación;
- b) posibilitará la atención de las personas en su entorno habitual, preferentemente en el domicilio, y articulará, cuando la permanencia en el domicilio no resulte viable, alternativas residenciales idóneas, por su tamaño y proximidad, a la integración en el entorno;
- c) diseñará el tipo de intervención adecuada a cada caso, sobre la base de una evaluación de necesidades y en el marco de un plan de atención personalizada, que, al objeto de garantizar la coherencia y la continuidad de los itinerarios de atención, deberá elaborarse con la participación de la persona usuaria y deberá incluir mecanismos de evaluación y revisión periódica que permitan verificar la adecuación del plan a la evolución de las necesidades de la persona;
- d) asignará a cada persona o familia un profesional o una profesional de referencia en el Sistema Vasco de Servicios Sociales, al objeto de garantizar la coherencia de los itinerarios de atención y la coordinación de las intervenciones en los términos contemplados en el artículo 19;
- e) garantizará el carácter interdisciplinar de la intervención con el fin de ofrecer una atención integral y ajustada a criterios de continuidad;
- f) incorporará, en todas las prestaciones, servicios, programas y actividades el enfoque preventivo, actuando, en la medida de lo posible,





azaldu edo larriagotu baino lehen esku-hartuko du.

antes de que afloren o se agraven los riesgos o necesidades sociales.

## 9. artikulua. Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak

## Artículo 9. Derechos de las personas usuarias de los servicios sociales

1. Titulartartasun publikoko nahiz pribatuko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek, Konstituzioak eta legeek ezagutzen dizkietenez gain, bermatuta izango dute beste eskubide hauetaz ere baliatu ahal izango direla:
  - a) Gizarte-zerbitzuez berdintasunez, duintasunez eta pribatutasunez baliatzeko eskubidea.
  - b) Isilpekotasunerako eskubidea, hau da, erabiltzailearen espedientearen edo erabiltzailearekin zerikusia duen edozein dokumentutan ageri diren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren erabateko errespetuz trata daitezela; hor sartuko da profesionalek gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei buruz jakin dituztenak isilean edukitzeko betebeharra.
  - c) Autonomiarako eskubidea, hau da, bizitza pribatuan nork bere erara jokatzeko eta bizitza pribatuari buruz nork bere iritzia izateko aukera; hor sartzen da bizitza pribatuan arrisku neurtua hartzeko prest egotea, betiere horretarako behar den jarduteko gaitasuna eta gaitasun juridikoa edukiz gero, indarrean den araudiak aurreikusitako eran.
  - d) Esku-hartze jakin bati dagokion baimena libreki eman edo ukatzeko eskubidea; baimen hori idatziz eman beharko da, beti, esku-hartzeak ostatu-zerbitzu batean edo egoitza-zentro batean sartu beharra dakarrenean. Aurreko horretarako, pertsona ezgaituen edo adingabeen baimena legez ezarritako prozeduraren arabera emango da.
  - e) Balizko ezgaitasun-egoeretan eman beharreko laguntza edo artatzeetarako jarraibideak emateko eskubidea, eta nork

1. Las personas usuarias de los servicios sociales, ya sean éstos de titularidad pública o privada, tendrán, además de los derechos constitucional y legalmente reconocidos, garantizado el ejercicio de los siguientes derechos:
  - a) Derecho a acceder a los servicios sociales en condiciones de igualdad, dignidad y privacidad.
  - b) Derecho a la confidencialidad, entendiéndose por tal el derecho a que los datos de carácter personal que obren en su expediente o en cualquier documento que les concierna sean tratados con pleno respeto de lo previsto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, incluyendo la debida reserva por parte de las profesionales y los profesionales con respecto a la información de la que hayan tenido conocimiento sobre las personas usuarias de los servicios sociales.
  - c) Derecho a la autonomía, entendiéndose por tal la posibilidad de actuar y pensar de forma independiente en relación con la vida privada, incluida la disposición a asumir en la misma ciertos niveles de riesgo calculado, siempre que dispongan de capacidad jurídica y de obrar para ello, en los términos previstos en la normativa vigente.
  - d) Derecho a dar o a denegar su consentimiento libre y específico en relación con una determinada intervención, debiendo ser otorgado el consentimiento, en todo caso, por escrito cuando la intervención implique ingreso en un servicio de alojamiento o en un centro residencial. A efectos de lo anterior, el consentimiento de las personas incapacitadas o de las personas menores de edad se otorgará conforme al procedimiento legalmente establecido.
  - e) Derecho a dar instrucciones previas para situaciones futuras de incapacidad respecto a asistencia o cuidados que se le





bere burua zaintzeko eskubidea, hau da, nork bere burua gobernatzeko gaitasuna galduz gero, norbera eta norberaren ondasunak zainduko dituen eta norbera ordezkatzeko duen pertsona aldez aurretik izendatzeko aukera, Kode Zibilak aurreikusitako eran.

- f) Esleitutako prestazioei eta zerbitzuei uko egiteko eskubidea; nahaste psikikoa dela-eta norbait bere borondatearen kontra egoitza batean sartzeari buruz eta adingabeen zainketari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa beti aplikatuko da, ordea.
- g) Proposatutako esku-hartzei buruz, eskaintzen diren gizarte-zerbitzuei buruz eta horietaz baliatzeko beharrezkoak diren baldintzei buruz informazio nahikoa, egiazkoa eta erraz ulertzeko modukoa edukitzeko eskubidea; orobat, norberaren espedientea edozein unetan ikusteko eskubidea, indarrean den antolamendu juridikoak ezarritakoarekin bat etorrituz.
- h) Erreferentziako profesional bat izendaturik izateko eskubidea, esku-hartzeko prozesuari koherentzia, integritasuna eta jarraitasuna eman diezaion.
- i) Beharizanen ebaluazio edo diagnostiko bat epe arrazoizkoetan edukitzeko eskubidea; eta ebaluazio hori idatziz eta hizkuntza argi eta ulergarrian edukitzekoa; orobat, arrazoizko epeetan arreta personalizatuko plan bat edukitzekoa, eta plan horretan parte hartzekoa, baldin eta, antzemandako beharrianei erantzuteko, beharrezkotzat jotzen bada esku-hartze bat.
- j) Norberari eragiten dioten erabakietan eta zerbitzuen funtzionamenduan parte hartzeko eskubidea, banaka edo taldean, eta eskubideak egiaz erabiltzeko eta babesteko modua ematen duten informazio-, iradokizun- eta kexa-bitartekoez baliatzekoa.
- k) Norberaren aukeren arabera norberaren kasuari egokien doakion zerbitzu-mota eta -modalitatea libreki aukeratzeko eskubidea, izendatutako erreferentziako profesionalaren jarraibideei eta agindu teknikoei jarraituz.

puedan procurar y derecho a la autotutela, entendiéndose por tal la posibilidad de nombrar anticipadamente a la persona que le representará y ejercerá la tutela sobre su persona y bienes en caso de pérdida de su capacidad de autogobierno, en los términos previstos en el Código Civil.

- f) Derecho a renunciar a las prestaciones y servicios concedidos, salvo lo dispuesto en la legislación vigente en relación con el internamiento no voluntario por razón de trastorno psíquico y en relación con la tutela de personas menores de edad.
- g) Derecho a disponer de información suficiente, veraz y fácilmente comprensible, sobre las intervenciones propuestas, sobre los servicios sociales disponibles y sobre los requisitos necesarios para acceder a los mismos, así como a acceder a su expediente individual en cualquier momento, de acuerdo con lo establecido en el ordenamiento jurídico vigente.
- h) Derecho a tener asignado una profesional o un profesional de referencia, que procure la coherencia, integridad y continuidad del proceso de intervención.
- i) Derecho a que se realice, en plazos razonables de tiempo, una evaluación o diagnóstico de sus necesidades, a disponer de dicha evaluación por escrito, en un lenguaje claro y comprensible, y a disponer, en plazos razonables de tiempo, de un plan de atención personalizada, y a participar en su elaboración cuando, para responder a las necesidades detectadas, se estime necesaria una intervención.
- j) Derecho a participar, individual o colectivamente, en las decisiones que les afectan y en el funcionamiento de los servicios, y a acceder a los cauces de información, sugerencia y queja que permitan el ejercicio efectivo y la defensa de sus derechos.
- k) Derecho a escoger libremente el tipo y modalidad de servicio más adecuado a su caso en función de su disponibilidad, atendiendo a la orientación y a la prescripción técnica de la persona profesional de referencia asignada.





- l) Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetako edozeinetan aritzeko eskubidea, norberak hobesten duenaren arabera.
  - m) Prestazioen eta zerbitzuen kalitaterako eskubidea, betiere erregelamenduek prestazio eta zerbitzu horien baldintza materialak, funtzionalak eta langileei buruz ezarritakoaren arabera.
  - n) Lege honek ezagutzen dituen beste eskubide batzuk.
2. Artikulu honetan ezarritakoetarako, gizarte-zerbitzuen erabiltzaile direla joko da prestazioa edo zerbitzua zuzenean hartu behar dutenak, eta, dena delako eskubidearen izaera eta lege honetan ezarritako aurreikuspenak direla-eta egokia denean, baita zaintzaileak ere, erregelamenduz ezarritako baldintzen arabera.

Adingabeen eta pertsona ezgaituen kasuan, legezko ordezkarien bitartez bermatuko da haien eskubideen erabilera, indarrean den araudian ezarritako baldintzen arabera.

#### **10. artikulua. Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen betebeharrak**

- 1. Titulartasun publikoko nahiz pribatuko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek honako betebeharrak izango dituzte:
  - a) Prestazioei eta zerbitzuei buruz ezarritako arau, betebeharrak, eskakizun eta prozedurak betetzea, eta arreta pertsonalizatuko plana eta profesional eskudunek planean ezarritako jarraibideak errespetatzea.
  - b) Erabiltzailearentzat izendatutako erreferentziako profesionalari erabiltzailearen egoera pertsonal, familiar eta ekonomikoari buruz behar duen informazioa ematea, egiazkoa, eta informazio horietan gertatzen diren aldaketan berri ematea, non eta herri-administrazioek ez dituzten dagoeneko datu horiek eskura.
  - c) Prestazioak eman diren helburu horretarako erabiltzea.

- l) Derecho a ser atendidas, en función de su propia preferencia, en cualquiera de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
  - m) Derecho a la calidad de las prestaciones y servicios, de acuerdo con los requisitos materiales, funcionales y de personal que se determinen reglamentariamente para cada uno de ellos.
  - n) Otros derechos que se reconozcan en la presente ley.
2. A efectos de lo previsto en el presente artículo, se entenderá que son usuarias de los servicios sociales las destinatarias directas de la prestación o servicio y, siempre que resulte pertinente por la naturaleza del derecho del que se trate y por las previsiones contenidas en esta ley, las personas cuidadoras, en los términos que se determinen reglamentariamente.

En el caso de las personas menores de edad y de las personas incapacitadas, se garantizará el ejercicio de sus derechos a través de sus representantes legales, en los términos previstos en la normativa vigente.

#### **Artículo 10. Deberes de las personas usuarias de los servicios sociales**

- 1. Las personas usuarias de los servicios sociales, ya sean éstos de titularidad pública o privada, deberán cumplir los siguientes deberes:
  - a) Cumplir las normas, requisitos, condiciones y procedimientos establecidos en relación con las prestaciones y servicios, y respetar el plan de atención personalizada y las orientaciones establecidas en el mismo por las profesionales y los profesionales competentes.
  - b) Facilitar al profesional o la profesional de referencia la información necesaria y veraz sobre sus circunstancias personales, familiares y económicas, así como comunicar las variaciones en las mismas, salvo en caso de que tales datos ya obren en poder de las administraciones públicas.
  - c) Destinar las prestaciones a la finalidad para las que hubieran sido concedidas.





- d) Hala balegokio, prestazioaren edo zerbitzuen kostua finantzatzen laguntzea.
- e) Erabiltzen dituzten prestazioen eta zerbitzuen funtzionamendu- eta antolaketa-arauak ezagutu eta betetzea, eta, hala balegokio, baita horien barruan indarrean diren elkarbizitza-arauak ere.
- f) Lege honetan erabiltzaileei eta profesionalenari ezagutzen zaizkien eskubide guztiak errespetatzea.
- g) Beste erabiltzaile eta profesional batzuekiko harremanetan, diskriminaziorik gabeko jokamoldez aritzea.
- h) Gizarte-zerbitzuen ondasun higigarriak eta instalazioak errespetatu eta behar bezala erabiltzea.
- i) Lege honek ezarritako beste betebeharrak batzuk betetzea.

2. Artikulu honetan ezarritakoetarako, gizarte-zerbitzuen erabiltzaile direla joko da prestazioa edo zerbitzua zuzenean hartu behar dutenak, eta, dena delako eskubidearen izaera eta Lege honetan ezarritako aurreikuspenak direla-eta egokia denean, baita zaintzaileak ere, erregelamenduz ezarritako baldintzen arabera.

Adingabeen eta pertsona ezgaituen kasuan, legeko ordezkarien bitartez berrmatuko da haien eskubideen erabilera, indarrean den araudiak ezarritako baldintzen arabera.

### 11. artikulua. Gizarte-zerbitzuetako profesionalen eskubideak

Titulartasun publikoko nahi pribatuko gizarte-zerbitzuetako profesionalak, Konstituzioak eta legeak ezagutzen dizkieten eskubideez gain eta beren lanbidearen arabera aplikatzekoak zaizkien legeak eta lan-araudiak ezagutzen dizkietenez gain, honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Beren lanbideari dagokion jardunean berdintasun- eta duintasun-baldintzetan aritzeko eskubidea.
- b) Honako xede hauek izango dituen informazioa eta hasierako orientazioa jasotzeko eskubidea: erabiltzaileen beharrezan eman beharreko

- d) Contribuir, en su caso, a la financiación del coste de la prestación o del servicio.
- e) Conocer y cumplir el contenido de las normas reguladoras de la organización y del funcionamiento de las prestaciones y servicios de los que son usuarias, y, en su caso, de las normas de convivencia vigentes en los mismos.
- f) Respetar todos los derechos reconocidos en la presente ley a las personas usuarias y profesionales.
- g) Mantener, en sus relaciones con otras personas usuarias y profesionales, un comportamiento no discriminatorio.
- h) Respetar y utilizar correctamente los bienes muebles y las instalaciones de los servicios sociales.
- i) Otros deberes que se les impongan en la presente ley.

2. A efectos de lo previsto en el presente artículo, se entenderá que son personas usuarias de los servicios sociales las destinatarias directas de la prestación o servicio y, siempre que resulte pertinente por la naturaleza del deber del que se trate y por las previsiones contenidas en esta ley, las personas cuidadoras, en los términos que se determinen reglamentariamente.

En el caso de las personas menores de edad y de las personas incapacitadas, se garantizará el ejercicio de sus deberes a través de sus representantes legales, en los términos previstos en la normativa vigente.

### Artículo 11. Derechos de las personas profesionales de los servicios sociales

Las personas profesionales de los servicios sociales, ya sean éstos de titularidad pública o privada, además de los derechos reconocidos constitucional y legalmente y de aquellos que les reconocen la normativa laboral y la legislación aplicable en función de su profesión, tendrán garantizado el ejercicio de los siguientes derechos:

- a) Derecho al desempeño de su actividad profesional en los servicios sociales en condiciones de igualdad y dignidad.
- b) Derecho a acceder a una información y orientación inicial destinadas a facilitar la adecuación y la calidad de la atención a las necesida-





arreta kalitatezkoa eta beharizan horien arabera egokitua izatea, eta profesionalak zerbitzuaren ezaugarriei egokitzea.

- c) Bizitza aktibo osoan zehar lanbide-heziketa etengabea jasotzeko eskubidea, arreta lanbide horretako ohitura onei egokitzen zaiela ziurtatze aldera.
- d) Norberari eragiten dioten erabakietan eta zerbitzuen antolaketan parte hartzeko eskubidea, banaka edo taldean, eta eskubideak egiaz erabiltzeko eta babesteko modua ematen duten informazio-, iradokizun- eta kexa-bitartekoez baliatzea.
- e) Zerbitzua behar bezala ematea bermatzeko behar diren bitartekoak edukitzeko eskubidea, dagokion araudiak eskatzen dituen kalitate-irizpideen arabera.
- f) Lege honetan ezagutzen zaizkien beste eskubide batzuk.

## 12. artikulua. Gizarte-zerbitzuetako profesionalen betebeharrak

Titulartasun publikoko nahiz pribatuko gizarte-zerbitzuetako profesionalak lan-araudiaren eta beren lanbidean aplikatzekoa zaien legeriaren arabera jardungo dira, eta beren arlo horretako kode deontologikoak ezartzen dituen jarraibideen arabera egokitu beharko dute beren esku-hartzea. Horrez gain, honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Arreta jasotzen duten pertsonen duintasuna, autonomia, gizarteratzea eta ongizatea sustatzea, eta erabiltzaileei eta profesionalen lege honetan ezagutzen zaizkien eskubide guztiak errespetatzea.
- b) Gizarte-zerbitzuen arloan indarrean dagoen araudia ezagutu eta betetzea, eta, bereziki, beren jardura hori gauzatzen duten zerbitzuetako antolamendu- eta funtzionamendu-arauak, bai eta kudeatzen dituzten programetakoak ere.
- c) Beste erabiltzaile eta profesional batzuekiko harremanetan, diskriminaziorik gabeko jokamoldez aritzea.
- d) Erabiltzaileek beren kabuz edo beren legezko ordezkariaren bitartez hartzen dituzten iritziak, irizpide eta erabakiak errespetatzea.

des de las personas usuarias, así como la adaptación de las personas profesionales a las características del servicio.

- c) Derecho a beneficiarse de una formación profesional continuada durante toda su vida activa con vistas a garantizar la adecuación de la atención prestada a las pautas de buena práctica profesional.
- d) Derecho a participar, individual o colectivamente, en las decisiones que les afecten y en la organización de los servicios, y a acceder a los cauces de información, sugerencia y queja que permitan el ejercicio efectivo y la defensa de sus derechos.
- e) Derecho a disponer de los medios necesarios para garantizar la prestación de un servicio en condiciones que respondan a los criterios de calidad exigidos por la normativa correspondiente.
- f) Otros derechos que se les reconozcan en la presente ley.

## Artículo 12. Deberes de las personas profesionales de los servicios sociales

Las personas profesionales de los servicios sociales, ya sean éstos de titularidad pública o privada, además de ajustarse en su actuación a los deberes que les imponen la normativa laboral y la legislación aplicable en función de su profesión, y de ajustar su intervención a las orientaciones que, en su caso, recoja el código deontológico propio de su disciplina, tendrán los siguientes deberes:

- a) Promover la dignidad, la autonomía, la integración y el bienestar de las personas a las que atienden y respetar todos los derechos reconocidos en la presente ley a las personas usuarias y profesionales.
- b) Conocer y cumplir la normativa vigente en el ámbito de los servicios sociales, y en particular las normas reguladoras de la organización y del funcionamiento de los servicios en los que ejercen su actividad y de los programas que gestionan.
- c) Mantener, en sus relaciones con otras personas profesionales y usuarias, un comportamiento no discriminatorio.
- d) Respetar las opiniones, criterios y decisiones que las personas usuarias tomen por sí mismas o a través de su representante legal.





- |  |  |
|--|--|
| e) Gizarte-zerbitzuak ematen dituzten zerbitzuetan eta beren jarduerarekin zerikusia duen beste edozein lekutan elkarbizitzaren eta elkarren errespetuaren arauak begiratzea.  | e) Guardar las normas de convivencia y respeto mutuo en los servicios en los que prestan servicios sociales y en cualquier otro lugar relacionado con sus actividades.   |
| f) Erabiltzailea beste zerbitzu batera edo batzuetara bidali behar izanez gero, harentzat onuragarriena den eran egitea, esku-hartzeak jarraitasuna izan dezala saiaturaz.   | f) En caso de que sea necesaria la derivación de la persona usuaria a otro u otros servicios, hacerlo de la manera más favorable para aquella, procurando la continuidad de la intervención.   |
| g) Beren eginkizunak betetzen dituzten lekuko ondasun higigarriak eta instalazioak –gizarte-zerbitzuetako eta beren jarduerarekin zerikusia duen beste edozein lekutakoak– errespetatu eta behar bezala erabiltzea.  | g) Respetar y utilizar correctamente los bienes muebles y las instalaciones de los servicios en los que desarrollan sus funciones y de cualquier otro lugar relacionado con sus actividades.   |
| h) Esku-hartzeetarako ezartzen diren epeak betetzea, eta, betiere, indarrean den araudian ezarritako gehieneko epeetara egokitzea.   | h) Respetar los plazos que se establezcan para las distintas intervenciones, ajustándose, en todo caso, a los plazos máximos previstos en la normativa vigente.  |
| i) Zerbitzuaren funtzionamenduan, antolaketan edo instalazioetan hautemandako akats edo irregulartasunen berri ematea zerbitzuaren arduradunari, edo, beharrezko iritzi gero, ikuskatze-eginkizunak garatzeko eskumena duen unitate edo zerbitzuari dagokion saileko arduradunari. | i) Poner en conocimiento de la persona responsable del servicio o, si lo estiman necesario, de la responsable o el responsable del departamento del que depende el servicio o de la unidad competente para desarrollar las funciones de inspección, las irregularidades o anomalías que se observen en el funcionamiento, la organización o las instalaciones del mismo. |
| j) Baldin eta eskura dituen balorazio-elementuetan oinarrituz, eta bere iritzi, egoera batek eskubideen urratzea ekar badezake, eskumena duen agintaritzari jakinaraztea.  | j) Poner en conocimiento de la autoridad competente cualquier situación que en su opinión, y basándose en los elementos de valoración de los que disponen, pudiera conllevar una vulneración de derechos.  |
| k) Lege honetan ezarritako beste betebeharrak batzuk betetzea.   | k) Otros deberes que se les impongan en la presente ley.   |

### **13. artikulua. Gizarte-zerbitzuak arautzen dituen legedian eskubide eta betebeharrak aintzat hartzea**

Gizarte-zerbitzuetako prestazio eta zerbitzu motak arautzen dituzten arauak definitu egin beharko dituzte, prestazio eta zerbitzu horien izaeraren eta ezauzgarrien arabera, erabiltzaileei eta profesionali dagozkien eskubideak, betiere lege honetan ezarritako eskubideak eta betebeharrak errespetatuz.

### **Artículo 13. Reconocimiento de derechos y deberes en la normativa reguladora de los servicios sociales**

La normativa reguladora de los diferentes tipos de prestaciones y servicios de servicios sociales deberá definir, atendiendo a la naturaleza y características de cada uno de ellos, los derechos y obligaciones que corresponden a las personas usuarias y profesionales, con respeto, en todo caso, de los establecidos en la presente ley.





**II. TITULUA**  
**PRESTAZIOAK ETA ZERBITZUAK, FUNTZIOEN ETA**  
**LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA, ETA PLAN-**  
**GINTZA GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAN**

**I. KAPITULUA**  
**GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN PRES-**  
**TAZIOAK ETA ZERBITZUAK**

**1. atala**  
**Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak**

**14. artikulua. Prestazio motak eta ezaugarriak**

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sartzen diren prestazioak unibertsalak izango dira, eta prestazio horietako bakoitzaz baliatzeko arautzen diren baldintzak betetzen dituzten guztiei bermatu beharko zaie horietaz baliatzeko modua.
2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren honako prestazio hauek sartuko dira, gutxienez:
  - a) Prestazio teknikoak
  - b) Prestazio ekonomikoak
  - c) Prestazio teknologikoak
3. Gizarte-zerbitzuetako prestazio tekniko, ekonomiko eta teknologikoek, aurreko paragrafoan aipatutakoek, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako 6. artikuluan zehazten diren funtsezko helburuetako bat gauzatzea izango dute xede.
  - a) Prestazio teknikoek harreman-alderdi bat izan behar dute, laguntzekoa, eta, beraz, ahal den neurrian, erabiltzaileen parte-hartzearekin gauzatu behar dira.
  - b) Hartzaile dituztenen gizarteratzea eta autonomia sustatzeko xedea izan behar dute prestazio ekonomikoek, eta lagungarri izan behar zaizkie gizarteratzeko prozesuan, edo, haien mendetasun- edo babesgabetasun-egoerek eragindako beharrezanean erantzun behar diete, aldi batez edo iraunkorki.
  - c) Prestazio teknologikoek autonomia irabazten eta gizarteratzen lagundu behar diete erabiltzaileei eta zaintzaileei, eta bizi diren ingurunean txertatzen; gainera, ahal den neurrian, autonomia gutxi duten pertsonen beren ohiko bizilekuan bizi-

**TÍTULO II**  
**PRESTACIONES Y SERVICIOS, ORGANIZACIÓN**  
**FUNCIONAL Y TERRITORIAL Y PLANIFICACIÓN**  
**EN EL SISTEMA VASCO DE SERVICIOS SOCIALES**

**CAPÍTULO I**  
**PRESTACIONES Y SERVICIOS DEL SISTEMA VAS-**  
**CO DE SERVICIOS SOCIALES**

**Sección 1.ª**  
**Prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Socia-**  
**les**

**Artículo 14. Tipos y características de prestaciones**

1. Las prestaciones que se integran en el Sistema Vasco de Servicios Sociales tendrán carácter universal, debiendo garantizarse el acceso a las mismas a todos los titulares que reúnan los requisitos de acceso que se regulen para cada una de ellas.
2. El Sistema Vasco de Servicios Sociales comprenderá, como mínimo, los siguientes tipos de prestaciones:
  - a) Prestaciones técnicas
  - b) Prestaciones económicas
  - c) Prestaciones tecnológicas
3. Las prestaciones técnicas, económicas y tecnológicas propias del ámbito de los servicios sociales referidas en el apartado anterior se orientarán siempre al logro de alguno de los objetivos esenciales del Sistema Vasco de Servicios Sociales definidos en el artículo 6:
  - a) Las prestaciones técnicas deberán presentar una dimensión relacional, de acompañamiento, y llevarse a cabo, tanto como resulte posible, con la participación de las personas usuarias.
  - b) Las prestaciones económicas se orientarán a facilitar la integración social y la autonomía de sus perceptores, sirviéndoles de apoyo en su proceso de integración social o garantizando la cobertura, temporal o permanente, de las necesidades derivadas de su situación de dependencia o desprotección.
  - c) Las prestaciones tecnológicas se orientarán a favorecer la autonomía e integración social de las personas usuarias y de las personas cuidadoras, facilitándoles el acceso al entorno en el que viven y, en la medida en que resulte posible, posibi-





tzen jarraitzeko aukera eman behar diete.

4. Gizarte-bazterkeriaren aurkako maitatzaren 22ko 12/1998 Legea eta Gizarte Eskubideen Agiriaren abenduaren 27ko 10/2000 Legea medio ematen diren prestazio ekonomikoak, eta diru-sarrerak bermatzeko politikaren esparruaren barruan sortzen den beste edozein, bai eta gizarte-zerbitzuek berezko dituzten xedeetan lagun dezaketen beste batzuk ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren kudeaketa-egituretatik izapidetu eta ebatziko dira, haiek arautzen dituzten xedapenek ezarritako baldintzen arabera.
5. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren barruan sartuta dauden zerbitzuek, sistemak berezko dituen prestazioekin batera, gizarte-arreta emateko beste sistema edo politika publiko batzuetako prestazioak antolatu ahalko dituzte, bai eta beste prestazio osagarri batzuk ere, hala nola garraioa, egoitza, mantenua, arropa-garbitzea eta garbiketa orokorra, eta zerbitzuaren xedeak, beti, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak berezko dituen helburuak gauzatzeko izan behar du, batez ere. Hala, gizarte-zerbitzuen egoitzetara joateko garraio egokituak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko prestaziotzat joko da.

## 15. artikulua. Prestazio teknikoak

1. Prestazio teknikotzat joko dira profesionalen taldeek egiten dituzten jarduerak baldin eta jarduer horiek 6. artikuluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako definitutako funtsezko xede bat edo batzuk lortzera bideratutakoak badira eta pertsonen, familien eta taldeen beharrezan egokitzen bazaizkie.
2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko prestazio teknikoak honako hauek izango dira, gutxienez:
  - a) Informazioa
  - b) Balorazioa
  - c) Diagnostikoa
  - d) Orientazioa
  - e) Bitartekaritza

litando que las personas con déficit de autonomía continúen viviendo en su lugar habitual de residencia.

4. Las prestaciones económicas derivadas de la Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social, y de la Ley 10/2000, de 27 de diciembre, de Carta de Derechos Sociales, y cualesquiera otras que pudieran crearse en el marco de la política de garantía de ingresos, así como otras prestaciones que pudieran coadyuvar a los fines propios de los servicios sociales, podrán tramitarse y resolverse desde las estructuras de gestión del Sistema Vasco de Servicios Sociales, en los términos que dispongan sus disposiciones reguladoras.
5. Los servicios incluidos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales podrán articular, junto con las prestaciones propias del sistema, prestaciones propias de otros sistemas o de otras políticas públicas de atención así como prestaciones complementarias de transporte, alojamiento, manutención, lavandería y limpieza, u otras prestaciones complementarias que pudieran determinarse reglamentariamente, debiendo orientarse siempre el servicio fundamentalmente al logro de los objetivos propios del Sistema Vasco de Servicios Sociales. A estos efectos, el transporte adaptado destinado a facilitar el acceso a los centros de servicios sociales tendrá la consideración de prestación propia del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

## Artículo 15. Prestaciones técnicas

1. Se considerarán prestaciones técnicas las actividades realizadas por equipos profesionales, orientadas al logro de uno o varios de los objetivos esenciales del Sistema Vasco de Servicios Sociales definidos en el artículo 6 de acuerdo con las necesidades de las personas, familias y grupos.
2. Las prestaciones técnicas propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales serán, al menos, las siguientes:
  - a) Información
  - b) Valoración
  - c) Diagnóstico
  - d) Orientación
  - e) Mediación





- |  |  |
|--|--|
| f) Etxeko arreta   | f) Atención doméstica  |
| g) Arreta pertsonalizatua  | g) Atención personal   |
| h) Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzea, eta, horien barruan: <ul style="list-style-type: none"><li>- Estimulazioa eta errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea</li><li>- Arlo okupazionaletan esku hartzea</li><li>- Heziketan esku hartzea</li><li>- Arlo psikosozialetan esku hartzea</li></ul> | h) Intervención socioeducativa y psicosocial, que comprenderá: <ul style="list-style-type: none"><li>- Intervención estimulativa o rehabilitadora</li><li>- Intervención ocupacional</li><li>- Intervención educativa</li><li>- Intervención psicosocial</li></ul> |
| i) Lagun egite soziala   | i) Acompañamiento social   |
| j) Laguntza soziojuridikoa   | j) Atención sociojurídica  |
| k) Beste prestazio tekniko batzuk, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuen artean koka daitezkeenak.  | k) Otras prestaciones técnicas que puedan establecerse en el marco de las finalidades propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales.   |

3. Prestazio teknikoek baliatzea Zerbitzuen eta Prestazioen Katalogoan sartutako zerbitzuen bitartez egingo da, eta, hor, gehienetan, bat baino gehiago izango dira prestazioak.

3. El acceso a las prestaciones técnicas se producirá a través de los servicios incluidos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios, que, con carácter general, integrarán más de una prestación.

## 16. artikulua. Prestazio ekonomikoak

1. Prestazio teknikotzat joko dira une jakin batzuetan edo aldizka pertsonari nahiz bizikidetzak-unitateei ematen zaizkien diru kopuruak, baldin eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako 6. artikuluan definitutako funtsezko helburuak lortzera bideratuta badaude edo beste sistema eta politika publiko batzuenak era badiren helburuak lortzen laguntzen badute.
2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko prestazio ekonomikoak honako mota hauetakoak izango dira, gutxienez:
  - a) Gizarteratzea eta/edo autonomia sustatzeko prestazioak, eta larrialdi-egoera, gizarte-larrialdi, mendetasun-egoera eta babesgabetasun-egoerak eragindako egoera ekonomikoak leuntzeko eta horiei erantzuteko prestazioak.
  - b) Gizarte-laguntza informala eskaintzen duten pertsonari lagundu eta ordaintzeko prestazioak, beren kasa baliatzeko eta gizarteratzeko laguntza behar duten pertsonak zaintzen dituzten senitartekoentzat.

## Artículo 16. Prestaciones económicas

1. Se considerarán prestaciones económicas las entregas dinerarias de carácter puntual o periódico, concedidas a personas o a unidades de convivencia, orientadas al logro de los objetivos esenciales del Sistema Vasco de Servicios Sociales definidos en el artículo 6, o que coadyuven al logro de las finalidades compartidas con otros sistemas o políticas públicas.
2. Las prestaciones económicas propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales serán de los siguientes tipos:
  - a) Prestaciones para facilitar la integración social y/o la autonomía así como para cubrir o paliar las consecuencias económicas de las situaciones de emergencia o urgencia social, dependencia o desprotección.
  - b) Prestaciones para apoyar y compensar a las personas que ofrecen apoyo social informal, destinadas a las y los familiares cuidadores de personas que requieren apoyo para su desenvolvimiento autónomo e integración social.





- c) Banan-banako prestazioak, berreskuratuz ezin diren laguntza teknikoak baliatzeko modua errazteko prestazio teknologikoak eskuratzeko edo ohiko elkarbizitza-ingurunean egokitzeak gauzatzeko.
- d) Zerbitzu pertsonalekin lotutako banan-banako prestazioak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik kanpoko prestazio edo zerbitzu batez baliatzeko aukera emateko xedea dutenak, alegia, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan erabiltzaileak bere eskubidez lor dezakeen prestazio edo zerbitzuaren antzeko ezaugarriekiko prestazio edo zerbitzu batez baliatzeko aukera emateko xedea dutenak; betiere, beharrezkoa da sistema horretan sartzen diren zerbitzuen esparruan prestazio edo zerbitzu hori ezin aldi batez bermatzea, eskaintza aski zabala ez izateagatik. Aurrekoa bakar-bakarrak aplikatuko da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren plangintzan aurreikusitakoarekin bat etorruta, betetze-bidean dauden zerbitzuen kasuan.
- e) Beste prestazio ekonomiko batzuk, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuen artean koka daitezkeanak.
3. Prestazio tekniko edo teknologikoak beti izango dira prestazio teknologikoak eskuratzeko prestazio ekonomikoak gaineratik edo zerbitzu pertsonalei lotutako prestazio ekonomikoak gaineratik, berreskuratuz ezin diren laguntza teknikoak eskuratzeko edo elkarbizitza ohiko ingurunean egokitzeak gauzatzeko kasuetan izan ezik. Horrenbestez, prestazio teknologikoak eskuratzeko prestazio ekonomikoak edo zerbitzu pertsonalei lotutako prestazio ekonomikoak aldi baterako izango dira, eta salbuespenezkoak, eta erabiltzailearen eskubidea onartutzat eman eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako dena delako prestazio edo zerbitzuaz egiaz baliatzen hasi arteko tarte horretan baizik ez dira esleitu.
4. Artikulu honetako 2. paragrafoa a) eta b) idatz-zatietan aipatzen diren prestazioak ezingo dira inoiz jo zerbitzu baten ordezkotako prestazio ekonomiko gisa.
5. Lege honetan zuzeneko kudeaketa publikotzat jotzen diren prestazioak edo zerbitzuak ezingo dira inoiz prestazio ekonomiko batekin ordeztu.
- c) Prestaciones individuales para la adquisición de prestaciones tecnológicas para facilitar el acceso a ayudas técnicas no recuperables o la realización de adaptaciones en el medio habitual de convivencia.
- d) Prestaciones individuales vinculadas a servicios personales, destinadas a facilitar el acceso, fuera del Sistema Vasco de Servicios Sociales, a una prestación o servicio de características similares a aquella prestación o servicio del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales al que tiene derecho la persona usuaria pero cuyo acceso no se puede garantizar temporalmente, en el marco de los servicios integrados en dicho sistema, por falta, en su caso, de cobertura suficiente del mismo. Lo anterior sólo será aplicable a servicios cuya provisión se encuentre en curso de desarrollo de acuerdo con lo previsto en la planificación del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
- e) Otras prestaciones económicas que puedan establecerse en el marco de las finalidades propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
3. Las prestaciones técnicas o tecnológicas, salvo en el caso de la adquisición de ayudas técnicas no recuperables o de la realización de adaptaciones en el medio habitual de convivencia, prevalecerán siempre sobre las prestaciones económicas para la adquisición de prestaciones tecnológicas o vinculadas a servicios personales, que, en coherencia con lo anterior, tendrán siempre carácter temporal y excepcional, otorgándose únicamente durante el periodo que media entre el reconocimiento del derecho de la persona usuaria y su acceso efectivo a la correspondiente prestación o servicio dentro del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
4. Las prestaciones referidas en las letras a) y b) del apartado 2 no podrán entenderse en ningún caso como una prestación económica sustitutiva de un servicio.
5. En ningún caso podrán ser sustituidos por una prestación económica los servicios o prestaciones definidos como de gestión pública directa en la presente ley.





## 17. artikulua. Prestazio teknologikoak

1. Prestazio teknologikoak honako mota hauetakoak izango dira:

- a) Laguntza teknikoak eskaintzea, telelaguntza-zerbitzua emateko behar diren euskarri mota guztiak barne.
- b) Ingurune fisikoan egin beharreko egokitzak egitea, erabiltzaileen ohiko bizilekuan irismenerako oztopoak kentze aldera.

2. Lege honen ondorioetarako:

- a) Laguntza teknikotzat joko da autonomia-rako mugak prebenitu, konpentsatu, arindu edo ezabatze produktu, tresna, ekipamendu edo sistema tekniko oro, merkatuan lehendik dagoena edo berriaz fabrikatua.

Laguntza teknikoak izan daitezke:

- Berreskuragarriak, onuradun batzuek batak bestearen ostean erabili ahal izateko modukoak direnean eta lekuz aldatzeko modukoak direnean garraioa beste kosturik gabe. Berreskuragarriak diren laguntza teknikoak hornidura-zerbitzuen edo aldi baterako lagapenen bidez emango dira.
- Berreskuraezinak, beren ezaugarriak direla-eta eskualdatu ezin direnean eta, ondorioz, onura eskatzaile bakar bati edo, salbuespen gisa, aldi berean hainbati dakarkienean. Berreskuratu ezin diren laguntza teknikoak baliatzeko modua laguntza horiek bermatzeko laguntza ekonomikoak esleituz bermatu ahal izango da.

- b) Ingurune fisikora egokitzea honako hau izango da: arkitektura-oztopoak ezabatze modua emango duten obrak diseinatu eta gauzatzeko eta erabiltzailearen ohiko bizilekuan egokitzeak egitea, haren irismena errazteko eta haren autonomia-pertsonalaren maila hobetzeko. Zerbitzua eman ezin denean, laguntza ekonomikoaren bidez bermatuko dira ingurune fisikoan egin beharreko egokitzeak.

## Artículo 17. Prestaciones tecnológicas

1. Las prestaciones tecnológicas serán de las siguientes modalidades:

- a) La facilitación de ayudas técnicas, incluida la de todo tipo de soportes para la prestación del servicio de teleasistencia.
- b) La realización de adaptaciones en el medio físico, orientadas a la eliminación de barreras para la accesibilidad en el lugar habitual de residencia de las usuarias y usuarios.

2. A los efectos de la presente ley:

- a) Se entenderá por ayuda técnica todo producto, instrumento, equipamiento o sistema técnico, fabricado especialmente o existente en el mercado, destinado a prevenir, compensar, aliviar o eliminar limitaciones en la autonomía.

Las ayudas técnicas serán:

- Recuperables, cuando puedan ser utilizadas sucesivamente por varios beneficiarios y ser trasladadas de lugar sin costes mayores que los de transporte. El acceso a las ayudas técnicas recuperables se producirá a través de servicios de suministro en préstamo o cesión temporal.
- No recuperables, cuando, por sus características, sean intransferibles y beneficien, por tanto, a un único demandante o, excepcionalmente, a varios de forma simultánea. El acceso a las ayudas técnicas no recuperables podrá garantizarse a través de la concesión de ayudas económicas para su adquisición.

- b) Se entenderá por adaptación del medio físico el diseño y la ejecución de obras que permitan la eliminación de barreras arquitectónicas y la realización de adaptaciones en el lugar habitual de residencia de la persona usuaria para facilitar la accesibilidad y mejorar el grado de autonomía de la persona en el mismo. La realización de adaptaciones en el medio físico, en caso de que no pueda prestar-





se el servicio, se garantizará a través de ayudas económicas.

**Bigarren atala**  
**Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuak eta esku-hartzeko oinarritzko prozedura**

**18. artikulua. Zerbitzuak**

Zerbitzuak antolakuntzarako atalak dira, gizarte-zerbitzuetako erakunde batek kudeatzen ditu eta prestazio tekniko nahiz teknologiko batek edo gehiagok osatzen dute. Hainbat zerbitzu mota dago, batez ere zertarako diren gorabeheran, zerbitzu-hartzaileen ezaugarrien gorabeheran, iraupenaren gorabeheran edo zer prestazio mota eskaintzen duten gorabeheran, baina Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karteran zehazturik dagoen moduan beharko du izan.

**19. artikulua. Esku hartzeko oinarritzko prozedura**

1. Profesionalak, beren eginkizunetan ari direlarik, ohartzen badira zer edo zertan esku hartu beharra dagoela eta dena delako esku-hartze horrek jarraipen baten beharra duela, jarduketaprozedurari ekingo diote. Prozedura horren baitan, diagnostiko bat egin beharko da, eta diagnostikoak hala gomendatzen badu, arreta pertsonalizatuko plan bat egin beharko da, plan horretan zehazturik dauden neurriak martxan jarri –baita prestazioak eta zerbitzuak ere–, eta jarraipena eta ebaluazioa ere egin beharko dira. Arreta pertsonalizatuko plan horrek esango du zein zerbitzu eta prestaziotan esku hartuko den, eta esleitutako zerbitzuek sortu ahal izango dute, beharrezkoa eta komenigarria dela uste badute, norbanakoen beharrezan ahalik eta hoberen egokitzea bermatuko duen banakako programazio bat.
2. Esku-hartzeak dirauen denbora guztian zehar, aldian-aldian ebaluazio batzuk egin beharko dira, eta baliteke ebaluazio horien ondorioz arreta pertsonalizatuko planeko bai helburuak bai jarduerak aldatu egin behar izatea, berdin norberarenak izan, beste inorenak, gizartearenak edo beste edonolakoak izan.
3. Prozedura aplikatu baino lehenago, pertsona edo familia erabiltzailearen oniritzia beharko da, edo, bestela, pertsona erabiltzailea legez ordezkatzeko duen pertsonaren edo erakundearena, eta, ahal den neurrian, pertsona edo familia erabiltzaileek ere parte hartu beharko dute.
4. Prozedura koordinatzeko ardura Gizarte Zerbi-

**Sección 2.ª**  
**Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales y procedimiento básico de intervención**

**Artículo 18. Servicios**

Los servicios constituyen unidades organizativas gestionadas por una entidad de servicios sociales que integran una o más prestaciones, técnicas o tecnológicas. En función, principalmente, de las finalidades que persiguen, las características de las personas a las que se dirigen, su duración o el tipo de prestaciones que articulan, los servicios podrán presentar diversas modalidades, en los términos que se establezcan en la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

**Artículo 19. Procedimiento básico de intervención**

1. Cuando en el ejercicio de sus funciones las personas profesionales constaten la necesidad de proceder a una intervención que requiera un seguimiento, iniciarán un procedimiento de actuación que implicará la realización de un diagnóstico y, si dicho diagnóstico así lo aconsejara, la elaboración de un plan de atención personalizada, el acompañamiento de la puesta en marcha de las medidas, incluidas las prestaciones y servicios, contempladas en dicho plan, así como la realización de un seguimiento y evaluación. El referido plan de atención personalizada definirá el conjunto de servicios y prestaciones cuya intervención se prevé, pudiendo los servicios asignados elaborar, si lo estimaran necesario y conveniente, una programación individual para garantizar la mejor adecuación a las necesidades individuales.
2. A lo largo de todo el proceso de intervención deberán realizarse evaluaciones periódicas susceptibles de modificar los objetivos y las actuaciones, propias o ajenas, sociales o de cualquier otra naturaleza, integradas en el plan de atención personalizada.
3. El procedimiento deberá aplicarse previo consentimiento de la persona o familia usuaria o, en su caso, de la persona o entidad que represente legalmente a la persona usuaria y, tanto como sea posible, con la participación de las personas o familias usuarias.
4. La responsabilidad para la coordinación del





tzuen Euskal Sistemako profesional batena izango da, ondoren ezarritako moduan:

- a) Prozeduraren hasierako fasean, ardua oinarrizko gizarte-zerbitzuko gizarte-langile batena izango da. Erreferentziako profesional modura jardungo du, non eta ez den irizten, esku-hartzea den modukoa dela-eta, egokiagoa dela beste era bateko profesional batek hartzea erreferentzia-lan hori bere gain. Hala-koetan, edonola ere, udalen gizarte-zerbitzuetako beste profesional batzuek ere lagunduko eta parte hartuko dute. Koordinazio-lan hori egiteko, beste euskal herri-administrazio batzuen menpeko lehen mailako eta bigarren mailako arretako beste gizarte-zerbitzu batzuetako profesionalen esku-hartzea ere eska dezake. Halakoetan, beste administrazio horiek erabakitzen badute beren menpeko prestazio edo zerbitzu jakin baterako sarbidea ematea nahiz ez ematea, eta erabakia dagokion organoaren bitartez hartzen badute, erreferentziako profesionalarentzat erabaki lotesleak izango dira.
  - b) Eman beharreko laguntza handia dela-eta hala egitea komeni bada, erreferentziako profesionalak dena delako kasuaren ardua bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuetako profesionalen baten esku utz dezake. Momentu horretatik aurrera, beste profesional horrek hartuko du dena delako kasua koordinatzeko ardua, baina, edonola ere, jatorrizko oinarrizko gizarte-zerbitzuan erreferentzia-lanak egin zituen hori jakinaren gainean eduki beharko du, ea kasuak zer-nolako bilakaera duen, batez ere hark beste arreta-esparru batzuetan oraindik pertsona erabiltzailearekin edo familiarekin harremanik baldin badu.
5. Aurretiazko beste esku-hartzerik egon bada edo oraindik ere baldin badago, erreferentziako profesionalak esku-hartze hori garatu duen beste profesionalarekin lankidetzan aritu beharko du, aurretiazko esku-hartze hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuren baten baitan egon edo ez.

## 20. artikulua. Baliabide tekniko komunak

1. Gizarte-zerbitzuek esku hartu behar duten jakiteko irizpideetan homogeneousuna bermatzea-

procedimiento recaerá en un profesional o una profesional del Sistema Vasco de Servicios Sociales en los siguientes términos:

- a) En la fase inicial del procedimiento, la responsabilidad recaerá en una trabajadora o trabajador social del Servicio Social de Base, que actuará como profesional de referencia, salvo que por la naturaleza de la intervención se estime más adecuado que la función de referencia recaiga en otra figura profesional, contando, en su caso, con la colaboración y participación de otras personas profesionales de los Servicios Sociales Municipales. Para el ejercicio de sus funciones de coordinación podrá requerir, asimismo, la intervención de profesionales de otros servicios sociales de atención primaria y secundaria dependientes de otras administraciones públicas vascas, teniendo las decisiones de estas últimas, emitidas a través de los órganos correspondientes, carácter vinculante para el profesional o la profesional referente cuando las mismas determinen la concesión o a la denegación del acceso a una prestación o servicio que de ellos dependa.
  - b) En aquellos casos en que el grado de intensidad del apoyo requerido así lo aconsejara, la responsabilidad de un caso podrá ser transferida por la persona profesional referente a una persona profesional de los servicios sociales de atención secundaria, quien asumirá, a partir de ese momento, la función de coordinación de dicho caso, así como el compromiso de informar sobre su evolución a la persona profesional que actuó como referente en el servicio social de base de origen, en particular cuando éste siga en contacto con la persona usuaria o la familia en otros ámbitos de la atención.
5. En aquellos casos en que haya existido o exista una intervención previa, la persona profesional referente deberá trabajar en colaboración con la persona profesional que haya desarrollado dicha intervención, independientemente de que ésta se enmarque en un servicio que forme parte del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

## Artículo 20. Instrumentos técnicos comunes

1. Con el fin de garantizar la homogeneidad en los criterios de intervención de los servicios so-





rren, euskal herri-administrazioek baloraziorako eta diagnostikorako tresna komunak erabiliko dituzte.

2. Horrexegatik beragatik, oinarritzko gizarte-zerbitzu guztiek bete beharko dute gizarte-fitxarako eredua eta aplikatu beharko dute arreta pertsonalizatuko planaren eredua. Bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuek ere aplikatu beharko dute plan hori. Eredue horiek diseinatzerakoan, beren erabilera- eta ustiapenezagarririk arintasun handiagoa bermatuko dute tramitazioan eta kudeaketan.
3. Baliabide komun horiek Eusko Jaurlaritzak arautuko ditu, erregelamendu bidez, eta gainerako euskal herri-administrazioekin koordinaturik, nola foru-administrazioekin hala udal-administrazioekin.

Bai baliabide horiek diseinatzeko bai datuak biltzeko orduan, eta baita datu horiek erabiltzeko eta ustiatzeko orduan ere, datu pertsonalak babesteko indarrean dauden arauak bete beharko dira.

Era berean, 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidean jasotakoa ere aintzat hartuko da, eta baliabide horiek diseinatzeko eta aplikatzeko orduan, lege horretako 35. artikuluan adierazita datorrena beteko dela bermatzeko hartu beharreko neurri egokiak hartuko dira herri-administrazioen esku lehena-gotik dauden datuak berriz ez aurkezteko, artikuluko horren xedapenak, gerora, Herritarren Sarbide Elektronikoari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeko 6. artikuluan garatu baitziren.

### 3. atala

#### Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa eta Kartera

##### 21. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren definizioa eta ezaugarriak

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan daude identifikaturik euskal herri-administrazio eskudunek bermatu behar dituzten diru-laguntzak eta zerbitzuak.
2. Aurreko ataleko katalogo horretan jasotako diru-laguntzak eta zerbitzuak Gizarte Zerbitzuen

ciales, las administraciones públicas vascas aplicarán instrumentos comunes de valoración y diagnóstico.

2. Con la misma finalidad, todos los servicios sociales de base cumplimentarán el modelo de ficha social y aplicarán el modelo de plan de atención personalizada; este último también será aplicado por los servicios sociales de atención secundaria. El diseño de dichos modelos deberá obedecer a unas características de uso y explotación que garanticen una mayor agilidad en la tramitación y en la gestión.
3. El Gobierno Vasco regulará estos instrumentos comunes, con carácter reglamentario, en el ejercicio de sus competencias de coordinación con las demás administraciones públicas vascas, tanto de ámbito foral como de ámbito municipal.

Tanto en el diseño de estos instrumentos como en la recogida de datos, y en su utilización y explotación, se estará a lo previsto en la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

Asimismo, en el diseño y aplicación de dichos instrumentos técnicos se adoptarán los medios idóneos para garantizar el respeto de las previsiones contenidas en el artículo 35 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que desarrolla el artículo 6 de la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, en lo relativo a no aportar datos que ya obren en poder de las administraciones públicas.

### Sección 3.ª

#### Catálogo y Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales

##### Artículo 21. Definición y características del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales

1. El Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales es el instrumento por el que se identifican las prestaciones económicas y los servicios cuya provisión deberán garantizar las administraciones públicas vascas competentes.
2. Las prestaciones económicas y servicios incluidos en el catálogo definido en el apartado an-





Euskal Sistemaren bidez bideratuko dira, 5. artikuluan zehazturik dagoen moduan.

## 22. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa

Hona hemen Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoan jasotzen diren zerbitzuak eta diru-laguntzak:

1. Lehen Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuak
  - 1.1. Informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua.
  - 1.2. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua.
  - 1.3. Gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.
  - 1.4. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua.
  - 1.5. Gizarte-zerbitzuen eremuan partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.
  - 1.6. Telelaguntza-zerbitzua.
  - 1.7. Eguneko arretako zerbitzuak.
  - 1.8. Gaueko harrera-zentroak.
  - 1.9. Ostatu-zerbitzuak:
    - 1.9.1. Harrera-pisua.
    - 1.9.2. Etxebizitza babestua.
    - 1.9.3. Apartamentu babestuak.
    - 1.9.4. Etxebizitza komunitarioa.
2. Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuak
  - 2.1. Mendetasuna, ahalmen-urritasuna, bazterketa eta babesgabetasuna baloratzeko eta diagnostikatzeko zerbitzua.
  - 2.2. Eguneko arretako zerbitzuak edo zentroak.
    - 2.2.1. Autonomia mugatuak eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
    - 2.2.2. Arlo okupazionalako zerbitzua edo zentroa.

terior se prestarán a través del Sistema Vasco de Servicios Sociales, en los términos previstos en el artículo 5.

## Artículo 22. Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales

Los servicios y prestaciones económicas incluidas en el Catálogo del Sistema Vasco de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco serán los siguientes:

1. Servicios sociales de atención primaria
  - 1.1. Servicio de información, valoración, diagnóstico y orientación.
  - 1.2. Servicio de ayuda a domicilio.
  - 1.3. Servicio de intervención socioeducativa y psicosocial.
  - 1.4. Servicio de apoyo a personas cuidadoras.
  - 1.5. Servicio de promoción de la participación y la inclusión social en el ámbito de los servicios sociales.
  - 1.6. Servicio de teleasistencia.
  - 1.7. Servicios de atención diurna.
  - 1.8. Servicios de acogida nocturna.
  - 1.9. Servicios de alojamiento:
    - 1.9.1. Piso de acogida.
    - 1.9.2. Vivienda tutelada.
    - 1.9.3. Apartamentos tutelados.
    - 1.9.4. Vivienda comunitaria.
2. Servicios sociales de atención secundaria
  - 2.1. Servicio de valoración y diagnóstico de la dependencia, la discapacidad, la exclusión y la desprotección.
  - 2.2. Servicios o centros de día.
    - 2.2.1. Servicio o centro de día para atender necesidades derivadas de limitaciones en la autonomía.
    - 2.2.2. Servicio o centro ocupacional.





2.2.3. Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.	2.2.3. Servicio o centro de día para atender necesidades de inclusión social.
2.3. Gaueko harrera-zentroak.	2.3. Centros de acogida nocturna.
2.3.1. Autonomia mugatuak eragindako premiei erantzuteko gaueko zentroa.	2.3.1. Centro de noche para atender necesidades derivadas de limitaciones en la autonomía.
2.3.2. Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroa.	2.3.2. Centro de acogida nocturna para atender necesidades de inclusión social.
2.4. Egoitzak.	2.4. Centros residenciales.
2.4.1. Adinduentzako egoitza-zentroak.	2.4.1. Centros residenciales para personas mayores.
2.4.2. Ahalmen-urrituentzako egoitza-zentroak.	2.4.2. Centros residenciales para personas con discapacidad.
2.4.3. Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak.	2.4.3. Centros residenciales para personas con enfermedad mental.
2.4.4. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentroak.	2.4.4. Centros residenciales para personas menores de edad en situación de desprotección.
2.4.5. Bazterketa- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak.	2.4.5. Centros residenciales para personas en situación de exclusión y marginación.
2.4.6. Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk.	2.4.6. Centros residenciales para mujeres víctimas de maltrato doméstico y otros servicios residenciales para mujeres.
2.5. Atsedenerako zerbitzua.	2.5. Servicio de respiro.
2.6. Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua.	2.6. Servicio de coordinación a urgencias sociales.
2.7. Bigarren mailako arretako beste zerbitzu batzuk.	2.7. Otros servicios de atención secundaria.
2.7.1. Informazio- eta orientazio-zerbitzuak.	2.7.1. Servicios de información y orientación.
2.7.1.1. Babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako informazio-zerbitzua.	2.7.1.1. Servicio de información social a la infancia y la adolescencia en situación de desprotección.
2.7.1.2. Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua.	2.7.1.2. Servicio de información y atención a mujeres víctimas de violencia doméstica o por razón de sexo.





2.7.2. Autonomia sostengatzeko zerbitzuak.	2.7.2. Servicios de soporte de la autonomía.
2.7.2.1. Bizimodu independentea sostengatzeko zerbitzua.	2.7.2.1. Servicio de apoyo a la vida independiente.
2.7.2.2. Laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikora egokitzeko zerbitzua.	2.7.2.2. Servicio de ayudas técnicas y adaptación del medio físico.
2.7.2.3. Ezgaitutako pertsona helduentzako tutoretza-zerbitzua.	2.7.2.3. Servicio de tutela para personas adultas incapacitadas.
2.7.2.4. Garraio egokituko zerbitzua.	2.7.2.4. Servicio de transporte adaptado.
2.7.3. Familian esku hartzeko eta bitartekaritza egiteko zerbitzuak.	2.7.3. Servicios de intervención y mediación familiar.
2.7.3.1. Familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak.	2.7.3.1. Servicios de intervención socioeducativa y/o psicosocial con familias.
2.7.3.2. Familiarentzako elkargunea.	2.7.3.2. Punto de encuentro familiar.
2.7.3.3. Familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala.	2.7.3.3. Servicio integral de mediación familiar.
2.7.4. Arreta goiztiarrerako esku hartze sozialeko zerbitzua.	2.7.4. Servicio de intervención social en atención temprana.
2.7.5. Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei, adingabeei, adinduei eta ahalmen-urritasunen bat duten pertsonen laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko zerbitzuak.	2.7.5. Servicios de atención sociojurídica y psicosocial de las situaciones de maltrato doméstico y agresiones sexuales a mujeres, a personas menores de edad, a personas mayores y a personas con discapacidad.
2.7.6. Familia-harrera eta adopzioa sustatzeko eta laguntzeko zerbitzua.	2.7.6. Servicios de promoción y apoyo al acogimiento familiar y la adopción.
2.7.6.1. Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki laguntzeko zerbitzua.	2.7.6.1. Servicio de promoción y apoyo técnico al acogimiento familiar.
2.7.6.2. Adopzioa sustatzeko eta teknikoki laguntzeko zerbitzua.	2.7.6.2. Servicio de promoción y apoyo técnico a la adopción.
3. Prestazio ekonomikoak	3. Prestaciones económicas
3.1. Gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko eta gizarte-larrialdietan erantzuna emateko prestazioak.	3.1. Prestaciones para facilitar la integración social y/o la autonomía así como para cubrir o paliar situaciones de emergencia social.





- 3.2. Beren kasa laguntzen dihardutenei sostengua eta ordaina emateko prestazioak.
- 3.3. Baliabide teknologikoak eskuratzeko laguntzak.
- 3.4. Pertsonen zerbitzuetarako prestazioak.
- 3.5. Beste prestazio ekonomiko batzuk, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuen artean koka daitezkeena.

### **23. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Kartera**

1. Aurreko artikuluan araturik datorren Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogo horretatik abiatuz, Eusko Jaur-laritzak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa osatuko du. Gizarte-zerbitzuen inguruko eskumenak dituen sailaren proposamenez egin beharko du, gainerako euskal herri-administrazioekin koordinaturik, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren bitartez, eta organo hori arautzen duen artikuluan zehazturik dagoen moduan, hau da, lege honetako 44. artikulua araberan hain zuzen ere. Kartera delako horren bidez, gutxienez alderdi hauek definitu beharko dira:
  - 1.1. Zerbitzuen kasuan:
    - a) Zerbitzuaren ezaugarriak: izena eta definizioa, eta zer-nolako laguntza teknikoak taxutzen dituen.
    - b) Zerbitzu motak, mota bat baino gehiago baldin badago.
    - c) Zerbitzuaren helburuak eta zein beharrez erantzuten dien.
    - d) Zerbitzua bera eta, zerbitzuaren baitan hainbat prestazio baldin badago, prestazio horiek jasotzeko baldintzak eta prozedura, eta baita zerbitzu-hartzaileen ezaugarriak eta, beharrezkoa bada, prezio publikoa edo tasa ordaintzeko baldintzak ere.
    - e) Zerbitzua eteteko edo bertan behera uzteko arrazoiak eta proze-

- 3.2. Prestaciones para apoyar y compensar a las personas que ofrecen apoyo social informal.
- 3.3. Prestaciones para la adquisición de prestaciones tecnológicas.
- 3.4. Prestaciones vinculadas a servicios personales.
- 3.5. Otras prestaciones económicas que puedan establecerse en el marco de las finalidades propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

### **Artículo 23. Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales**

1. El Gobierno Vasco, a propuesta del departamento competente en materia de servicios sociales y en el ejercicio de sus competencias de coordinación con las demás administraciones públicas vascas, a través del Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales y en los términos previstos en el artículo 44 regulador de dicho órgano, elaborará, a partir del Catálogo de Prestaciones y Servicios regulado en el artículo anterior, la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, que definirá como mínimo los siguientes aspectos:
  - 1.1. En el caso de los servicios:
    - a) Características del servicio: denominación y definición, determinando las prestaciones técnicas que articula.
    - b) Modalidades del servicio, en su caso.
    - c) Objetivos del servicio y necesidades a las que responde.
    - d) Requisitos y procedimiento de acceso al servicio y, en su caso, a las diferentes prestaciones que articula, incluyendo el perfil de las personas destinatarias del servicio, así como las condiciones de pago del precio público o de la tasa, cuando proceda.
    - e) Causas y procedimiento de suspensión o cese en la prestación





- dura.
- 1.2. Prestazio ekonomikoen kasuan:
- a) Izena eta definizioa.
  - b) Zein helburu duten eta zein premia asetzeko balio duten.
  - c) Laguntzaren zenbatekoa.
  - d) Zerbitzua jaso ahal izateko baldintzak eta prozedura, eta baita zerbitzu-hartzaileen ezaugarriak ere.
  - e) Baldintzak, besteak beste: ordainketa zenbatean behin egingo den.
  - f) Prestazioa bertan behera uzteko arrazoiak.
2. Aurreko paragrafoan aipaturik dagoen Prestazio eta Zerbitzuen Kartera osatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak ere parte hartuko du, kontsulta eta gizarte-partaidetzarako organo nagusia izanik.
3. Prestazio eta Zerbitzuen Kartera horretan egon behar dira zehazturik prestazio eta zerbitzuak finantzatzeko formulak.

#### **24. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Kartera eguneratzea**

1. Lau urtez behin, Eusko Jaurlaritzak, gainerako euskal herri-administrazioekiko koordinazioa egiteko bere eskumenaz baliaturik eta lankidetzan eta Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren ebaluaketaren esparruan, Prestazioen eta Zerbitzuen Karteraren halako ebaluazio orokor bat egin beharko du, nola aplikatu eta garatu den neurtzeko eta gizartearen aldaketetara behar bezain ondo egokitu ote den jakiteko, eta, hala ez bada, egin beharreko eguneratzeak egiteko. Ebaluazio horren baitan, prestazioek eta zerbitzuek emakumeen artean eta gizonen artean zer-nolako eragina duten ere neurtuko da, eta baita generoaren ikuspuntua zenbateraino duten barneraturik ere, hartara, berdintasunaren bidean aurrera egiteko beharrezko egokitzapenak egin ahal izateko, halakorik behar izatekotan. Baina ebaluazio horretan beste ikuspuntu edo helburu batzuk ondo txertaturik ote dauden ere aztertu beharko da, hala nola, dibertsitate sexuala, kultura ezberdinak, belaunaldi ezberdi-

- del servicio.
- 1.2. En el caso de las prestaciones económicas:
- a) Denominación y definición.
  - b) Objetivos y necesidades a las que responden.
  - c) Importe.
  - d) Requisitos y procedimiento de acceso, incluyendo el perfil de las personas destinatarias.
  - e) Condiciones en las que se perciben: periodicidad de los pagos u otras.
  - f) Causas de extinción de la prestación.
2. La Cartera de Prestaciones y Servicios referida en el apartado anterior se elaborará con la participación del Consejo Vasco de Servicios Sociales, como máximo órgano de consulta y participación social.
3. La Cartera de Prestaciones y Servicios deberá establecer las fórmulas de financiación de las diferentes prestaciones y servicios.

#### **Artículo 24. Actualización de la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales**

1. El Gobierno Vasco, en el ejercicio de sus competencias de coordinación con las demás administraciones públicas vascas, realizará, con carácter cuatrienal y en el marco de la evaluación del Plan Estratégico de Servicios Sociales, una evaluación general de la aplicación y desarrollo de la Cartera de Prestaciones y Servicios, al objeto de determinar si se ajusta adecuadamente a los cambios observados en la realidad social y de proceder, en su caso, a la correspondiente actualización. En el marco de dicha evaluación se analizará el impacto de las prestaciones y servicios en mujeres y hombres y el grado de incorporación de la perspectiva de género en los mismos, al objeto de que se realicen, en su caso, las adecuaciones necesarias para garantizar el avance hacia la igualdad. Asimismo, deberá garantizarse en dicha evaluación el análisis del impacto de otras perspectivas, como son la perspectiva de diversidad sexual y las perspectivas intercultural, intergeneracional, accesi-





nak, zerbitzuak denon eskura eduki beharra, eta gizon-emakume guztiontzako moduko diseinua egin beharra.

2. Prestazio eta Zerbitzuen Kartera biztanleriaren beharrian aldakorrei etengabe egokituko dela bermatzearen, eta arretako formulatan ikusitako berrikuntzak sartu eta etengabe eguneratzearen, eskaintako zerbitzu eta prestazioen motak aldatu ahal izango dira, baina aldaketa horiek ezin izango dute ekarri ez arretaren kalitatea gutxitzea ez emandako arretaren mailak jaitea, ez bada eskaintza urritzea zerbitzu edo prestazioaren eskarian izandako jaitziera batetik datorrelako.
3. Prestazio eta Zerbitzuen Kartera Eusko Jaurlaritzak eguneratuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako herri-administrazioekin koordinatuta, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoren bitartez. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak ere esku hartuko du, kontsulta eta gizarte-partaidetzarako organo nagusia izanik.

## 25. artikulua. Zerbitzu eta prestazioak jasotzeko baldintzak

1. Zerbitzu eta prestazioak jasotzeko baldintza orokorrak, kasu guztietan aplika daitezkeenak, honako hauek dira:
  - a) zer edo zer behar duten edo eskatzen duten pertsonak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Karteran kasuan kasurako definiturik dauden ezaugarriak bete beharko dituzte, eta, horretarako, dagokion balorazio-tresna teknikoak erabiliko da;
  - b) prestazioek edo zerbitzuek pertsona hartzailearen beharrei erantzuteko egokiak izan behar dute, eta erreferentziako profesionalak egiaztatu beharko du hala dela, agiri tekniko baten bidez;
  - c) beharrezkoa bada, erreferentziako profesionalak azaldu beharko du ez dagoela erabiltzaileari betiko ingurunea utzarazi beharrik gabe arreta eskaintzeko beste modu egokirik;

bilidad universal y diseño para todos y todas.

2. Al objeto de garantizar el ajuste continuado de la Cartera de Prestaciones y Servicios a las cambiantes necesidades de población y al objeto, asimismo, de favorecer su permanente modernización mediante la incorporación de las innovaciones observadas en las fórmulas de atención, podrán ir modificándose las modalidades de los servicios y prestaciones ofrecidos, sin que dichas variaciones puedan implicar un descenso de calidad de la atención ni una reducción de los niveles de atención prestados, salvo en aquellos supuestos en que las reducciones de cobertura se deriven directamente de un descenso en la demanda del servicio o prestación de que se trate.
3. La actualización de la Cartera de Prestaciones y Servicios se elaborará desde el Gobierno Vasco, en coordinación con las demás administraciones públicas vascas, a través del Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales, así como con la participación del Consejo Vasco de Servicios Sociales, como máximo órgano de consulta y participación social.

## Artículo 25. Requisitos de acceso

1. Los requisitos generales de acceso a los servicios y prestaciones aplicables en todos los casos serán los siguientes:
  - a) ajuste del perfil de las personas que presentan una determinada necesidad o demanda a las características definidas, en cada caso, en la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, acreditado, en su caso, mediante el correspondiente instrumento técnico de valoración;
  - b) idoneidad de la prestación o servicio para responder a las necesidades de la persona destinataria y prescripción técnica del profesional o la profesional de referencia que así lo acredite;
  - c) en su caso, justificación, por el profesional o la profesional de referencia, de la no adecuación de una fórmula de atención más susceptible de garantizar la permanencia de la persona usuaria en su entorno habitual;





- d) Gizarte Zerbitzuaren Maparen arabera, dena delako zerbitzua edo prestazioa derrigor udalerrri edo inguru geografikojakin batean eskaini beharko denez, udalerrri horretan edo inguru horretako edozein udalerritan erroldatu izanaren agiria;
  - e) zerbitzuaren zati bat ordaindu beharra baldin badago, dagokion prezio publikoa edo tasa ordainduko duela adierazi beharko du.
2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Karteran egongo dira definiturik prestazio edo zerbitzu bakoitzerako berariazko eskakizunak.

**26 artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan dauden prestazio eta zerbitzuak aitortzeko prozedura**

1. Prozedura hasi ahal izango du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren estaldura duten egoeretako batean dagoenak, horrek 3. artikuluko titulartasun-baldintzak betetzen baditu, edo haren ordezkariak. Era berean, prozedura hasi ahal izango du eskumena daukan administrazioak, bere kabuz edo epaileak hala eskatuta, indarrean dauden legeek aurreikusitako kasuetan.
2. Erregelamendu bidez arautuko dira bai prozedura motak –prozedura arrunt bat eta presako prozedura bat aurreikusitako beharko dira–, bai eskaerarekin lotutako prozedura-berezitasunak, instrukzioa –balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa bereziki– eta ebazpena. Era berean, prozedurako fase bakoitzean errespetatu beharreko epeen ezaugarriak eta Administrazioaren isiltasunaren ondorioak arautuko dira.

**II. KAPITULUA  
GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN AN-  
TOLAMENDUA**

**27. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema-  
ren antolamendua eta egitura**

1. Sistema taxuz egituraturik eta kohesionaturik egongo dela bermatzearen, eta erantzukizun publikotik batasunari eustearren, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten zerbitzu eta ekipamendu guztiek, publikoak nahiz pribatu

- d) empadronamiento en el municipio o, en su caso, en cualquiera de los municipios de la zona geográfica para la que se haya regulado la provisión obligatoria del servicio o prestación en el Mapa de Servicios Sociales;
- e) compromiso de pago del precio público o de la tasa que corresponda, en el caso de los servicios sujetos a copago.

2. Los requisitos específicos de acceso a cada prestación o servicio se definirán en la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

**Artículo 26. Procedimiento para el reconoci-  
miento de las prestaciones y servicios contenidos en el  
Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema  
Vasco de Servicios Sociales.**

1. El procedimiento se iniciará a instancia de la persona que, cumpliendo con los requisitos de titularidad previstos en el artículo 3, pudiera estar afectada por alguna de las contingencias o situaciones objeto de cobertura en el marco del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, o de quien ostente su representación. Asimismo, el procedimiento podrá iniciarse de oficio por la administración competente o a instancia de la autoridad judicial, en los casos previstos en la legislación vigente.
2. Reglamentariamente se regularán tanto los tipos de procedimiento –debiendo preverse un procedimiento ordinario y un procedimiento de urgencia– como las especificidades procedimentales relativas a la solicitud, la instrucción –en particular, la valoración, el diagnóstico y la orientación– y la resolución. Asimismo, se regularán los aspectos relativos a los plazos que deberán respetarse en las diferentes fases del procedimiento y los efectos del silencio administrativo.

**CAPÍTULO II  
ORGANIZACIÓN DEL SISTEMA VASCO DE SER-  
VICIOS SOCIALES**

**Artículo 27. Organización y estructura del Sistema  
Vasco de Servicios Sociales**

1. Todos los servicios y equipamientos que integran el Sistema Vasco de Servicios Sociales, sean de titularidad pública o privada concertada, actuarán de forma coordinada, con el objeto de garantizar la articulación efectiva y la co-





itunduak izan, koordinaturik jardungo dute.

2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten zerbitzuak honela egituraturik egongo dira:
  - a) Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak, 22.1 artikuluan araututa daudenak. Zerbitzu horiek bide emango diete erabiltzaileei gizarte-zerbitzuen sistema osora iristeko, eta autonomiaren, gizarteratzearen eta larrialdien edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzungo diete, eta batez ere arrisku-egoeren prebentzioari erreparatuko diote. Udalen gizarte-zerbitzuei dagokie zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea, Eusko Jaurlaritzaren esku egongo den telelaguntza zerbitzua izan ezik, III. tituluko I. kapituluan ezarritako eskumen-banaketarekin bat etorrita.
  - b) Bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak, 22.2 artikuluan araututa daudenak. Bazterketaren, mendetasunaren edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzuna emango diete. Foru-aldundien gizarte-zerbitzuei dagokie zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea, eta hala badagokie, Autonomia Erkigoaren eremuko gizarte-zerbitzuei, III. tituluko I. kapituluan ezarritako eskume-banaketarekin bat etorrita.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapan jasotako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ezarpena aintzat hartuko da aurreko paragrafoan aipatutako zerbitzuak emateko eta betetzeko.

## 28. artikulua. Udalen gizarte-zerbitzuak

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan, lege honek eta lege honen garapenerako xedapenek udalen esku uzten dituzten eskumenak haien lurralde-eremuan erabiltzeko ardura udalen gizarte-zerbitzuen izango da.
2. Ardurapean dituzten gizarte-zerbitzuak hobeto eskaintze aldera hala egin behar dutela uste baldin badute, udalek elkarren artean elkarretzeko aukera ere badute. Halakoetan, udalek

hesión del sistema, así como con el fin de asegurar, desde la responsabilidad pública, la unidad del mismo.

2. Los servicios integrados en el Sistema Vasco de Servicios Sociales se estructurarán de la siguiente forma:
  - a) Servicios sociales de atención primaria, regulados en el artículo 22.1, que posibilitarán el acceso de las usuarias y usuarios al conjunto del Sistema de Servicios Sociales y atenderán las necesidades relacionadas con la autonomía, la inclusión social y las situaciones de urgencia o desprotección social, con particular incidencia en la prevención de las situaciones de riesgo. La provisión y prestación de estos servicios se garantizará desde los servicios sociales municipales, con la salvedad del servicio de teleasistencia, que recaerá en el Gobierno Vasco, de acuerdo con la distribución competencial prevista en el capítulo I del título III.
  - b) Servicios sociales de atención secundaria, regulados en el artículo 22.2, que atenderán las necesidades derivadas de las situaciones de exclusión, dependencia o desprotección. La provisión y prestación de estos servicios se garantizará desde los servicios sociales forales y, en su caso, desde los servicios sociales de ámbito autonómico, de acuerdo con la distribución competencial prevista en el capítulo I del título III.
3. La provisión y prestación de los servicios definidos en el apartado anterior se garantizará atendiendo al despliegue del Sistema Vasco de Servicios Sociales previsto en el Mapa de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

## Artículo 28. Servicios sociales municipales

1. Los ayuntamientos, a través de los servicios sociales municipales, serán los responsables de ejercer, en su ámbito territorial, las competencias atribuidas a los ellos por la presente ley y sus disposiciones de desarrollo en el marco del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
2. Cuando lo estimen oportuno para garantizar la mejor prestación de los servicios sociales de su competencia, los ayuntamientos podrán agruparse y encomendar a la entidad organizativa





sortzen duten antolakundearen eskuetan utziko dituzte lege honen bidez jaso behar dituzten eskumenak.

3. Udalen gizarte-zerbitzuek edo, halakorik badago, udalek sortutako antolakundeak eginkizun hauek izango dituzte:

- a) Laguntza teknikoa, eta bereziki:
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak beharren lehen balorazioa egin ondoren, beste diagnostiko sakonago bat egitea.
  - Arreta pertsonalizatuko planaren ekintzak eta esku-hartzeak garatzea.
  - Oinarrizko gizarte-zerbitzuak esku hartzen duen guztietan, beti jarduteko irizpide berberak erabili beharra sustatzea.
  - Kasuak gainbegiratzea, eta profesionalei prestakuntza eta orientabideak ematea.
  - Irizpide teknikoak zehaztea eta beste arreta-sistema edo arreta-politika publiko batzuekiko koordinazio-mahaietan parte hartzea.
- b) Erabilzaileari erantzun osoa eta betea emate aldera, kideko edo osagarriak diren beste sistema edo politika publiko batzuekin koordinatzea, lege honetako 45 eta 46. artikuluetan jarritako moduan.
- c) Lege honen bidez udalen esku uzten diren gainerako eskumenetatik datozen gainerako eginkizunak.

## 29. artikulua. Oinarrizko gizarte zerbitzua

1. Oinarrizko gizarte-zerbitzua arreta-unitate bat da, polibalentea eta diziplina askotarikoa, udalen gizarte-zerbitzuen barruan dago eta herritarrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara iristeko duten lehen sarbidea da.
2. Oinarrizko gizarte-zerbitzuaren zeregin nagusia izango da dagokion lurraldean gizarte-zerbitzuen bidez erantzuteko moduko zer-nolako be-

resultante de dicha agrupación el ejercicio de las competencias que les son atribuidas en la presente ley.

3. Los servicios sociales municipales o, en su caso, la entidad organizativa correspondiente ejercerán las siguientes funciones:

- a) Apoyo técnico, en particular:
- Realización de diagnósticos que requieren mayor profundidad, una vez realizada por el servicio social de base una primera valoración de necesidades.
  - Desarrollo de acciones e intervenciones incorporadas al plan de atención personalizada.
  - Promoción de la aplicación de criterios uniformes de actuación en el conjunto de las intervenciones desarrolladas por el servicio social de base.
  - Supervisión de casos, formación y orientación de profesionales.
  - Establecimiento de criterios técnicos y participación en mesas de coordinación con otros sistemas o políticas públicas de atención.
- b) Coordinación con otros sistemas o políticas públicas afines o complementarias orientadas al bienestar social, en los términos previstos en los artículos 45 y 46 de la presente ley.
- c) El resto de funciones derivadas de las competencias atribuidas a los ayuntamientos en la presente ley.

## Artículo 29. Servicio social de base

1. El servicio social de base se constituye como la unidad polivalente y multidisciplinar de atención integrada en los servicios sociales municipales que actúa como primer punto de acceso de la población al Sistema Vasco de Servicios Sociales.
2. La función principal del servicio social de base será la detección y atención, dentro de su ámbito territorial de actuación, de las necesidades





harrak dauden atzematea eta kargu hartzea. Horretarako, bere ardura izango du, dagokion lurralde horretan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitako atal batera nahiz bestera nork noiz joan behar duen koordinatzea eta kudeatzea.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiek izan behar dute, dela bakoitzak bere kasa edo dela beste udal batzuekin elkar hartuta, oinarrizko gizarte-zerbitzu bat.
4. Oinarrizko gizarte-zerbitzuak zein lurraldetan lan egin behar duen jakiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapan jasota datozen irizpideak erabiliko dira.

Udalerraren edo udalerrri-elkartearen tamainaren arabera, oinarrizko gizarte-zerbitzua oinarrizko gizarte-zerbitzuen unitatetan bana daiteke, hartara, herritarren beharrei hobeto erantzuteko eta dagokion lurralde osoan lan egin ahal izango duela bermatzeko.

5. Oinarrizko gizarte-zerbitzuak agintzen zaizkion lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzeko lanak egingo ditu, baina, edonola ere, 22. artikuluko 1.1, 1.2, 1.3 eta 1.4 paragrafoetan jasota datozenak beti-beti eskaini beharko ditu. 19. artikuluan arauturik dagoen esku hartzeko oinarrizko prozedura bere lurraldean behar bezala aplikatuko dela bermatzeko ardura ere badu.
6. Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eginkizun hauek ere izango ditu:
  - a) Gizarte-premiei erantzuna emateko orduan zer-nolako trakeskeria edo hutsuneak dauden igartzea.
  - b) Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren esparruan, homogeneizatzea eta sistematizazioa lortzeko informazioa osatzea.
  - c) Egin ditzaketan eta berariaz ezartzen zaizkien antzeko beste eginkizun guztiak egitea.

### 30. artikulua. Foru-aldundien gizarte-zerbitzuak

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan, lege honek eta lege honen garapenerako xedapenak foru-aldundien esku uzten dituzten esku-menak haien lurralde-eremuan erabiltzeko ardura foru-aldundien gizarte-zerbitzuena izango

sociales susceptibles de ser atendidas en el ámbito de los servicios sociales, coordinando y gestionando, en su zona geográfica de influencia, el acceso a las diversas instancias del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

3. Todos los ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco deberán disponer, por sí mismos o asociados, de un servicio social de base.
4. El servicio social de base obedecerá, en su implantación geográfica, a los criterios establecidos en el Mapa de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En función del tamaño del municipio o agrupación de municipios, el servicio social de base podrá estructurarse en unidades sociales de base, con el fin de responder con mayor eficacia a las necesidades de la población y garantizar su implantación y su actuación en todo su ámbito geográfico.

5. El servicio social de base desarrollará las funciones de provisión de aquellos servicios sociales de atención primaria que se le encomienden, y, en todo caso, los previstos en los apartados 1.1, 1.2, 1.3 y 1.4 del artículo 22, y en su ámbito garantizará la aplicación del procedimiento básico de intervención regulado en el artículo 19.
6. Asimismo, el servicio social de base desarrollará las siguientes funciones:
  - a) Detectar las disfunciones o déficit que se produzcan en la satisfacción de las necesidades sociales.
  - b) Elaborar información con criterios de homogeneización y sistematización, en el marco del Sistema Vasco de Información sobre Servicios Sociales.
  - c) Cualquier otra función análoga que pueda desarrollar y se le atribuya expresamente.

### Artículo 30. Servicios sociales forales

1. Las diputaciones forales, a través de los servicios sociales forales, serán las responsables de ejercer, en su ámbito territorial, las competencias atribuidas a ellas por la presente ley y sus disposiciones de desarrollo en el marco del Sis-





da.

2. Balorazio eta diagnostikoi espezializatuak egiteko orduan –hori ere beren eginkizunetako bat baitute–, foru-aldundiek elkarren artean koordinaturik aritu beharko dute, eta bai oinarrizko gizarte-zerbitzuari bai ordura arte erabiltzaileari eta/edo haren familiari jarraibideak ematen jardun duen profesionalari ere parte hartzen utzi behar diete, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren parte den edo ez begiratu gabe. Balorazio eta diagnosi berezituak egiteko arduradunek erabakitzen badute beren ardurapeko prestazio edo zerbitzuren baterako sarbidea zabaltzea nahiz ixtea, eta erabakia dagokion administrazio-organoaren bidez hartzen badute, erabaki hori dena delako kasuaren ardua duen profesionalarentzat loteslea izango da.
3. Foru-aldundiek, gizarte-zerbitzuen inguruko bere eskumenak erabiltzeko orduan, gizarte-ongizatea lortu nahian lan egiten duten beste sistema edo politika publiko kideko edo osagarri batzuekin koordinaturik eta elkarlanean jardungo dute, lege honetako 45 eta 46. artikuluetan ezarritako moduan.

### **31. artikulua. Autonomia Erkidegoaren eremuko gizarte-zerbitzuak**

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan lege honek eta lege hau garatzen duten xedapenek esleitzen dizkieten eskumenak erabiltzeko erantzukizuna izango du Eusko Jaurlaritzak, eskumen horiek, Autonomia Erkidegoaren Eremuko Gizarte Zerbitzuen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremu osoan erabiltzeko erantzukizuna, alegia.
2. Eusko Jaurlaritzak, gizarte-zerbitzuen inguruko bere eskumenak erabiltzeko orduan, gizarte-ongizatea lortu nahian lan egiten duten beste sistema edo politika publiko pareko edo osagarri batzuekin koordinaturik eta elkarlanean jardungo du, lege honetako 45 eta 46. artikuluetan ezarritako moduan.

### **32. artikulua. Kudeaketarako langileak eta egitura**

Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogo prestazioak eta zerbitzuak emateko beren eskumenak garatzeko, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek behar dituzten langileak izango dituzte. Horien lanbide-perfila eta ratioa zehazteko, kontuan izango dira jarduteko esparru geografikoa eta esparru

tema Vasco de Servicios Sociales.

2. Para la realización de sus funciones de valoración y diagnóstico especializado, las diputaciones forales deberán coordinarse y contar con la participación tanto del servicio social de base como, en su caso, de la persona profesional que hasta esa fecha haya venido orientando a la persona usuaria y/o su familia, independientemente de si forma parte o no del Sistema Vasco de Servicios Sociales. Las decisiones de las profesionales y los profesionales responsables de las funciones de valoración y diagnóstico especializado, emitidas a través de los órganos administrativos que correspondan, tendrán carácter vinculante para la persona profesional responsable del caso al que hagan referencia cuando las mismas determinen la concesión o la denegación del acceso a una prestación o servicio que de ellos dependa.
3. En el ejercicio de sus competencias en materia de servicios sociales, las diputaciones forales se coordinarán y cooperarán con otros sistemas o políticas públicas afines o complementarias orientadas al bienestar social, en los términos previstos en los artículos 45 y 46 de la presente ley.

### **Artículo 31. Servicios sociales de ámbito autonómico**

1. El Gobierno Vasco, a través de los servicios sociales de ámbito autonómico, será responsable de ejercer, en todo el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, las competencias atribuidas a él por la presente ley y sus disposiciones de desarrollo en el marco del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
2. En el ejercicio de sus competencias en materia de servicios sociales, el Gobierno Vasco se coordinará y cooperará con otros sistemas o políticas públicas afines o complementarias orientadas hacia el bienestar social, en los términos previstos en los artículos 45 y 46 de la presente ley.

### **Artículo 32. Personal y estructura de gestión**

Para el desarrollo de sus competencias de provisión de prestaciones y servicios contenidos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, el Gobierno Vasco, las diputaciones forales y los ayuntamientos contarán con el personal necesario para su funcionamiento, debiendo





horretan gizarte-zerbitzuak eska ditzakeen biztanleria, Gizarte Zerbitzuen Mapan aurreikusitako ezarpen-irizpideekin bat etorriz. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek lege honek esleutako beste eskumenak garatzeko nahikoa den kudeaketa-azpiegitura bat eta beharrezkoak diren ekipo teknikoak izango dituzte.

### III. KAPITULUA

#### GIZARTE-ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN PLANIFIKAZIOA

##### 33. artikulua. Xedapen orokorrak

2. Osaera, araubidea eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztu beharko dira, eta osakera dela-eta, araudi horretan zehaztu beharko da Eusko Jaurlaritzak alde batetik eta beste aldetik foru-aldundiek eta udalek ordezkaritza paritarioa izan behar dutela, eta organoaren lehendakaria, berriz, Eusko Jaurlaritzaren barruan gizarte-zerbitzuen eskumena duen saileko burua izango da. Arau horietan, emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatu beharko da.
3. Funtzionamendu-arauan jasota dituzenez gainera, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak honako eginkizun hauek izango ditu:
  - a) Honako hauei buruzko txostenak egitea, nahitaez: gizarte-zerbitzuei buruzko lege-aurreproiektuei eta xedapen-proiektu orokorrei buruz, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari buruz, autonomia-eremuko plan sektorialeko buruz eta plan bereziei buruz. Halaber, nahitaezko txostenak egin

dos, contratados o, en su caso, convenidos, para la prestación de servicios de competencia municipal.

11. Cuantas otras le atribuyan la presente ley y su normativa de desarrollo.

## CAPÍTULO II COOPERACIÓN Y COORDINACIÓN INTERADMINISTRATIVA

### Artículo 43. Deber de cooperación y coordinación entre las administraciones públicas competentes en el ámbito de los servicios sociales

Las administraciones públicas vascas actuarán de conformidad con el deber de cooperación y coordinación entre sí, necesarias para garantizar la máxima coherencia, unidad, eficacia y eficiencia en el funcionamiento del sistema.

### Artículo 44. Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales

1. A efectos de articular la cooperación y la coordinación interinstitucional entre las administraciones públicas vascas en materia de servicios sociales, y con el fin de garantizar la unidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales, se crea el Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales, adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de servicios sociales.
2. Su composición, régimen y funcionamiento serán establecidos reglamentariamente, debiendo preverse en dicha normativa una representación paritaria entre el Gobierno Vasco por un lado, y, por otro, las diputaciones forales y los ayuntamientos, recayendo la presidencia del órgano en la consejera o consejero del departamento competente en servicios sociales del Gobierno Vasco. En el marco de dicha regulación, deberá promoverse una participación equilibrada de mujeres y hombres.
3. El Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales ejercerá, además de las que se señalen en su norma de funcionamiento, las siguientes funciones:
  - a) Informar, con carácter preceptivo, los anteproyectos de ley y los proyectos de disposiciones de carácter general en materia de servicios sociales, así como el Plan Estratégico de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, los planes sectoriales de ámbito autonómico y los planes especiales. Asi-





beharko du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Karteari buruz. Kartera hori osatzeko eta eguneratzeko hartzen diren erabakietan, nahitaezkoa da Herri Administrazioari dagokion ordezkaritzak aldeko botoa ematea, erabakiak derrigorrik eragingo badu, berdin ordezkaritza hori Autonomia Administrazioak, Foru Administrazioak edo Toki Administrazioak bada ere. Azkenik, nahitaezko txostena egin beharko du, hala balegokio, gizarte-ongizatera zuzendutako beste sistema edo politika publiko batzuekin egin litekeen katalogo eta/edo kartera bateratuei buruz.

- b) Jarduerak bateratzeko, kalitateko kudeaketa eta arreta lortzeko eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema kohesionatzeko balio behar duten estrategia, jarraibide, egitura-osagai eta tresna nagusiak eztabaidatu eta zehaztea; foru- eta toki-araudien eta, kasua bada, arau autonomikoen parametro bateratuak zehaztea, sistemaren batasuna babestearren.
- c) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak beste sistema eta politika publiko batzuekin koordinatzeko foroetan aurkeztu ahal izango dituen estrategia eta proposamen nagusiak eztabaidatu eta zehaztea, bereziki osasun-, hezkuntza- eta justizia-sistemarekin, eta enplegu-, lanbideratze- eta prestakuntza-politikekin, etxebizitza- eta irisgarritasun-politikekin eta diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko eta berdintasunerako politikekin, eta, oro har, esku-hartze sozialeko arlo jakin batzuetan gizarte-zerbitzuekin batera izan daitekeen beste edozein politika publikorekin.
- d) Informazioa jasotzea, gizarte zerbitzuei buruzko foru-xedapenei eta toki-xedapenei buruz, lurralde-arloko eta toki-arloko arlokako planei buruz edo onartzen diren plan bereziei buruz, baita horiek betetzen ote diren jakiteko jarraipen eta ebaluazioari buruz, baita aurrekontuen onespenari buruz eta aurrekontuen gauzatzeari buruz, Administrazio hiru mailetan.

mismo, informar con carácter preceptivo la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, debiendo requerir, los acuerdos que se adopten para el establecimiento y posterior actualización de la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, el voto favorable de la representación del nivel de la administración pública –ya sea autonómica, foral o local– para la que se deriven obligaciones. Por último, informar con carácter preceptivo los catálogos y/o carteras conjuntas de servicios y prestaciones que, en su caso, pudieran establecerse con otros sistemas o políticas públicas orientados a la consecución del bienestar social.

- b) Deliberar y acordar las principales estrategias, directrices, elementos estructurales e instrumentos comunes orientados a la armonización de las actuaciones, la calidad en la gestión y la atención y la cohesión del Sistema Vasco de Servicios Sociales, y acordar los parámetros comunes a las disposiciones reglamentarias forales y locales, así como, en su caso, a la normativa autonómica, al objeto de preservar la unidad del sistema.
- c) Deliberar y acordar las principales estrategias y propuestas que desde el Sistema Vasco de Servicios Sociales podrán presentarse en los foros de coordinación con otros sistemas y políticas públicas, en particular con el sistema de salud, con el sistema educativo, con el sistema judicial, y con las políticas de empleo, inserción laboral y formación, vivienda, accesibilidad, garantía de ingresos e inclusión social, igualdad y, en general, con cualesquiera otras políticas públicas que pudieran confluir con los servicios sociales en áreas concretas de intervención social.
- d) Ser informado de las disposiciones normativas forales y locales en materia de servicios sociales, de los planes sectoriales de ámbito territorial y local o de los planes especiales que aprueben y del seguimiento y evaluación de su cumplimiento, así como de la aprobación de los presupuestos y de la evolución de la ejecución presupuestaria en los tres niveles administrativos.





- e) Estatuko Administrazio Orokorrarekiko lankidetzaren nondik norakoak eztabai-datu eta zehaztea.
4. 2. paragrafoan aipaturik datorren garapen-arau horretan derrigorra da lurralde- edo toki-batzordeak osatzeko bidea ere jasota egotea, aukera modura. Beharrezkoa edo komenigarria dela uste denean osatuko dira, lurralde-esparru jakin bateko behar bereziak aztertzeko, eta behar horiei erantzuteko plangintza-proposamenak egiteko.
  5. Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak bere eginkizunak modu egoki eta eraginkorrean betetzeko behar dituen baliabide pertsonal eta teknikoak izango ditu.

#### **45. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta beste sistema eta politika publiko batzuen arteko lankidetzeta eta koordinazioa**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan gizarte-zerbitzuen inguruko eskumenak dituzten organoek eta beste sistema eta politika publiko batzuetako zerbitzuak eskaintzeko eskumena duten organoek koordinaturik jardun behar dute, eta parametro berberak erabiliz koordinaturik jardun ere; Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoan adostutakoak izango dira parametro horiek, 44. artikuluko 3.c) paragrafoan organo horri esleitutako eginkizunak betetzeko. Sistema eta politika horiek direla-eta, batez ere honako hauek hartuko dira kontuan: osasun-sistema, hezkuntzako, judiziala, enplegu-politikak, lanbideratze- eta prestakuntza-politikak, etxebizitzakoak, irisgarritasunekoak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzekoak, berdintasunekoak, eta, orokorrean, esku-hartze sozialeko arlo jakin batzuetan gizarte-zerbitzuekin batera izan daitekeen beste edozein politika publiko.
2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta gizarte-ongizatea lortzeko lanean diharduten beste sistema eta politika publiko batzuen artean lankidetzeta eta koordinazioa taxutzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-gizarteratze-erakundeak neurri hauek hartuko dituzte:
  - a) Beren baitan lankidetzeta-bideak zabalitzeko ardura hartuko dute, administrazioen arteko lankidetzarako organoak sortuz, edo egokiak iruditzen zaizkien beste formula batzuk erabiliz.
  - b) Elkarrekin jarduteko baliabideak eta protokoloak antolatuko dituzte, eta, behar

- e) Deliberar y acordar los términos de la cooperación con la Administración General del Estado.

4. La normativa de desarrollo a la que se refiere el apartado 2 deberá regular la posibilidad de constituir, siempre que se estime necesario o conveniente, comisiones de ámbito territorial o local con la función de estudiar las necesidades específicas de un determinado ámbito geográfico y de hacer propuestas de planificación para responder a las mismas.
5. El Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales contará con los medios personales y técnicos necesarios al adecuado y eficaz ejercicio de sus funciones.

#### **Artículo 45. Cooperación y coordinación entre el Sistema Vasco de Servicios Sociales y otros sistemas y políticas públicas**

1. Los órganos de las administraciones públicas vascas competentes en materia de servicios sociales deberán coordinar sus actuaciones, bajo parámetros comunes adoptados en el seno del Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales en aplicación de las funciones atribuidas al mismo en el apartado 3.c) del artículo 44, con las de los órganos competentes para la prestación de los servicios que corresponden a otros sistemas y políticas públicas, en particular con el sistema de salud, con el sistema educativo, con el sistema judicial, con las políticas de empleo, inserción laboral y formación, vivienda, accesibilidad, garantía de ingresos e inclusión social, e igualdad, y, en general, con cualesquiera otras políticas públicas que pudieran confluir con los servicios sociales en áreas concretas de la intervención social.
2. A los efectos de articular la cooperación y la coordinación entre el Sistema Vasco de Servicios Sociales y otros sistemas o políticas públicas orientadas a la consecución del bienestar social, las administraciones públicas vascas adoptarán las siguientes medidas:
  - a) Establecerán en su seno cauces formales de cooperación a través de la creación de órganos de cooperación interadministrativa u otras fórmulas que se estimen convenientes.
  - b) Arbitrarán instrumentos y protocolos conjuntos de actuación y, en su caso, conve-





rrezkoa bada, baita lankidetzaz hitzarmenak ere. Baliteke eduki ekonomikoa izatea, edo ez, baina, edonola ere, jarduerak koherenteak izango direla bermatzeko eta baliabideak, informazioa eta ezaguerak arrazoi-legez eta zuzen erabiliko direla bermatzeko balioko dute.

3. Hala egitea komeni dela uste dutenean, gizarte-ongizatea lortzeko sistema edo politika publikoak taxutzeko eskumenak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako organoek zerbitzu- eta prestazio-katalogo eta/edo kartera bateratuak osa ditzakete.

#### **46. artikulua. Eremu soziosanitarioko lankidetzaz eta koordinazioa**

1. Osasun-arazo larriak direla-eta, edo eginkizunen arloko mugak direla-eta, eta/edo gizartetik bazterturik geratzeko arriskua dela-eta, pertsona batzuek behar dituzten zainketek osatzen dute arreta soziosanitaria, osasun-arreta eta gizarte-arreta aldi berean biltzen dituen, koordinatua eta egonkorra, arreta jarraituaren printzipioarekin bat datorrena.
2. Hori dela-eta, ustez, talde batzuek beste batzuek baino gehiago beharko dute arreta soziosanitaria. Hauexek dira: mendetasun-egoeran dauden adinekoak; ezintasunen bat dutenak; buruko gaixotasunak dituztenak eta, bereziki, buru-gaixotasun larriak eta kronikoak dituztenak eta droga-arazoak dituztenak; gaixotasun somatiko kronikoak eta/edo ezintasuna sortzen dutenak dituztenak; ospitaleko alta jaso izanagatik ere oraindik beren buruak zaintzeko nahikoa autonomia ez duten eriondoak; gaixotasun terminalak dituztenak; eta gizartetik bazterturik geratzeko arriskua duten beste talde batzuk, eta, bereziki, arriskuan edo babesik gabe dauden edo jokatze-arazoak dituzten adingabeak, genero-indarkeria jasaten duten emakumeak, edo osasun-arloko eta gizarte-arloko laguntza behar duten immigranteak.
3. Gizarte-arloko eta osasun-arloko lana hobeto koordinatzeko eta bateratzeko, beharra dutenei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzearen, sinergia indartzearen eta baliabideak hobeto erabiltzearen, gizarte-zerbitzuek eta osasun-zerbitzuek, bakoitzak bere aldetik edo elkarrekin, baliabide soziosanitario hutsak eta atal be-

nios de colaboración, con o sin contenido económico, que garanticen la coherencia de las actuaciones y el más racional y eficaz aprovechamiento de los recursos, de la información y de los conocimientos.

3. Cuando lo estimen conveniente, los órganos de las administraciones públicas vascas competentes para la articulación de los sistemas o políticas públicas orientadas a la consecución del bienestar social podrán establecer catálogos y/o carteras conjuntas de servicios y prestaciones.

#### **Artículo 46. Cooperación y coordinación en el ámbito sociosanitario**

1. La atención sociosanitaria comprenderá el conjunto de cuidados destinados a las personas que, por causa de graves problemas de salud o limitaciones funcionales y/o de riesgo de exclusión social, necesitan una atención sanitaria y social simultánea, coordinada y estable, ajustada al principio de continuidad de la atención.
2. A efectos de lo anterior, se considerará que constituyen colectivos particularmente susceptibles de ser atendidos en el marco de la atención sociosanitaria los siguientes: las personas mayores en situación de dependencia; las personas con discapacidad; las personas con problemas de salud mental, en particular las personas con enfermedad mental grave y crónica y las personas con problemas de drogodependencia; las personas con enfermedades somáticas crónicas y/o invalidantes; las personas convalecientes de enfermedades que, aun habiendo sido dadas de alta hospitalaria, todavía no disponen de autonomía suficiente para el autocuidado; las personas con enfermedades terminales; y otros colectivos en riesgo de exclusión, en particular las personas menores de edad en situación o riesgo de desprotección o con problemas de comportamiento, las mujeres víctimas de violencia de género, o la población inmigrante con necesidad de atención sanitaria y social.
3. Para la mejor coordinación e integración del trabajo social y sanitario, buscando un mejor servicio a las personas atendidas y una mayor sinergia y aprovechamiento de recursos, los servicios sociales y los servicios sanitarios, aislada o conjuntamente, podrán constituir dispositivos exclusivamente sociosanitarios, así como unida-





reziki soziosanitarioak sor ditzakete, beste baliabide edo atal zabalago batzuen baitan.

Edonola ere, arreta-zerbitzu bat soziosanitarioa baldin bada hala da eta ez bada ez da, aurreko 1. paragrafoan definiturik dagoen moduan, eta dena delako baliabidearen edo atalaren titularitasuna edonorena delarik ere, edonolako konplexutasun-maila duelarik ere, eta baliabide horri edo atal horri soziosanitario izena jarri dioten edo ez begiratu gabe.

4. Zerbitzu soziosanitarioak gizarte- eta osasun-sistemaren karteretan sartuta dauden prestazioen agregatuak dira, nahiz eta aldi berean, koordinatuki eta egonkorki aplikatuak izan. Hala bada, zein arlotakoak diren, gizarte- edo osasun-arlokoak, horren arabera aplikatuko zaie arlo batean edo bestean indarrean dagoen araudian aurreikusitakoa. Aurrekoari begira, Eusko Jaurlaritzak zehaztuko ditu, 23. artikuluan erregulatutako karteraren esparruan, zein prestazio hartu behar diren gizarte-zerbitzuen eremukotzat, bai prestazio horiek gizarte-zerbitzu baten esparruan ematen direnean, bai osasun-izaerako zerbitzu baten esparruan ematen direnean. Aurreko hori ahaztu gabe, ordea, eta bere esparruan artatuak izan daitezkeen beharizan misto eta konplexuen eboluzioa kontuan izanik, zerbitzu soziosanitarioen kartera bat eratu da, edo arretaren egokitasuna bermatzeko beste formula edo tresna batzuk baliatuko dira.

5. Koordinazio soziosanitarioa, eta, bereziki, arreta personalizatuaren koordinazioa, esku-hartzeko programa edo prozesuen bitartez antolatuko da, eta sistema bietako zerbitzuek parte hartuko dute horietan, artatzeek jarraipena izan dezaten zainduz.

Koordinazio soziosanitarioaren esparruan gizarte-zerbitzuek eduki beharreko jardunaren parametroei dagokienez, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak finkatutako ditu, besteak beste kontu horretan erabakiak hartzeko eginkizuna izendatuta baitauka organo horrek 44.3.c) artikulua araberakoa.

6. Eremu soziosanitarioko lankidetzak eta koordinazioa honako bitarteko hauen bitartez antolatuko da:

a) Autonomia Erkidegoaren mailan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta Osasun Sistemaren arteko koordinazioa eta lankidetzak Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluari egokituko zaio. Kontseilu horren

des espezifiquement soziosanitarias insertas en dispositivos o establecimientos de carácter más amplio.

En todo caso, el carácter soziosanitario de una atención lo da la naturaleza de la misma, tal como se define en el apartado primero, con independencia de la titularidad social o sanitaria del dispositivo o establecimiento en el que se preste, del nivel de complejidad del mismo y de la designación formal soziosanitaria u otra que reciba tal dispositivo o establecimiento.

4. Los servicios soziosanitarios son agregados de prestaciones incluidas en las respectivas Carteras del sistema social y del sanitario, si bien aplicadas de forma simultánea, coordinada y estable, debiendo atenderse a lo previsto en la normativa vigente que resulte aplicable en función de su naturaleza social o sanitaria. Con vistas a lo anterior, el Gobierno Vasco delimitará, en el marco de la Cartera regulada en el artículo 23, aquellas prestaciones que deban considerarse propias del ámbito de los servicios sociales, tanto cuando se presten en el marco de un servicio social como cuando se presten en el marco de un servicio de naturaleza sanitaria. Sin perjuicio de lo anterior, y teniendo en cuenta la evolución de las necesidades mixtas y complejas susceptibles de ser atendidas en su marco, se articulará una Cartera de servicios soziosanitarios u otras fórmulas o instrumentos que garanticen la idoneidad de la atención.

5. La coordinación soziosanitaria, y en particular la coordinación de la atención personalizada, se articulará a través de programas o procesos de intervención en los que tomarán parte servicios de ambos sistemas, velándose por la continuidad de cuidados.

Los parámetros de la actuación de los servicios sociales en el marco de la coordinación soziosanitaria vendrán determinados por los acuerdos adoptados en esa materia en el seno del Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales en aplicación de las funciones atribuidas al mismo en el apartado 3.c) del artículo 44.

6. La cooperación y coordinación en el ámbito soziosanitario se articulará a través de los siguientes cauces:

a) A nivel autonómico, la coordinación y la cooperación entre el Sistema Vasco de Servicios Sociales y el Sistema de Salud recaerá en el Consejo Vasco de Atención Soziosanitaria, cuya finalidad es la orien-





helburua koordinazio soziosanitarioaren arloan politikari, araugintzari, ekonomiarri eta antolakuntzari eta laguntzari dagozkion erabakietan aholku ematea eta erabaki horien jarraipena egitea da.

Kontseilu horren osaera paritarioa izango da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta Euskal Osasun Sistemaren esparruan eskumena duten autonomia-erkidegoko administrazioetako eta udal- eta foru-administrazioetako ordezkariak Kontseilu horren osaera eta funtzionamendua erregulatzeko zuzenduko dira.

- b) Foru- eta udal-administrazioen mailan, koordinazio-bitartekoak izango dira, hala nola lurralde-kontzeju, batzorde eta beste organo bitariko batzuk, eta koordinazio soziosanitarioa sustatzea eta erraztea izango dute xede, bai lehen eta bigarren arretaren mailetan eta lan interdisziplinarietan bai erabiltzaileekin diseinatu beharreko esku-hartzeetarako ibilbideetan.

### III. KAPITULUA KONTSULTARAKO ETA PARTE HARTZERAKO ORGANOA

#### 47. artikulua. Parte-hartzearen bermea

1. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek herritar guztien parte-hartzea erraztuko duten parte hartze bideak izango direla bermatuko dute, eta, bereziki, gizarte-zerbitzuetako eta ekimen pribatuko erakundeetako erabiltzaile eta profesionalak ordezkatzeko dituzten erakundeak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren planifikazioa, funtzionamendua eta ebaluazioa, eta, horretarako, parte hartzeko bitarteko eraginkor eta zuluak izan daitezela bermatuko dute.
2. Parte-hartze hori honako formula hauen bitartez egingo da:
  - a) Kontsultarako eta parte-hartzerako lege honetan aurreikusten diren organoak.
  - b) Parte hartzeko kontseiluak eta erabiltzaileen parte-hartzerako beste bitarteko formal batzuk, gizarte-zerbitzuetako zerbitzuetan eta zentroetan ezarritakoak.
  - c) Herri-administrazioek gai orokor edo berezi jakin batzuetan parte hartzeko antolatzen dituzten prozesuak, gai horiek izan

tación y el seguimiento de las decisiones políticas, normativas, económicas, organizativas y asistenciales en materia de coordinación sociosanitaria.

Su composición será paritaria entre los representantes de las administraciones públicas autonómica, foral y municipal competentes en el marco del Sistema Vasco de Servicios Sociales y los del Sistema Vasco de Salud. Su composición y funcionamiento serán establecidos reglamentariamente.

- b) A nivel foral y municipal existirán cauces de coordinación en forma de consejos territoriales, comisiones u otros órganos de carácter mixto, orientados a promover y facilitar la coordinación sociosanitaria en los niveles de atención primaria y secundaria, así como en el marco del trabajo interdisciplinar y en el diseño de los itinerarios de intervención con las personas usuarias.

### CAPÍTULO III ÓRGANOS CONSULTIVOS Y DE PARTICIPACIÓN

#### Artículo 47. Garantía de participación

1. Las administraciones públicas vascas garantizarán la existencia de cauces de participación efectivos y ágiles, que faciliten la participación del conjunto de la población, y en particular de las organizaciones representativas de personas usuarias y profesionales de los servicios sociales y de las entidades de iniciativa privada, en la planificación, funcionamiento y evaluación del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
2. Esta participación se articulará a través de las siguientes fórmulas:
  - a) Los órganos consultivos y de participación previstos en la presente ley.
  - b) Los consejos de participación u otros cauces formales de participación de las personas usuarias que se establezcan en los servicios y centros de servicios sociales.
  - c) Los procesos participativos sobre cuestiones generales o particulares que decidan organizar las administraciones públicas





dezaketen interes bereziarengatik.

por su especial interés en el ámbito de los servicios sociales.

#### 48. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua kontsultarako eta parte-hartzerako organo nagusia izango da, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailari atxikia, eta, bertan, ordezkaritza paritariora izango dute, alde batetik Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek, eta, bestetik, arloan parte hartzen duten gizarte-eragile guztiek, zehazki, sindikatu-erakundeek, enpresaburuak, elkarteak, erabiltzaileen erakundeak, gizarte-ekintzaren hirugarren sektorekoak eta gizarte-zerbitzuen arloan lan egiten duten profesionalen elkarteak.
2. Kontseilu horren osaera, araubidea eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko da, eta, bertan, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan dadila zaindu beharko da.
3. Funtzionamendu-arauan jasota dituzenez gainera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak honako eginkizun hauek izango ditu:
  - a) Honako hauei buruzko txostenak egitea, nahitaez: lege-aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzuen eta Prestazioen Kartera barne. Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa, autonomia-erkidegoa eremu duten plan sektorialak eta plan bereziak. Halaber, nahitaezko txostena egin beharko du, 45.3 eta 46.4 artikuluetan ezarritako moduan, gizarte-ongi-zaterra zuzendutako beste sistema edo politika publiko batzuekin egin litezkeen katalogo eta/edo kartera bateratuei buruz.
  - b) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek beren plan orokorrak, sektorialak eta bereziak nola betetzen diren ebaluatu eta horien jarraipena egin behar dute, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluari eman horren berri; era berean, gizarte-zerbitzuei eragiten dieten xedapenen aplikazioaren berri eman behar diote.
  - c) Gizarte-zerbitzuen ekintzaren gaineko

#### Artículo 48. Consejo Vasco de Servicios Sociales

1. El Consejo Vasco de Servicios Sociales se constituye como el máximo órgano de carácter consultivo y de participación adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de servicios sociales, en el que estarán representados de forma paritaria el Gobierno Vasco, las diputaciones forales y los ayuntamientos, por un lado, y, por otro, el conjunto de los agentes sociales que intervienen en el sector, en concreto las organizaciones sindicales, las organizaciones empresariales, las de personas usuarias, las del tercer sector de acción social y las de profesionales que trabajen en el campo de los servicios sociales.
2. Su composición, régimen y funcionamiento se determinarán reglamentariamente, debiendo velar dicha normativa por alcanzar una representación equilibrada de mujeres y hombres.
3. El Consejo Vasco de Servicios Sociales ejercerá, además de las que se señalen en su norma de funcionamiento, las siguientes funciones:
  - a) Informar, con carácter preceptivo, los anteproyectos de ley y los proyectos de disposiciones de carácter general, incluida la Cartera de Servicios y Prestaciones del Sistema Vasco de Servicios Sociales, así como el Plan Estratégico de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, los planes sectoriales de ámbito autonómico, y los planes especiales. Asimismo, informar con carácter preceptivo los catálogos y/o carteras conjuntas de servicios y prestaciones que, en los términos previstos en los artículos 45.3 y 46.4, pudieran establecerse con otros sistemas o políticas públicas orientados a la consecución del bienestar social.
  - b) Ser informado por el conjunto de las administraciones públicas vascas del seguimiento y evaluación del cumplimiento de los planes generales, sectoriales o especiales que aprueben, así como de la aplicación de las disposiciones normativas que afecten a los servicios sociales.
  - c) Aportar y recibir sugerencias, propuestas





edozein gairi buruzko iradokizun, proposamen eta ekimenak egin eta jasotzea.

- d) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hobetzeko gomendioak egitea, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren esparruan jasotako datuak oinarritzat hartuta egingo den urteroko txosten baten kariaz.

4. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren barruan gizarte-zerbitzuen kontseilu sektorialak sortu ahal izango dira; kontsultarako eta parte-hartzerako izango dira, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erabiltzaileen eta profesionalen beharizan berezien arabera zehaztuko da zein arlotan jardungo diren. Arlokako kontseilu horiek aintzat hartu ahal izango dituzte beren eginkizuna betetzeko egoki iruditzen zaizkien txosten eta ikerketa guztiak, bai eta, bereziki, erabiltzaileen ordezkari-erakundeek eta gizarte-ekintzaren hirugarren sektorekoekin dako proposamenak ere. Nolanahi ere, beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk sortzea eragotzi gabe, nahitaez eratu beharko dira arlo hauetako kontseiluak: adinduak, haurrak, ezinduak eta gizarteratzea. Orobat, gizarte-zerbitzuen arloko enpleguaren kalitatetarako eta preskakuntzaren eta kualifikazioaren hobekuntzarako kontseilu bat ere sortu beharko da.

Kontseilu sektorialen eginkizunak, osaera eta funtzionamendu-araubidea kontseiluok sortzeko xedapenetan ezarriko dira; xedapen horiek gizonezkoen eta emakumezkoen ordezkari-erakundea izan dadin zaindu beharko dute.

#### **49. artikulua. Gizarte-zerbitzuen lurralde-kontseiluak eta toki-kontseiluak**

1. Foru-aldundiek eta udalek, bakoitzak bere lurraldearen eremuan, eta beren kasa edo beste batzuekin elkar hartuta, autoantolaketa-ahalmenez dihardutela, gizarte-zerbitzuen kontseilua eratuko dituzte, nork bere eskumen-eremuko gizarte-zerbitzuei buruzko kontsultarako eta parte-hartzerako organo gisa.
2. Kontseilu horien osaerak gizarte-zerbitzuen eremuan esku hartzen duten gizarte-eragileen parte hartzea bermatu beharko du, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako herri-administrazioena ere, kasu bakoitzean dagokionarena. Halaber, gizonezkoen eta emakumezkoen artean ordezkari-erakundea izan dadin zaindu

e iniciativas sobre cualquier materia relativa a la acción de los servicios sociales.

- d) Emitir recomendaciones para la mejora del Sistema Vasco de Servicios Sociales, en el marco de un informe anual elaborado sobre la base de los datos recogidos en el marco del Sistema Vasco de Información sobre Servicios Sociales.

4. En el seno del Consejo Vasco de Servicios Sociales podrán crearse consejos sectoriales de servicios sociales, de carácter consultivo y participativo, que desarrollarán su actividad en ámbitos materiales determinados por las necesidades específicas de las personas usuarias del Sistema Vasco de Servicios sociales y de sus profesionales. Estos consejos sectoriales podrán tomar en consideración todos los informes e investigaciones que estimen oportunos para la realización de su cometido, así como las propuestas procedentes, en particular, de las entidades representativas de las personas usuarias y las del tercer sector de acción social. En todo caso, y sin perjuicio de que se creen otros que se estimen necesarios, deberán constituirse necesariamente consejos sectoriales de mayores, infancia, discapacidad e inclusión, así como un consejo sectorial orientado a la calidad en el empleo y a la mejora de la formación y la cualificación en el ámbito de los servicios sociales.

Las funciones, composición y régimen de funcionamiento de los consejos sectoriales se establecerán en sus disposiciones de creación, debiendo velar dicha normativa por alcanzar una representación equilibrada de mujeres y hombres.

#### **Artículo 49. Consejos territoriales y consejos locales de servicios sociales**

1. Las diputaciones forales y los ayuntamientos, por sí mismos o asociados, en el ejercicio de su capacidad de autoorganización, determinarán la constitución, en su caso, de consejos de servicios sociales, como órganos de carácter consultivo y de participación en relación con los servicios sociales dentro del ámbito competencial respectivo.
2. La composición de estos consejos garantizará la participación de los agentes sociales que interviene en el ámbito de los servicios sociales, así como la representación del resto de las administraciones públicas vascas que en cada caso, correspondan. Asimismo, se velará por alcanzar una representación equilibrada de mujeres y





beharko da.

3. Gizarte-zerbitzuen lurralde-konseiluen eta tokiko konseiluen barruan, Gizarte-zerbitzuen konseilu sektorialak eratu ahal izango dira, kontsultarako eta parte-hartzerako organo gisa, eta arlo jakin batean gauzatzeko dute beren jarduera.

Konseilu sektorialen eginkizunak, osaera eta funtzionamendu-araubidea beren sorreraxedapenetan ezarriko dira.

#### IV. KAPITULUA GIZARTE ZERBITZUEN ERREGISTROAK

##### 50. artikulua. Gizarte-zerbitzuen erregistroak

1. Gizarte-zerbitzuen antolamendu egokia eta baliabide guztien ezagutza eguneratua bermatze aldera, erakunde publiko eta pribatu guztiak, eta horien mendeko zerbitzu eta zentro guztiak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemakoak izan edo ez, erregistratu egin beharko dira.
2. Egitura, antolamendua eta erregistro-prozedura erregelamendu bidez zehaztuko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako moduan.

##### 51. artikulua. Gizarte-zerbitzuen erregistro motak

1. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte-zerbitzuen erregistro hauek izango dira:
  - a) Gizarte Zerbitzuen Erregistro Orokorra, Autonomia Erkidegoaren eremukoa, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen arloko eskumena duen sailari atxikia; hor, Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzarekin zerikusia duten erakunde, zerbitzu eta zentro guztiak inskribatuko dira. Erregistro horretan, foru-erregistroek egiten dituzten inskripzioak idatziko dira, bai eta gehitu ere, informazioa emate aldera. Hain zuzen ere, foru-erregistroek Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen arloko eskumena duen sailari emango diote berek egiten dituzten inskripzioen berri.
  - b) Foru-aldundiek, nork bere lurralde historikoan, gizarte-zerbitzuen foru-erregis-

hombres.

3. En el seno de los consejos territoriales y locales de servicios sociales podrán crearse consejos sectoriales de servicios sociales, de carácter consultivo y participativo, que desarrollarán su actividad en un ámbito material específico.

Las funciones, composición y régimen de funcionamiento de los consejos sectoriales se establecerán en sus disposiciones de creación.

#### CAPÍTULO IV REGISTROS DE SERVICIOS SOCIALES

##### Artículo 50. Registros de servicios sociales

1. Con el fin de garantizar la adecuada ordenación de los servicios sociales y el conocimiento actualizado del conjunto de recursos existentes, todas las entidades públicas y privadas y todos los servicios y centros dependientes de las mismas, formen parte o no del Sistema Vasco de Servicios Sociales, deberán ser objeto de registro.
2. La estructura, la organización y el procedimiento registral se determinarán reglamentariamente, en los términos de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, cuando así proceda.

##### Artículo 51. Tipos de registros de servicios sociales

1. En el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco existirán los siguientes registros de servicios sociales:
  - a) El Registro General de Servicios Sociales, de ámbito autonómico, adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de servicios sociales, en el que se inscribirán todas las entidades, servicios y centros vinculados a la acción directa del Gobierno. Este registro incluirá, además, la anotación y agregación, a efectos informativos, de las inscripciones que realicen los registros forales y que éstos deberán remitir al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de servicios sociales.
  - b) Los registros forales de servicios sociales, que las diputaciones forales crearán en





troak sortuko dituzte, eta, bertan, beren titulartasuneko erakunde, zerbitzu eta zentro guztiak inskribatuko dituzte, bai eta beren titulartasunekoak ez diren beste batzuk ere, beren eskumeneko lurralde-eremuan jarduten diren titulartasun publiko edo pribatuko erakunde, zerbitzu eta zentroak, alegia.

Gizarte Zerbitzuen Erregistro Orokorra etengabe eguneratzen dela eta erregistro horretako datuen eta foru-erregistroetan bildutakoan artean koherentzia dagoela bermatze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek bermatu behar dute batetik bestera irauli beharreko datuak berehala iraultzeko eta erregistroak aldi berean eguneratzeko behar diren tresna informatiko egokiak prestatu eta aplikatuko direla.

2. Erregistro horiek sortu eta horien mantentze-lana egiteko, datu pertsonalak babesteari dago-kion arloan unean-unean indarrean dagoen araudian aurreikusitakoari jarraitu beharko zaio.

#### **52. artikulua. Gizarte-zerbitzuetako erakunde eta zentrozen erregistroen izaera eta eginkizunak**

1. Erregistroak tresna publikoak izango dira, eta, haitara irispidea izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legean, azaroaren 26koan, ezarritako zehaztasun eta baldintzak bete beharko dira.
2. Datuen ezaupide eta publikitatea ziurtatzeko tresnak dira, eta, hala direnez, honako eginkizun hauek bete beharko dituzte:
  - a) Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuen arloan jarduten diren erakunde, zerbitzu eta zentroak zeintzuk diren jakiteko modua ematea, eta, orobat, erakunde, zerbitzu eta zentro horiek Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin duten harremana jakiteko modua; horretarako, lege honetan arautzen diren itun-araubidearen barruan sartzen diren itunen datuak idatziko dira bertan, bai eta, hala balegokio, bestelako hitzarmenak; orobat idatziko dira Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan sartzen diren zerbitzuen kudeaketarako kontratuak eta hitzarmenak.
  - b) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-

sus respectivos territorios históricos, en los que se inscribirán todas las entidades, servicios y centros de su titularidad así como aquellos otros de titularidad pública o privada que actúen dentro de su ámbito territorial de competencia.

A los efectos de garantizar la actualización permanente del Registro General de Servicios Sociales y la coherencia de los datos contenidos en el mismo con los contenidos en los registros forales, las administraciones públicas vascas garantizarán el diseño y la aplicación de instrumentos informáticos que garanticen la inmediatez del volcado de datos, posibilitando así la actualización simultánea de los mencionados registros.

2. En la creación y mantenimiento de estos registros se estará, en todo caso, a lo previsto en la normativa vigente en cada momento en materia de protección de datos de carácter personal.

#### **Artículo 52. Naturaleza y funciones de los registros de entidades y centros de servicios sociales**

1. Los registros se configuran como instrumentos de naturaleza pública, y el acceso a los mismos deberá ejercerse en los términos y condiciones establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.
2. Son instrumentos de conocimiento y publicidad, y en calidad de tal, tendrán las siguientes funciones:
  - a) Proporcionar un conocimiento exacto de las entidades, servicios y centros que actúan en el ámbito de los servicios sociales dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como, en su caso, de su relación con las administraciones públicas vascas, mediante la anotación tanto de los conciertos que se enmarquen en el régimen de conciertos regulado en la presente ley como de los convenios y los contratos para la gestión de servicios incluidos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios.
  - b) Ser instrumento de publicidad de los ser-





eremuan jarduten diren gizarte-zerbitzuen publikizateterako tresna izatea.

vicios sociales que actúan en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

### 53. artikulua. Erregistroko inskripzioa

1. Zentroak eta zerbitzuak titulartasun publikokoak direnean, herri-administrazioek inskribatuko dituzte beren kasa horiei buruzko datuak; orobat aldeaz aurreko administrazio-baimena lortu duten titulartasun pribatuko zentro eta zerbitzuena, eta horien titular diren erakundeena.

Gizarte-zerbitzuetako erakunde pribatuen kasuan, zerbitzuen edo zentroyen titular ez direnean, interesatuak eskatuta egingo da inskripzioa, eta, horretarako, titularraren edo legezko ordezkariaren eskaera beharko da aldeaz aurretik.

2. Erregistroko inskripzio horrek inskribatutako datuen publikitatea eragingo du, inskripzioa egiteko ebazpena onartzen den egunetik aurrerako balioarekin.
3. Inskripzioak ez du eraketa-baliorik izango, ez eta erregistratutako erakundeen mendeko zentroyei edo zerbitzuei baimena ematekoa ere, eta ez die interesatuei inolako eskubiderik emango, inskripzio horren kausa diren egintzak eta datuak bertan jasota daudelako frogatuta izan ezik.
4. Erregistroko inskripzioa behar-beharrezko eta aldeaz aurreko baldintza izango da erakunde, zerbitzu edo zentro bat diru-laguntzen eta bestelako laguntzen araubideaz baliatu ahal izateko, eta, hala balegokio, erakunde, zerbitzu edo zentro horiekin itunak edo hitzarmenak egiteko edo horiek kontratatzeke, betiere, aldeaz aurretik homologazioa lortzen badute.
5. Gizarte-zerbitzuen erregistroan inskribatutako erakundeek urte urte eguneratu beharko dituzte beren datuak eta beren titulartasuneko zerbitzuei eta zentroyei dagozkienak; bereziki aipatu beharko dituzte, hala balegokio, Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuak emateko Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin gauzatutako itunak, kontratuak eta hitzarmenak, erregistroa etengabe eguneratzen dela bermatzearen eta, hala, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemari datuen datuak eguneratzearen.

### Artículo 53. Inscripción registral

1. La inscripción registral se realizará de oficio en el caso de todos los centros y servicios de titularidad pública, y en el de los de titularidad privada que previamente hayan obtenido la autorización administrativa, así como en el de las entidades titulares de los mismos.

La inscripción se realizará a instancia de parte interesada, previa solicitud de la persona titular o representante legal, cuando se trate de entidades privadas de servicios sociales que no sean titulares de servicios o centros.

2. La inscripción registral producirá el efecto de la publicidad de los datos consignados desde la fecha de la resolución que la acuerde.
3. La inscripción no tendrá efectos constitutivos ni de autorización de los centros o servicios dependientes de las entidades registradas, y no conferirá a las personas interesadas más derechos que la constancia de los actos y datos de los que trae causa.
4. La inscripción registral será condición previa necesaria para que una entidad, servicio o centro pueda acceder al régimen de subvenciones y ayudas de las administraciones públicas vascas y, en su caso, a la concertación, contratación o convenio con las mismas, previa su homologación.
5. Las entidades inscritas en los registros de servicios sociales deberán actualizar anualmente sus propios datos y los relativos a los servicios y centros de su titularidad, con especial mención, en su caso, de los conciertos, de los contratos y de los convenios establecidos con las administraciones públicas vascas para la prestación de servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios, a efectos de garantizar la permanente actualización del registro y la consecuente actualización de los datos contenidos en el Sistema Vasco de Información sobre Servicios Sociales.





#### IV. TITULUA GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN FI- NANTZIAZIOA

##### 54. artikulua. Finantziazio-iturriak

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, honako hauen kontura finantzatzeko da:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura.
- b) Lurralde historikoetako Aurrekontu Orokorren kontura.
- c) Udalen aurrekontuen kontura.
- d) Erabiltzaileek ordaindutako prezio publikoen edo tasen kontura.
- e) Ordenamendu juridikoan babestuta, horretarako bideratzen beste den edozein diru-ekarpenen kontura.

##### 55. artikulua. Aurrekontuko diru-izendapenak

1. Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek, urtero, lege honetan eta lege honen garapeneko xedapenetan egozten zaizkien eskumenak egikaritzetik ondorioztatzen diren gastuei aurre egitera bideratutako diru kopuru nahikoak izendatuko dituzte bakoitzak bere aurrekontuetan, haien artean ezar ditzaketen finantza-lankidetzarako formulei kalte egin gabe.
2. Aurreko paragrafoan aipatutako aurrekontu-izendapenak, betiere, bai Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan jasotako prestazio eta zerbitzuak emateari dagokionez, bai maila administratibo bakoitzari izendatutako gainerako eginkizunei dagokienez egingo dira.

##### 56. artikulua. Administrazioen arteko finantza-lankidetzako formulak

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari dagozkion prestazio tekniko, ekonomiko eta teknologikoak 54. artikuluan aurreikusitako aurrekontu-izendapenen eta gainerako finantzaketa-iturrien kontura finantzatzeko dira.
2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari dagozkion prestazioak, beste sistema batzuen esparruan hornituak badira, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta udaletako sailek finantzatzeko dute,

#### TÍTULO IV FINANCIACIÓN DEL SISTEMA VASCO DE SERVICIOS SOCIALES

##### Artículo 54. Fuentes de financiación

El Sistema Vasco de Servicios Sociales se financiará con cargo a:

- a) Los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- b) Los presupuestos generales de los territorios históricos.
- c) Los presupuestos de los ayuntamientos.
- d) Los precios públicos o las tasas abonados por las personas usuarias.
- e) Cualquier otra aportación económica que, amparada en el ordenamiento jurídico, vaya destinada a tal fin.

##### Artículo 55. Consignaciones presupuestarias

1. El Gobierno Vasco, las diputaciones forales y los ayuntamientos consignarán anualmente en sus respectivos presupuestos cantidades suficientes destinadas a hacer frente a los gastos que se deriven del ejercicio de las competencias que se les atribuyen en la presente ley y en sus disposiciones de desarrollo, sin perjuicio de que también puedan establecer entre sí fórmulas de colaboración financiera.
2. Las consignaciones presupuestarias referidas en el apartado anterior se harán tanto en relación con la provisión de prestaciones y servicios contenidos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales como en relación con el resto de las funciones asignadas a cada nivel administrativo.

##### Artículo 56. Fórmulas de colaboración financiera entre las administraciones

1. Las prestaciones técnicas, económicas y tecnológicas propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales serán financiadas con cargo a las consignaciones presupuestarias y demás fuentes de financiación previstas en el artículo 54.
2. Las prestaciones propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales provistas en el marco de otros sistemas serán financiadas por los departamentos del Gobierno Vasco, de las diputaciones forales y de los ayuntamientos que sean compe-





bakoitzak bere eskumenen eremuan.

3. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari dagozkion prestazioen izendapena ez duten prestazio teknikoek, 14.5 artikuluan arautzen diren baldintzetan, zerbitzu horrek hornituko ditu, Katalo-goan sartutako zerbitzuen esparruan eskaintzen direnean. Aurrekoa gorabehera, zerbitzu horien finantzaketa beste sistema publikoei egokituko zaie –prestazio horiei dagozkien sistemei, hain zuzen ere–, bai eta, sistema horietan hala aurreikusten bada, erabiltzaileari ere; hori dela eta, administrazio eskudunek argituz joan beharko dute arian-arian zeintzuk diren beren finantzaketa-erantzukizunak eskumena duten prestazioetan.

Eremu soziosanitarioan eskaintzen den arretaren kasuan, zerbitzu soil-soilik soziosanitarioen, unitate berariaz soziosanitarioen eta arreta soziosanitario orokorraren finantzaketa batera egin ahal izango da eraginpeko administrazio publiko guztien artean, horretarako adosten dituzten hitzarmenen bitartez. Aldiz, administrazio horiek bidezko diren konpentsazio ekonomikoko formulatara atxiki ahal izango dira, osasun-sistematik gizarte-zerbitzuen zerbitzura, edo alderantziz, baldin eta haietako baten eskumene-koak diren zerbitzuak, askotariko kausak direla-eta, bati atxikitako zerbitzuetan eskaintzen ba-dira.

4. Pisuetan edo etxebizitza arruntetan egoitza-alternatibak instalatzeko, foru-aldundiek eta udalek edo udal-elkartek babes ofizialeko etxebizitzaren erreserba eskuratu ahal izango dute. Etxebizitzaren arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren zuzeneko promozioetan eta udalen promozioetan eta administrazio horiek ezartzen dituzten baldintzetan, erakunde publikoetarako besterentzera bideratzen diren babes ofizialeko etxebizitzaren erreserba hori eskuratu ahal izango dute erakunde horiek, beren eskumenari dagozkion gizarte-zerbitzuetako ekipamenduak sortzeko.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek elkarren artean eta beste erakunde publiko batzuekin duten lankidetzak, aurreko para-grafoetan aurreikusia, lankidetzako hitzarmenen edo indarreko legerian araututako edozein formularen bidez gauzatu da, zer eta lankidetzak hori izarian egiteko, ezarrita dauden helburuak betetzera egokitzeko eta kasu bakoitzean bidezko irizten diren finantza-kontrolleko neurrietara atxikitzeko.

tentes en materia de servicios sociales, en el ámbito de sus respectivas competencias.

3. Las prestaciones técnicas que no tengan la consideración de prestaciones propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales, en los términos regulados en el artículo 14.5, serán provistas por el mismo cuando se presten en el marco de los servicios incluidos en el catálogo. No obstante lo anterior, su financiación corresponderá a los sistemas públicos de los que sean propias dichas prestaciones y, si así se previera en dichos sistemas, a la persona usuaria; a tales efectos, las administraciones competentes deberán avanzar en la clarificación progresiva de sus responsabilidades de financiación de las prestaciones de las que son competentes.

En el caso de la atención prestada en el ámbito sociosanitario, la financiación de los dispositivos exclusivamente sociosanitarios, de las unidades específicamente sociosanitarias y de la atención sociosanitaria general podrá realizarse conjuntamente entre las administraciones públicas concernidas mediante los convenios que acuerden a tal fin, acogiendo, en cambio, a las fórmulas de compensación económica que procedan desde el sistema sanitario hacia el de servicios sociales, o a la inversa, en caso de que los servicios que sean competencia de uno de ellos se presten por motivos diversos en dispositivos adscritos al otro.

4. Para la instalación de alternativas residenciales en pisos o viviendas ordinarias, las diputaciones forales y los ayuntamientos o agrupaciones de ayuntamientos podrán acceder a la reserva de viviendas de protección oficial que, en las promociones directas del departamento del Gobierno Vasco competente en materia de vivienda y en las promociones de los ayuntamientos, y en las condiciones que estas administraciones establezcan, se destinen a enajenación a las entidades públicas para la creación de equipamientos de servicios sociales propios de su competencia.
5. La colaboración de las administraciones públicas vascas entre sí y con otras entidades públicas, prevista en los apartados anteriores, se instrumentará a través de convenios de colaboración o cualquiera de las fórmulas reguladas en la legislación vigente, al objeto de dimensionarla, de condicionarla al cumplimiento de los objetivos establecidos y de sujetarla a las medidas de control financiero que se estimen pertinentes en cada caso.





### 57. artikulua. Erabiltzaileen parte-hartze ekonomikoa

1. 21 eta 22. artikuluetan zehaztutako katalogoan sartzen diren zerbitzuak bi eratakoak izango dira: doakoak edo kasuan kasuko prezio publikoa edo tasa ordaintzera atxikiak. Bi kasuetan, zerbitzu horietara iristeko modua berariazko eskakizunak ezarriz arautuko da. Zerbitzuetarako irispidea bermatuta geratuko da kasu bakoitzean aplikagarri diren eskakizunak betetzen dituzten pertsona guztientzat, eta, inola ere, ez daitezke baztertuta geratu kausa ekonomikoen-gatik.
2. Erabiltzaileek ez dute, inola ere, parte hartuko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karteraren esparruan doakotzat araututako zerbitzu eta prestazioen finantzaketan, alde batera utzita nolakoa den zerbitzua eta zerbitzu hori zein esparrutan eskaintzen den.

Era berean, erabiltzaileek ez dute, inola ere, parte hartuko Euskal Osasun Sistema Publikoaren Prestazio eta Zerbitzuen Karteraren esparruan doakotzat araututako zerbitzu eta prestazioen finantzaketan, alde batera utzita nolakoa den zerbitzua edo zentroa eta zerbitzu hori zein esparrutan eskaintzen den, ez eta, hala gertatuko balitz, 45.3 eta 46.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrita, katalogo eta/edo kartera bateratuen esparruan doakotzat araututako zerbitzuen finantzaketan ere.

3. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karteran barneratutako prestazio eta zerbitzuen finantzaketan, doakotzat zehaztuta ez daudenetan, erabiltzaileek izango duten parte-hartzea, berriz, kasuan kasuko prezio publikoa edo tasa zehaztearen bitartez egingo da, lege honetan eta lege honen garapeneko xedapenetan Euskal Autonomia Erkidego osorako ezartzen diren irizpideen arabera. Betiere, prezio publikoa zehaztean, honako hauek hartuko dira kontuan:
  - a) Prestazioaren eta zerbitzuaren mota eta kostua.
  - b) Erabiltzaileen baliatze-mailak.
4. Erabiltzaileen parte-hartzea –eta, behar izanez gero, haiei laguntza eskaintzeko legez behartuta dauden pertsonen parte-hartzea– zehazteko as-

### Artículo 57. Participación económica de las personas usuarias

1. Los servicios incluidos en el catálogo definido en los artículos 21 y 22 podrán ser gratuitos o quedar sujetos al pago del precio público o de la tasa correspondiente; en ambos supuestos, el acceso a los mismos se regulará a través del establecimiento de requisitos específicos. El acceso a los servicios quedará garantizado a todas las personas que reúnan los requisitos aplicables en cada caso, sin que en ningún caso puedan quedar excluidas por razones económicas.
2. Las personas usuarias en ningún caso participarán en la financiación de los servicios y prestaciones regulados como gratuitos en el marco de la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, independientemente del carácter que tenga el servicio en cuyo marco se presten.

Tampoco participarán en ningún caso en la financiación de los servicios y prestaciones regulados como gratuitos en el marco de la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Sanitario Público Vasco, independientemente del carácter que tenga el servicio o centro en cuyo marco se presten, ni en la financiación de los servicios regulados como gratuitos en el marco de los catálogos y/o carteras conjuntas de servicios y prestaciones que, en su caso, pudieran establecerse, de conformidad con lo previsto en los artículos 45.3 y 46.4.

3. La participación de las personas usuarias en la financiación de las prestaciones y servicios integrados en la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales no definidos como gratuitos se realizará mediante la determinación de los correspondientes precios públicos o las correspondientes tasas, de acuerdo con los criterios que se establezcan para el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco en la presente ley y sus disposiciones de desarrollo. En todo caso, en la determinación del precio público se tendrá en cuenta:
  - a) El tipo y coste de la prestación y el servicio.
  - b) Los diferentes grados de utilización posibles por parte de las personas usuarias.
4. Con el fin de determinar la participación de las personas usuarias en el pago del precio público, se ponderarán en todo caso los siguientes





moz, prestazio eta zerbitzuen finantzaketan, honako faktore hauek neurtuko dira beti:

- a) Erabiltzailearen diru-sarrerak. Erregelamenduz zehaztuko dira baliabide horiek, eta progresibotasun-irizpideen arabera baloratuko. Nolanahi ere, baloraziotik kanpo geldituko da ohiko bizileku duen etxebizitza edo ostatua, salbu eta balio aparta duen etxebizitza denean. Halako kasuetan, etxebizitzaren balio aparta Eusko Jaurlaritzak zehaztuko du erregelamendu bidez, Euskal Autonomia Erkidegoak unean-unean duen egoera ekonomiko eta soziala kontuan izanda.
- b) Baliabide ekonomikoak zenbatzeko, kasu hauetan izango da kontuan bizikidetzako familia-unitatea: familia-unitateko kideak ekonomikoki zerbitzuaren zuzeneko onuradunaren mende daudenean, eta zerbitzuaren zuzeneko onuraduna adingabea denean; kasu horietan bakarrik.

5. Zerbitzuak ordaintzera behartuta daudenean, baldin eta kasuan kasuko prezio publikoa edo tasa osorik ordaintzeko nahikoa baliabide ekonomiko ez daukatela egiaztatzen badute, salbu-espenean eta haborokinak izango dituzte.

6. Behartuta egongo dira prezio publikoa ordaintzera, edo 5. paragrafoan aipatutako hobariak aplikatu ondoren dagokion diru-kopurua ordaintzera, zerbitzuan sarrera duten pertsona fisikoak eta, adin txikikoen kasuan, guraso-ahala edo tutoretza dutenak.

Era berean, behartuta egongo dira ordaintzera, erregelamendu bidez finkatzen diren zehaztapenekin, ondare-eskualdaketa baten edo batzuen onuradun izan diren pertsonak ere, baldin eta erabiltzaileek eskualdaketa horiek dohainik eta zerbitzuan sartzea eskatu aurreko bost urteetan egin badituzte

7. Erabiltzaileak prezio publikoa edo tasa oso- osorik ordaintzeko nahikoa baliabide ekonomikorik ez badu, 6. paragrafoan adierazi bezala ordainketa egitera behartuta dauden pertsonak beren gain har dezaketen kopuruaren eta zerbitzuaren kostua zerbitzua hornitzeko eskumena duen herri-administrazioak bete beharko du.

factores:

a) El nivel de recursos económicos de la persona usuaria, en los términos en que dichos recursos se determinen reglamentariamente, obedeciendo su valoración a criterios de progresividad. En todo caso, quedará excluida de la valoración la vivienda o alojamiento que constituya su residencia habitual, salvo en el caso de una vivienda de valor excepcional. A tales efectos, el valor excepcional de la vivienda vendrá determinado reglamentariamente por el Gobierno Vasco atendiendo a la situación económica y social vigente en cada momento en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) La unidad convivencial sólo se tendrá en cuenta a efectos de cómputo de recursos económicos en los casos en los que los miembros de dicha unidad dependan económicamente de la persona beneficiaria directa del servicio, y en los casos en los que la beneficiaria directa del servicio sea una persona menor de edad.

5. Cuando las personas obligadas al pago de los servicios acrediten no disponer de un nivel de recursos económicos suficientes con los que abonar íntegramente el precio público o la tasa correspondiente, se beneficiarán de exenciones o bonificaciones.

6. Estarán obligadas al pago del precio público, o de la cuantía que corresponda tras la aplicación de las bonificaciones referidas en el apartado 5, las personas físicas que accedan al servicio y, si fueran menores de edad, quienes ostenten la patria potestad o la tutela.

Asimismo, estarán obligadas al pago aquellas personas que se hayan visto favorecidas por una o varias transmisiones patrimoniales, realizadas a título gratuito por la persona usuaria, en los cinco años inmediatamente anteriores a la solicitud de acceso al servicio, en los términos que se determinen reglamentariamente.

7. En caso de no disponer de recursos económicos suficientes para hacer frente al pago de la totalidad del precio público o, en su caso, de la tasa, la diferencia entre la cuantía asumible por las personas obligadas al pago señaladas en el apartado 6 y el coste del servicio deberá ser cubierta por la administración pública competente para la provisión del servicio.





8. Erabiltzaileek beti bermatuta edukiko dute erabilera libreko urteko gutxieneko kopuru bat; kopuru hori erregelamendu bidez zehaztuko da, zerbitzuen izatasunaren arabera, eta urtero eguneratuko da. Baldin eta erabiltzailearen diru-sarrera garbiak aurreko atalean aipatzen den erabilera libreko urteko gutxieneko kopuruaren berdina edo txikiagoak badira, prestazioa doakoa izango da kasu horretan ere.
9. Adinekoentzako egoitza-zerbitzuen kasuan, baldin eta zerbitzuaren erabiltzaileek kasuan kasuko prezio publikoak edo tasak ordaintzeko nahikoa diru-sarrerarik ez, baina gastu horiei atxiki dakiekeen ondarearen bat badute, finantzaketa-formula alternatiboak adostu ahal izango dira herri-administrazio eskudunaren eta erabiltzailearen artean. Formula horiek, betiere, erabiltzailearen ondarearen osotasuna, erabilera ona eta balorazio zuzena bermatu beharko dute, eta, era berean, zorra onartzeko prozedurak egituratu ahal izango dira. Ondare horren balorazioan kontuan hartuko da ohiko etxebizitza kanpo uztea 4.a) paragrafoan ezarritako moduan.

Zorra kobratzeko, ordaindu behar duen pertsonaren ondasunen ondare-betearazpena gauzatu behar bada, betearazpen horrek ez du etxebizitza eraginpean hartuko, baldin eta pertsona horrek erabili behar badu zerbitzuan baja eman zaiolako, edo etxebizitza hori haren bizikidetzan unitateko beste kide batzuen helbide ohikoa eta bakarra baldin bada, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

10. Zerbitzuak esleitzea eta zerbitzuok nolako intentsitatez eta zein modalitatetan eskaini behar diren zehaztea ez dira egongo onuradunaren baliabide ekonomikoen mailaren mende, baizik eta esku-hartze horren beharizanaren mende.
11. Baliabide ekonomikoen maila kontuan hartu beharko da, betiere, kasuan kasuko zerbitzuaren finantzaketan izan beharreko parte-hartzearen zenbatekoa zehazterakoan, eta ez daiteke izan, inola ere, zerbitzutik baztertzeko faktorea.
12. Emandako zerbitzuaren kalitatea ez da zehatu ahal izango, inola ere, zerbitzuaren kostuan erabiltzaileak duen parte-hartzearen arabera.

#### **58. artikulua. Erakunde pribatuen parte-hartze ekonomikoa**

8. Las personas usuarias tendrán siempre garantizada una cantidad mínima anual de libre disposición que se determinará reglamentariamente en función de la naturaleza de los servicios y se actualizará con carácter anual. En el supuesto de que sus recursos económicos fueran inferiores o iguales a la cantidad mínima anual de libre disposición referida en el apartado anterior, la prestación será gratuita.
9. En el caso de los servicios residenciales para personas mayores, cuando las personas usuarias del servicio carezcan de ingresos suficientes para el pago de los precios públicos o de las tasas correspondientes pero dispongan de un patrimonio que pudiera afectarse a dichos gastos, podrán acordarse entre la administración pública competente y la persona usuaria fórmulas alternativas de financiación que, en todo caso, garanticen la integridad, el buen uso y la correcta valoración de su patrimonio, pudiendo, asimismo, articularse procedimientos de reconocimiento de deuda. En la valoración de dicho patrimonio se tendrá en cuenta la exclusión de la vivienda habitual en los términos indicados en el apartado 4.a).

En el caso de que sea preciso recurrir a la ejecución patrimonial de los bienes de la persona obligada al pago para el cobro de la deuda, no se verificará sobre la vivienda cuando la misma sea necesaria para el uso propio por baja en el servicio o cuando constituya domicilio habitual y único de otros miembros de su unidad de convivencia, en los términos que se determinen reglamentariamente.

10. La atribución de los servicios y la determinación de la intensidad y de la modalidad en que deberán prestarse no dependerán del nivel de recursos económicos de la persona beneficiaria, sino de la necesidad de dicha intervención.
11. El nivel de recursos económicos deberá considerarse a efectos de determinar el importe de su participación económica en la financiación del servicio del que se trate, no pudiendo en ningún caso constituir un factor de exclusión del servicio.
12. La calidad del servicio prestado no podrá ser determinada, en ningún caso, en función de la participación de las personas usuarias en el coste del mismo.

#### **Artículo 58. Participación económica de las entidades privadas**





1. Erakunde pribatuen parte-hartzea bultzatuko da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartuta ez dauden gizarte-zerbitzuen finantzaketan. Horretarako, besteak beste, erantzukizun sozial korporatiboa egikaritzea ahalbidetzen duten jarduerak sustatuko dira.
2. Gizarte-zerbitzuen finantzaketan boluntario moduan parte hartzen duten erakunde pribatuek ere Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan jasotako lerroak hartuko dituzte erreferentziatzat, eta arreta berezia eskainiko diete berrikuntzarekin eta etengabeko hobekuntzarekin lotutako helburu eta estrategiei.

## V. TITULUA EKIMEN PRIBATUAREN ESKU HARTZEA

### I. KAPITULUA EKIMEN PRIBATUAREN ESKU HARTZEA ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO GIZARTE ZERBITZUEN ES- KAINTZAN

#### 1. atala Xedapen orokorrak

#### 59. artikulua. Zerbitzu eta zentroak baimentzea eta homologatzea

1. Ekimen pribatuko erakundeek, Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribatzeaz gain, kasuan kasuko administrazio-baimena beharko dute gizarte-zerbitzuen horniketean eta eskaintzan esku hartu ahal izateko, zerbitzuon izatasunaren eta tipologiaren arabera egokitzen zaizkion eskakizun material, funtzional eta pertsonalekoak bete ondoren.
2. Erakunde pribatuek, behar bezala inskribatzeaz eta baimentzeaz gain, alde aurreko homologazioa ere beharko dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sartutako gizarte-zerbitzuen eskaintzan esku hartzeko.
3. Alde aurreko homologazioa nahitaezko baldintza izango da erakunde pribatu batek gizarte-zerbitzuen horniketa herri-administrazio batekin hitzartu edo kontratatu ahal izan dezan. Homologazioa lortzeak, nolahi ere, ez du ematen eskubiderik itunak edo kontratuak, edo, hala balegokio, lankidetzak-hitzarmenak egitea galdatzeko.

1. Se facilitará la participación de las entidades privadas en la financiación de los servicios sociales no integrados en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales. A tal efecto, se promoverán, entre otras, actuaciones que posibiliten el ejercicio de la responsabilidad social corporativa.
2. Las entidades privadas que con carácter voluntario participen en la financiación de servicios sociales tomarán como referencia las líneas contempladas en el Plan Estratégico de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con especial atención a los objetivos y estrategias relacionadas con la innovación y la mejora continua.

## TÍTULO V INTERVENCIÓN DE LA INICIATIVA PRIVADA

### CAPÍTULO I INTERVENCIÓN DE LA INICIATIVA PRIVADA EN LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS SOCIALES DE RESPONSABILIDAD PÚBLICA

#### Sección 1.ª Disposiciones generales

#### Artículo 59. Autorización y homologación de servicios y centros

1. Las entidades de iniciativa privada requerirán, además de su inscripción en el Registro de Servicios Sociales, la correspondiente autorización administrativa para poder intervenir en la provisión y prestación de servicios sociales, previo cumplimiento de los requisitos materiales, funcionales y de personal que les correspondan en función de su naturaleza y tipología.
2. Las entidades privadas, debidamente inscritas y autorizadas, requerirán la previa homologación para intervenir en la prestación de servicios sociales integrados en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.
3. La previa homologación constituirá un requisito preceptivo para que una entidad privada pueda concertar o contratar, o, en su caso, convenir la provisión de servicios sociales con una administración pública. En todo caso, la obtención de la homologación no otorga el derecho a exigir ni la concertación ni la contratación, ni, en su caso, el convenio de colaboración.





#### **60. artikulua. Ekimen pribatuaren parte-hartzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen eskaintzan**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, beren eskumenen eremuan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen eskaintza antolatu ahal izango dute, honako formula hauen bidez: zuzeneko kudeaketa, itunak lege honetan aurreikusitako itun-araubidearen bidez, zeharkako kudeaketa Administrazio Publikoen kontratazio araudiaren esparruan, eta hitzarmenak irabazi-asmorik gabeko erakundeekin.
2. Eskarien lehenengo harrerako prestazioak, bai eta esku-hartzeko oinarrizko prozedura gisa kasuko koordinazioa duten prestazioei zuzenean lotutakoak ere, bereziki balioespena, diagnostikoa eta orientazioa, beti zuzeneko kudeaketa publikokoak izango dira, dela lehen mailako arretaren eremuan, dela bigarren mailako arretarenean.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, koordinazioa eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko prestazio eta zerbitzuen horniketa ziurtatzeko asmoz.
4. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen kudeaketan, edo gizarte-zerbitzuen eremuan erantzukizun publikokoak diren beste jarduera batzuen kudeaketan, esku hartzen duten erakunde pribatuei dagokienez, 7. artikuluan aurreikusitako jokaera-printzipioak errespetatu beharko dituzten beren jardunean, arreta berezia eskainiz c) idatz-zatian erregulatutako berdintasun- eta ekitate-printzipioari. Bereziki, Euskararen Erabilpena Arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legean ezarritakoa betetze aldera, erakunde pribatu horiek beharrezko diren bitarteko guztiak jarriko dituzte erabiltzaileek euskara edo gaztelania erabili aukeratzeko duten eskubidea gauzatu ahal izatea bermatzeko.

#### **Artículo 60. Participación de la iniciativa privada en la prestación de servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales**

1. Las administraciones públicas vascas, en el ámbito de sus competencias, podrán organizar la prestación de los servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales a través de las siguientes fórmulas: gestión directa, régimen de concierto previsto en la presente ley, gestión indirecta en el marco de la normativa de contratación de las administraciones públicas, y convenios con entidades sin ánimo de lucro.
2. Las prestaciones de primera acogida de las demandas, así como las directamente asociadas a la coordinación de caso como procedimiento básico de intervención, en particular la valoración, el diagnóstico y la orientación, serán siempre de gestión pública directa, tanto en el ámbito de la atención primaria como en el de la atención secundaria.
3. Las administraciones públicas vascas, en aplicación de los principios de coordinación y cooperación, promoción de la iniciativa social y aprovechamiento integral, racional y eficiente de los recursos, procurarán aprovechar, siempre que resulte adecuado, las capacidades y recursos desarrollados por la iniciativa privada social con el fin de garantizar la provisión de las prestaciones y servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
4. Las entidades privadas que intervengan en la gestión de servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales o de otras actividades de responsabilidad pública en el ámbito de los servicios sociales deberán respetar en sus actuaciones los principios de actuación previstos en el artículo 7, con especial consideración del principio de igualdad y equidad regulado en su apartado c). En particular, y en cumplimiento de lo establecido en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, y de la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarías, las mencionadas entidades privadas adoptarán los medios necesarios para garantizar el ejercicio del derecho de las personas usuarias a la elección lingüística del castellano o el euskera.





## 2. atala Itunak egitea ekimen pribatuarekin

### 61. artikulua. Itun-araubidea

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuak ematen dituzten ekimen pribatuko erakundeek, horretarako beren titulartasuneko zentroak dituztenek, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari nola parte hartu behar duten antolatze aldera, itun-araubide bat ezartzen da, herri-administrazioen kontratu-araudian arautzen diren kontratu-modalitateetatik bereizita; esparru horretan izango dute erakunde horiek ematen dituzten erantzukizun publikoko zerbitzuek diru publikoen sostengua.
2. Eusko Jaurlaritzak, lege honetan ezarritakoaren esparruan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako kide egiten diren zentro pribatu itunduen araubide juridikoa eta jarduerako baldintzak ezarriko ditu, eta itun-araubidearen oinarritzko alderdiak arautuko ditu, bereziki ituna eskuratzeko eskakizunak, itunaren gehienezko iraupena eta ituna iraungitzeko kausak, bai eta aldeen betebeharrak ere.
3. Administrazioaren eta erakunde pribatuaren artean sinatutako itunak ezarriko ditu elkarrekiko eskubide eta betebeharrak, itunaren araubide ekonomikoari, iraupenari, luzapenari eta azkentzeari, itundutako unitate-kopuruari, behar izanez gero, eta gainerako baldintzei dagokienez.

### 62. artikulua. Itunen xedea

1. Itungai izan daitezke:
  - a) Plazen erreserba eta okupazioa, herri administrazioek baimendutako onuradunek bakarrik erabil ditzaten. Zerbitzu horietarako irispidea administrazio horiek baimenduko dute, azken horiek horretarako aurreikusitako hautaketa-irizpideak aplikatuz.
  - b) Prestazio, zerbitzu eta zentroen kudeaketa osokoa.
2. Zerbitzu eta/edo zentro bat baino gehiago biltzen duen itun bakar bat izenpetu ahal izango da, betiere titular bera badute.

### 63. artikulua. Itunen ondorioak

## Sección 2.ª Concertación con la iniciativa privada

### Artículo 61. Régimen de concierto

1. Al efecto de articular la participación en el Sistema Vasco de Servicios Sociales de aquellas entidades de iniciativa privada que provean servicios incluidos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicio Sociales y que cuenten para ello con centros de su propia titularidad, se establece un régimen de concierto diferenciado de la modalidad contractual de concierto regulada en la normativa de contratación de las administraciones públicas, en cuyo marco se prevé el sostenimiento con fondos públicos de los servicios de responsabilidad pública prestados por dichas entidades.
2. El Gobierno Vasco, en el marco de lo establecido en la presente ley, establecerá el régimen jurídico y las condiciones de actuación de los centros privados concertados que se integren en el Sistema Vasco de Servicios Sociales, regulando los aspectos básicos del régimen de concierto y en particular los requisitos de acceso, la duración máxima y las causas de extinción del concierto, así como las obligaciones de las partes.
3. El concierto firmado entre la administración y la entidad privada establecerá los derechos y obligaciones recíprocas en cuanto a régimen económico, duración, prórroga y extinción del mismo, número de unidades concertadas, en su caso, y demás condiciones exigibles.

### Artículo 62. Objeto de los conciertos

1. Podrán ser objeto de concierto:
  - a) La reserva y ocupación de plazas para su uso exclusivo por personas beneficiarias cuyo acceso al servicio venga autorizado por las administraciones públicas mediante la aplicación de los criterios de acceso previstos al efecto por estas últimas.
  - b) La gestión integral de prestaciones, servicios o centros.
2. Podrá suscribirse un único concierto que englobe a varios servicios y/o centros, siempre que estos tengan el mismo titular.

### Artículo 63. Efectos de los conciertos





1. Itunak honetara behartzen du ituntzen duen erakunde pribatuko titularra: prestazio eta zerbitzuak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karterak finkatutako baldintzetan hornitzera, hain zuzen ere.
2. Doakoak ez diren prestazioek ezin izango dute eduki irabazizko izaerarik, eta erabiltzaileei ezin izango zaie diru-kopururik kobratu, ezarritako prezio publikotik aparte, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari dagozkion prestazioengatik. Erabiltzaileei 14.5 artikuluan aurreikusitako prestazio osagarriengatik, hitzartutako prezio publikoetatik aparte, beste diru-kopuru bat kobratu ahal izateko, administrazio eskudunaren baimena beharko da.

Hitzartutako prezio publikoak kobratu behar direnean, erakunde pribatu itunduak lankide izango dira bilketan, baina zerbitzua emateko eskumena duen administrazioa izango da bildutakoaren azken hartzailea

#### **64. artikulua. Itun-araubidea eskuratzeko eskakizunak**

1. Itun-araubidea eskuratu ahal izateko, erakunde eskatzaileek, gainera, itunak ezartzeko erregelamendu bidez ezartzen diren eskakizunak bete beharko dituzte, eta betiere honelako arreta eskainia izan beharko diote, zerbitzuaren izatasunaren arabera zehazten den denboran zehar, antzeko beharrianak dituzten pertsona, familia eta/edo taldeei, hau da, zerbitzuaren edo zentroaren hartzaile direnen antzeko beharrianak dituztenei, ituna zerbitzu edo zentro horietarako eskatzen badute, eta zerbitzua eman behar duten eremuan aldezturik egon direla egiaztatatu beharko dute.
2. Betiere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karteran finkatutako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko nahikoa bitarteko eta baliabide daukatela egiaztatatu beharko dute, bai eta, oro har edo berariaz, aplikaziokoak zaizkion arauak betetzen dituztela ere, dela erakundearen izaera juridikoaren izaeraren arabera, dela itungai den zerbitzuetan arabera.
3. Plazen okupazioko edo erreserbako itunak egiten dituzten erakundeek, betiere, zentroaren titulartasuna egiaztatatu beharko dute, erabilera- eta gozamen-eskubide erreala izan beharko dute

1. El concierto obliga a la persona titular de la entidad privada que concierta a proveer las prestaciones y servicios en las condiciones estipuladas por la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales
2. Las prestaciones no gratuitas no podrán tener carácter lucrativo, no pudiéndose cobrar a las personas usuarias ninguna cantidad, al margen del precio público establecido, por las prestaciones propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales. El cobro a las personas usuarias de cualquier cantidad por las prestaciones complementarias previstas en el artículo 14.5, al margen de los precios públicos estipulados, deberá ser autorizado por la administración competente.

En el caso del cobro de los precios públicos estipulados, las entidades privadas concertadas actuarán como colaboradoras en la recaudación de los mismos, siendo su destinataria final la administración competente para la provisión del servicio.

#### **Artículo 64. Requisitos de acceso al régimen de concierto**

1. Para poder acceder al régimen de concierto, las entidades solicitantes deberán cumplir, además, los requisitos que se determinen reglamentariamente para el establecimiento de conciertos, debiendo en todo caso haber prestado atención de manera continuada, durante el tiempo que se determine en función de la naturaleza del servicio, a personas, familias y/o grupos con necesidades similares a las de las personas destinatarias del servicio o centro cuya concertación se solicita, y debiendo acreditar su presencia previa en la zona en la que se vaya a prestar el servicio.
2. En todo caso, deberán acreditar los medios y recursos suficientes para garantizar el cumplimiento de las condiciones estipuladas en la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales así como el cumplimiento de la normativa que, con carácter general o específico, les sea de aplicación, tanto en función de la naturaleza jurídica de la entidad como en función del tipo de servicio objeto de concertación.
3. Las entidades con las que se realicen conciertos de ocupación o reserva de plazas deberán acreditar la titularidad del centro, o ser titulares de un derecho real de uso y disfrute sobre el





zentroaren gainean, eta eskubide hori, betiere, ez da izango itunaren indarraldia baino laburragoa. Zentroaren titularra lokalaren edo eraikinaren jabea ez bada, egiaztatu beharko du jabearen baimena daukala lokal edo eraikin hori itunaren xederako bideratzeko.

4. Era berean, itun-araubidea eskuratzeko, erakundeek egiaztatu beharko dute, beren antolaketan, funtzionamenduan eta esku-hartzean, berdintasuneko printzipioa erabat errespetatuz jarduten dutela, genero-ikuspegiaren egiazko integrazioaren eta helburu horretara bideratutako berdintasuneko neurri edo planen egituraketaren bitartez, zehazki familia eta lana uztartzeko neurrien bitartez.

#### **65. artikulua. Diskriminazio positiboko neurriak**

1. Itunak ezartzerakoan, administrazio publikoek lehentasuna emango diete, eraginkortasuneko, kalitateko eta kostuko baldintza antzekoak daudenean, irabazizko izaerarik ez duten gizarte-zerbitzuak eskaintzen diharduten erakundeei.
2. Era berean, ituna eskatzen duen erakundearen forma juridikoa alde batera utzita, diskriminazio positiboko neurriak aplikatuko dira, besteak beste, hain ibilbidean, honako neurri hauek beneran aplikatu dituzten erakundeentzat:
  - a) Jardueraren emaitza ekonomikoak ituntzea eskatu duten zerbitzu eta zentroen etengabeko hobekuntzara bideratu izana, eta hori egiteko hitza ematea ituna indarrean dagoen bitartean.
  - b) Gizarte-egoera bereziki ahuleko pertsona, familia eta/edo taldeei zuzendutako zerbitzuak eskaintzea edo zentroak kudeatzea.
  - c) Itundu beharreko zerbitzuari edo zentroari balioa eranstea, zerbitzuaren hartzaile diren pertsona, familia eta/edo taldeei zuzendutako beste prestazio, zerbitzu edo jarduera batzuekin lortzeko.
  - d) Itundu beharreko zerbitzurako edo zentrorako personal kontratatuaaren ratio ezarriak hobetzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karteran.

mismo que, en cualquier caso, no podrá ser inferior al periodo de vigencia del concierto. Cuando la persona titular del centro no sea propietaria del local o edificio deberá acreditar que cuenta con la autorización de la persona propietaria para destinarlo al fin del concierto.

4. Asimismo, para acceder al régimen de concierto las entidades deberán acreditar que en su organización, funcionamiento e intervención actúan con pleno respeto del principio de igualdad, mediante la integración efectiva de la perspectiva de género y la articulación de medidas o planes de igualdad orientados a dicho objetivo, en particular medidas orientadas a la conciliación de la vida familiar y laboral.

#### **Artículo 65. Medidas de discriminación positiva**

1. A los efectos de establecimiento de conciertos, las administraciones públicas darán prioridad, cuando existan análogas condiciones de eficacia, calidad y costes, a las entidades dedicadas a la prestación de servicios sociales que tengan carácter no lucrativo.
2. También se aplicarán, independientemente de la forma jurídica de la entidad que solicita el concierto, criterios o medidas de discriminación positiva a favor de aquellas entidades que acrediten la efectiva aplicación, a lo largo de su trayectoria, de, entre otras, las siguientes características:
  - a) Haber destinado los resultados económicos de la actividad a la mejora continua de los servicios y centros que solicitan concertar, y comprometerse a hacerlo durante la vigencia prevista para el concierto.
  - b) Prestar servicios o gestionar centros dirigidos a personas, familias y/o grupos especialmente desfavorecidos.
  - c) Agregar valor al servicio o centro a concertar a través de su conexión con otras prestaciones, servicios o actividades dirigidas a las personas, familias y/o grupos destinatarios del mismo.
  - d) Mejorar las ratios del personal contratado para el servicio o centro a concertar establecidas en la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.





- e) Erasandako pertsonen parte-hartzea eta gizarte-boluntariotzako jarduerak aurrera-kustea, elkarlaguntzako jardueren bidez, zerbitzuaren edo zentroaren hartzaile diren pertsona, familia eta/edo beharriak artatzeko.
- f) Zuzendaritzako organoetan emakumeak % 40tik gora izatea.
- g) Familia- eta lan-bizitza uztartzera zuzendutako neurriak aplikatzea.
- h) Ahalmen-urrituak lanean, legeek agintzen dutenetik harago, benetan integrazeko neurriak aplikatzea.
- i) Ingurumena babesteko, zaintzeko eta berrezartzeko neurriak aplikatzea.
- j) Kalitatea bermatzeko edo etengabe hobetzeko sistemak aplikatzea.
- k) Lan-baldintzak hobetzera zuzendutako neurriak aplikatzea.

#### **66. artikulua. Itun-araubidearen finantzaketa**

1. Itundutako zerbitzuak mantentzera bideratzen diren funts publikoen zenbateko osoa, kasuan kasuko administrazioaren aurrekontuetan ezarriko da.
2. Zenbateko oso hori banatzerakoan, urtero finantzeko dira itundutako prestazio eta/edo zerbitzu bakoitzari dagozkion modulu ekonomikoen zenbatekoak.

#### **67. artikulua. Itunen iraupena, aldaketa, berriztapena eta azkentzea**

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko prestazio eta zerbitzuen horniketak itunak, betiere, urte askoko oinarri baten gainean ezarri beharko dira, prestazio eta zerbitzuen horniketan egonkortasuna ziurtatzeko; dena dela, prestazio eta zerbitzu horien indarraldia agortu aurretik, berrikusi eta, behar izanez gero, aldatu behar diren alderdiak zehaztuko dira.
2. Itunak berritu ahal izango dira, hasierako iraupen-eparearen berdina den aldi baterako, betiere hala aurreikusita badago.

- e) Contemplar la participación de las personas afectadas, a través de actividades de ayuda mutua en la atención de las necesidades de las personas, familias y/o grupos destinatarios del servicio o centro, y las actividades de voluntariado social.
- f) Contar con más de un 40 % de mujeres en los órganos de dirección.
- g) Aplicar medidas orientadas a la conciliación de la vida familiar y laboral.
- h) Aplicar medidas para la efectiva integración laboral de las personas con discapacidad más allá de las exigencias legales.
- i) Aplicar medidas para la preservación, conservación o restauración del medio ambiente.
- j) Aplicar sistemas de aseguramiento o mejora continua de la calidad.
- k) Aplicar medidas orientadas a la mejora de las condiciones laborales.

#### **Artículo 66. Financiación del régimen de concierto**

1. La cuantía global de los fondos públicos destinados al sostenimiento de los servicios concertados se establecerá en los presupuestos de las administraciones correspondientes.
2. A efectos de distribución de la citada cuantía global, se fijarán anualmente los importes de los módulos económicos correspondientes a cada prestación y/o servicio concertado.

#### **Artículo 67. Duración, modificación, renovación y extinción de los conciertos**

1. Los conciertos para la provisión de prestaciones y servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales deberán establecerse sobre una base plurianual, con el fin de garantizar la estabilidad en su provisión, sin perjuicio de que puedan determinarse aquellos aspectos que deban ser objeto de revisión y, en su caso, modificación antes de agotar su vigencia.
2. Los conciertos podrán ser renovados por un periodo igual al de su plazo de duración inicial, siempre que así esté previsto.





3. Behin, edozein kausa dela eta, itunaren indarraldia amaituz gero, Administrazio Publikoek bermatu beharko dute itundutako prestazio eta zerbitzuen erabiltzaileek ez dutela kalterik jasango ituna amaitzeagatik.

### 68. artikulua. Itunen formalizazioa

Itunaren formalizazioa kontratu-programa batzuetan gauzatuko da. Erregelamendu bidez ezartzen diren alderdiez gain, honako hauek zehaztuko dituzte kontratuok:

- a) Itunaren xedea zehaztea eta jardueraren bolumen osoa zenbatestea.
- b) Iraupena, iraungitzeko kausak, eta ituna aldatzeko eta berritzeko prozedura.
- c) Itundutako erakundea mantentzeko, kasuan kasuko modulu ekonomikoen arabera, Administrazioak izendatzen duen kopuru osoa.
- d) Ordainketen aldizkakotasuna eta ordainketak egiteko prozedura, eta gastuak justifikatzekoa.
- e) Segimendu, kontrol eta auditoretzako prozedura eta mekanismoak, Administrazioaren aldetik.
- f) Aldeek bere gain hartzen dituzten betebeharrak.

#### 3. atala

### Lankidetzako esparru-hitzarmen eta -akordioak

### 69. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartutako zerbitzuak kudeatzeko hitzarmenak

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek hitzarmenak ezar ditzakete irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeekin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan sartutako prestazio eta zerbitzuen horniketarako; baldin eta, erakundearen jarduera edo dagoen prestazioa edo zerbitzua berezia, premiazkoa, berritzailea edo esperimentalak izaki, itun-araubidea aplikatzea komeni ez bada, ituna nola arautu den aintzat hartuta, eta betiere hori behar bezala egiaztatzen bada.

Aurrekoa gorabehera, aplikatzekoak izango zaizkie hitzarmen horiei itun-araubideari dagozkion ezaugarri eta eskakizun guztiak, hitzarmen izatasunarekin bateraezinak gertatzen ez badira; batik bat, aplika-

3. Una vez finalizada la vigencia del concierto, por la causa que fuere, las administraciones públicas deberán garantizar que los derechos de las personas usuarias de las prestaciones y servicios concertados no se vean perjudicados por la finalización del concierto.

### Artículo 68. Formalización de los conciertos

La formalización de los conciertos se plasmará en contratos-programa que concretarán, además de los que se establezcan reglamentariamente, los siguientes aspectos:

- a) Determinación del objeto del concierto y estimación del volumen global de actividad.
- b) Duración, causas de extinción y procedimiento para su modificación y renovación.
- c) Cantidad global consignada por la Administración para el sostenimiento de la entidad concertada, de acuerdo con los módulos económicos correspondientes.
- d) Periodicidad y procedimiento de realización de los pagos y de justificación de los gastos.
- e) Procedimiento y mecanismos de seguimiento, control y auditoría por parte de la Administración.
- f) Obligaciones que adquieren las partes.

#### Sección 3.ª

### Convenios y acuerdos marco de colaboración

### Artículo 69. Convenios para la gestión de servicios incluidos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales

Las administraciones públicas vascas podrán establecer convenios con entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro para la provisión de prestaciones y servicios integrados en el catálogo del Sistema Vasco de Servicios Sociales en aquellos supuestos en los que la singularidad de la actividad de la entidad o de la prestación o servicio del que se trate, su carácter urgente o su carácter innovador y experimental, aconsejen la no aplicación del régimen de concierto en los términos en los que el mismo se regule y así se motive.

No obstante lo anterior, serán de aplicación a dichos convenios todas aquellas características y requisitos propios del régimen de concierto que no resulten incompatibles con la naturaleza de aquellos; en





tzekoak izango dira modulu ekonomikoak, eskuratzeko eskakizunak eta diskriminazio positiboko neurriak arautzen dituzten arau-xedapenak.

Aurreko ataletan aipatzen diren hitzarmenak, kontratu-programen bidez formalizatu behar dira, 68. artikuluan itunetarako aurreikusitako baldintzetan.

## **70. artikulua. Lankidetzako esparru-akordioak**

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek lankidetzako esparru-akordioak ezarri ahal izango dituzte irabazi-asmorik gabeko erakundeekin. Akordio horiek honako hauek jasoko dituzte: direla katalogoan sartutako zerbitzuak eskaintzeko erakundearekin ezartzen diren itun, hitzarmen edo kontratuak, direla katalogoan sartu gabeko gizarte-zerbitzuak eskaintzeko edo kasuan kasuko administrazio publikoak sustatzea egokitzat edo bidezkotzat hartzen dituen beste jarduera batzuk egiteko erakunde horiekin izenpetzen diren lankidetzako hitzarmenak.

### **4. atala**

**Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen kudeaketa kontratatzea eta gizarte-zerbitzuen eremuko erantzukizun publikoko beste jarduera batzuk kontratatzea**

**71. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen kudeaketa eta gizarte-zerbitzuen eremuko erantzukizun publikoko beste jarduera batzuk kontratatzea**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen zuzeneko kudeaketa aukeratzen ez dutenean, zerbitzuen zeharkako kudeaketara jo ahal izango dute, zerbitzuon izatasuna edo izaera berritzailea dela eta, itun-araubidera jotzea ezinezko gertatzen denean.
2. Katalogoko zentro eta zerbitzuen zeharkako kudeaketa hori herri-administrazioen kontratuak arautzen dituzten araudietan zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu-erakundearen bidez formalizatu behar da. Kontratu horiek kontratu-programen bidez formalizatu dira, 68. artikuluan itunetarako aurreikusten diren baldintzetan.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, gainera, zerbitzu eta zentroen kudeaketaz besteko jarduera batzuk egitea kontratatu ahal

particular, serán de aplicación las disposiciones normativas reguladoras de los módulos económicos, de los requisitos de acceso y de las medidas de discriminación positiva.

Los convenios referidos en los apartados anteriores deberán formalizarse a través de contratos-programa en los términos previstos para los conciertos en el artículo 68.

## **Artículo 70. Acuerdos marco de colaboración**

Las administraciones públicas vascas podrán establecer con las entidades sin ánimo de lucro acuerdos marco de colaboración, que recojan tanto los conciertos, convenios o contratos establecidos con la entidad para la prestación de servicios incluidos en el catálogo como los convenios de colaboración suscritos con la misma para la prestación de servicios sociales no incluidos en el catálogo o para la realización de otras actividades que la administración pública correspondiente considere adecuado y oportuno promover.

### **Sección 4.ª**

**Contratación de la gestión de servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales y contratación de otras actividades de responsabilidad pública en el ámbito de los servicios sociales**

**Artículo 71. Contratación de la gestión de servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales y de otras actividades de responsabilidad pública en el ámbito de los servicios sociales**

1. Cuando las administraciones públicas vascas no opten por la gestión directa de los servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, podrán recurrir a la gestión indirecta de los mismos cuando, por su naturaleza o por su carácter innovador, no resulte posible recurrir al régimen de concierto.
2. La gestión indirecta de los centros y servicios del catálogo deberá adecuarse a las disposiciones previstas para los contratos de gestión de servicios públicos en la normativa reguladora de los contratos de las administraciones públicas. Estos contratos se formalizarán a través de contratos-programa en los términos previstos para los conciertos en el artículo 68.
3. Las administraciones públicas vascas podrán contratar con entidades de titularidad privada la realización de actividades de responsabilidad





izango dute titulartasun publikoko erakundeekin.

## 72. artikulua. Gizarte-klausulak, diskriminazio positiboko neurriak eta kontrataziorako beste irizpide batzuk

1. Administrazio Publikoek, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogo zerbizuak kudeatzeko kontratuak esleitzeko prozeduretan, gizarte-klausula batzuk erantsiko dituzte. Besteak beste, honi egingo diote erreferentzia klausulok: erakundearen aldetik arreta jarraituko eskakizuna betetzeari, zerbitzuaren izatasunaren arabera zehazten den denboran zehar, antzeko beharrianak dituzten persona, familia eta/edo taldeei, hau da, zerbitzuaren edo zentroaren hartzaile direnen antzeko beharrianak dituztenei arreta jarraitua, zerbitzu edo zentro horien kudeaketa esleitu nahi bada, eta bereziki aintzat hartuko da zerbitzua eman behar duen eremuan aldez aurretik egon bada.

Gizarte-klausula horiek esleipenerako eskakizuna izango dira, eta ez dira, inola ere, merezimendu soiltzat balioetsiko.

2. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak ezarzerakoan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek lehentasuna emango diete, eraginkortasuneko, kalitateko eta kostuko baldintza antzekoak daudenean, irabazizko izaerarik ez duten gizarte-zerbitzuak eskaintzen diharduten erakundeiei.

Era berean, erakunde horren forma juridikoa alde batera utzita, diskriminazio positiboko neurriak aplikatuko dira, besteak beste, honako ezaugarri hauek biltzen dituzten erakundeen alde:

- a) Jardueraren emaitza ekonomikoak kontratugai diren zerbitzu eta zentroen etengabeko hobekuntzara bideratzea.
- b) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Karteran ezarzen diren ratioak hobetzea.
- c) Zerbitzuaren eskaintzari edo zentroaren kudeaketari lotutako kostuak gutxitzen laguntzea, beste zerbitzu edo zentro batzuen erabilera konbinatuaren bidez.
- d) Erasandako pertsonen parte-hartzea egituratzea, elkarlaguntzako jardueren eta

pública distintas de la gestión de servicios y centros.

## Artículo 72. Cláusulas sociales, medidas de discriminación positiva y otros criterios en la contratación

1. Las administraciones públicas incorporarán, en los procedimientos de adjudicación de contratos de gestión de servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, cláusulas sociales que hagan referencia, entre otros, al cumplimiento por parte de la entidad del requisito de atención continuada, durante el tiempo que se determine en función de la naturaleza del servicio, a personas, familias y/o grupos con necesidades similares a las de los destinatarios del servicio o centro cuya gestión se pretende adjudicar, debiendo otorgarse una consideración especial a su presencia previa en la zona en la que se vaya a prestar el servicio.

Estas cláusulas sociales constituirán un requisito para la adjudicación, no pudiendo en ningún caso valorarse como un simple mérito.

2. A los efectos del establecimiento de contratos para la gestión de servicios públicos, las administraciones públicas vascas darán prioridad, cuando existan análogas condiciones de eficacia, calidad y costes, a las entidades dedicadas a la prestación de servicios sociales que tengan carácter no lucrativo.

